



Auzolanetik herrira

Gaur, egubakoitza, jaialdi berezian aurkeztuko dute Kilometroak 2017ren kantua eta bideklipa / 5

Gaurko ikuskizunean parte hartuko duten hainbat artista eta Txantxiku Ikastolako ikasle batzuk, jaialdiaren entsegu orokorraren aurretik. XABI URZELAI

Bergara mailaz igo daiteke zapatuan

Txapelketa bukatzeko hiru jardunaldiren faltan, Bergarak bi puntu bakarrik behar ditu kategoriaz igo eta Lehen Erregeralera bueltatzeko / 27

+  Jone Guenetxea
Tokikomeko
presidentea

Euskal Herriko
Itzulia barrutik bizi
dutenak

SINADURAK

 IÑIGO INURRATEGI / 8	 MARIJO DEOGRACIAS / 31
 IKER ELEXPURU / 23	 JOSE LUIS MADINAGOITIA / 35
 ANDRES OSA 'SAKONA' / 24	 AINTZANE OIARBIDE / 48

#BATZUK:
ANAJE
NARBAIZA,
MAKINA BAT LAN
EUSKARAREKIN
GOIENA TELEBISTA
MAIATZAREN 4AN,
EGUENEAN, 21:00ETAN
IKUSTENDA-K ETA GOIENA-K
EKOIZTUTAKO SAIOA

goiena
ZU HEMEN ZAUDE



VW Tiguan berria



Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



Das Auto

Baso sostengarrietatik eratorritako aldizkaria

PEFC ziurtagiria eskuratu du Goiena Komunikazio Taldeak; GOIENA aldizkaria argitaratzeko erabiltzen den paperak baldintza jakin batzuk betetzen dituela ziurtatzen du horrek: besteak beste, papera egiteko egurra baso sostengarrietatik datorrela

Ubane Madera DEBAGOIENA

Egubakoitzero argitaratzen den GOIENA aldizkariaren paperak kudeaketa sostengarria ziurtatuta duten basoetan du jatorria, eta zeregin horretan diharduten langileen eskubideak Lanaren Nazioarteko Erakundearen Adierazpenaren arabera bermatuta daude.

Hori egiaztatzen du PEFC ziurtagiriak (Europako Basogintza Planaren Ziurtagiria). Eta, hain justu ere, ziurtagiri hori eskuratu du GOIENA aldizkariak.

Euskarazko lehena

GOIENA aldizkaria da ziurtagiri hori eskuratu duen lehen eus-



Modu sostengarrian kudeatutako basoa. PEFC

kal hedabidea. "Honek bat egiten du Goiena Komunikazio Taldeak ingurumenarekin duen konpromisoarekin", azpimarratu du Iban Arantzabalek, Goiena Komunikazio Taldeko zuzendari nagusiak. Hark esplikatu du "Goienak sozialki egitekoen artean" duela "ingurumenarekiko begirunez" jokatzea: "Eta inportantetzat jo dugu GOIENA aldizkariaren irakurleak eskuetan duen aldizkari hori zein zuhaitz zehatzetatik datorren jakin ahal izatea, baita ere basoaren ustiaketa modu jasangarrian eta langileendako baldintza egokietan egiten dela ziurtatzea", gaineratu du Arantzabalek.

230 milioi hektarea baso

PEFC mundu mailako lehen baso ziurtagiria da. 30 herritako ziurtagiri sistemak ditu onartuta bere baitan; eta sistema horie esker, bermatuta dago 230 milioi hektarea baso modu sostengarrian kudeatzen direla.

Behin ziurtagiria eskuratuta, bost urterako balioa dauka; hortik aurrera, urtero egiten dute baldintzak betetzen jarraitzen direla bermatzeko auditoretza.

Basoak babestu

"Modu sostengarrian ustiatutako baso batean oso irizpide zorrotzak hartzen dira aintzat; sozialak, ekonomikoak eta ingurumenari dagozkionak: garrantzi ekologikoa duten basoak babestu egiten dira, aniztasun biologikoa hobetuz, basoen konbertsioa eragotziz eta tokiko bizilagunen eta langileen eskubideak errespetatuz", adierazi du Araceli Muñozek, PEFCko Komunikazio eta Marketin arduradunak. Hark gaineratu du PEFCk, besteak beste, basoetatik eratorritako produktuak promozionatzen dituela, papera, esaterako, eta PEFC ziurtagiriak ahalbidetzen duela basoen eta bertatik eratorritako lehengaien transformazioen kudeaketaren jarraipen kontrolatua egitea. Irabazi asmo bako elkarreko ordezkariak gaineratu du basoen kudeaketa sostengarria ziurtatzen duen gaur egungo "proba independente bakarra" dela PEFC ziurtagiria, eta, adibidez, basoen zaintzak "landetako populazioaren garapenean eta naturarekin lotutako aisialdirako eskaintza handitzen" laguntzen duela.

DEBAGOIENEN EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

"GUZION ESKOLA, GUZION ARTEAN"

Matrikulazio epea zabalik

MAIATZAREN 2tik 12ra

605 77 39 92 goieskola@gmail.com

goieskola
debagoieneko euskal eskola publikoa

baikara
Bazterreko Eskola Publikoak

BATXILERGOAK

Arrasate
Arrasate Institutua

- * Zientziak
- * Giza eta Gizarte Zientziak
- * Arte Batxilergoa

Ate irekiak
Maiatzaren 3an, 18:00etan

Bergara
Ipintza Institutua

- * Zientziak
- * Giza eta Gizarte Zientziak

Ate irekiak
Maiatzaren 3an, 18:00etan

Oñati
Zuazola-Larraña Institutua

- * Zientziak
- * Gizarte Zientziak

Ate irekiak
Maiatzaren 3an, 18:00etan



San Martin eta Ipintzako ordezkariak.



HHI eta MAIko ordezkariak.



AED, Ekin eta Txatxilipurdiko ordezkariak



Aretxabaletako EAJko ordezkariak.



Aretxarteko ordezkariak. ARGAZKIAK: GOIENA

Debagoiena nabarmenduta, Korrika dela eta

"Eskerrak benetan, parte hartze oso handia izan delako neurri guztietan, ez bakarrik kalean", nabarmendu du AEKren Artekari Kontseiluko kide Oskar Elizburuk, debagoiendarrek Korrikari emandako erantzunari buruz

Ubane Madera DEBAGOIENA

Etorri eta joan zen 20. Korrika. Aurtengo edizioaren oso balorazio positiboa egin dute antolatzaileek, orokorrean, baina, bereziki, Debagoienak Korrikan utzi duen arrastoa nabarmendu du Oskar Elizburuk, AEKren Artekari Kontseiluko kideak eta Debagoieneko AEKren arduradunak: "Horen seinale da Gipuzkoako arduraduna bera ere hunkituta sentitu zela Debagoiengan; beste adierazle bat da eskertzeko erabili zen argazki nazionala Aretxabaletako dela". Beste adibide bat ere eman du hark, datutan: "100 kilometrotik gora diruz lagundu dira eskualdean, benetan erdiak izan direnean eskualdeko kilometro kopurua".

Muina babestu guran

Aurtengoa eginda, bi urte barruko Korrikari begira daude ja, hausnarketa fasea iragarrita, euskararen aldeko lasterketa herrikoien mamia gordetzeko kezka eraginda. Izan ere, "Korrikak bolumen sozial handia hartu du, eta askok parte hartzen duten ekimenek muina edo mamia galtzeko arriskua izan lezakete. Korrika da euskara aldarrikatzeko parte

hartzea eta auzolana bultzatzen duen ekimena, eta ez bakarrik euskararen alde zaudela esateko, baizik eta benetan ekimenerako bokazioa daukana (...) Helburuetako bat du euskaraz bizitzeko bidean jartzea jendea, normalizazioari begirako aldarrikapenak, eta bestea, behar ekonomikoa. Oso inportantea da azken urteetan gero eta jende gehiago batzen ari garela, gero eta jende desberdina goa, konpromiso maila desberdinekin, baina beti norabide berean izan beharko lukeen gauza bat da (...) Pentsatzen dugu benetan eragiten ari garela normalizazioan eta hori inportantea dela, eta hausnarketa da hori guztia nola kanalizatu, nola mantenu", esplikatu du Elizburuk.

"Normalizatorako prestutasuna"

Zentzu horretan, AEK-ko kideak azpimarratu du aurtengo edizioan "oso garrantzitsuak" izan diren hainbat ekimen egon direla Korrikan; adibidez, "administrazio guztietako ordezkariak elkarrekin kilometro batean adierazten euskalgintza osoarekin eta elkarlanean euskararen normalizatorako pausoak emateko prestutasuna dagoela".

m
MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

#erronkarakoprest

Jon Arrizabalaga

Gernika. Lidergo Ekintzailea
eta Berrikuntza, 3. maila.

GRADUKO ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ORONA IDEO · APIRILAK 29
LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

GOIERRI · MAIATZAK 4
OSTEGUNA, 17:30 / Areto Nagusia

ARRASATE · MAIATZAK 20*
LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

*Batxilergoko 1. mailan dauden ikasleei zuzenduta.

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

BILBAO · APIRILAK 29
LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

BIDASOA · MAIATZAK 18*
OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia

OÑATI · MAIATZAK 25*
OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia

*Batxilergoko 1. mailan dauden ikasleei zuzenduta.

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORIATZA · MAIATZAK 6
LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

ARETXABALETA · MAIATZAK 6
LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA Basque Culinary Center

DONOSTIA · MAIATZAK 13
LARUNBATA, 10:30 / Auditorium

ETORRIKO
ZARELA
JAKINARAZI!

www.mondragon.edu/prest

902 110 436



Eguaztenean egin zuten aurkezpen ekitaldiko entsegu orokorra, Eltzian. XABI URZELAI

Lekaixo doinuak entzungai gaur

Kilometroak 2017 jaialdiko abestia eta bideoklipa aurkeztuko dituzte gaur, egubakoitza, Zubikoa kirolegian egingo den emanaldian; bertan parte hartuko dute, besteak beste, Aitor Uriartek, Ruper Ordorikak eta Juan Carlos Irizarrek

Eneko Azurmendi OÑATI

Irailaren 24an egingo den Kilometroak 2017 jaialdiko abestia aurkeztuko dute gaur, Zubikoa kirolegian, 21:30ean –ateen irekiera 21:00etan–. Aurkezpena egiteko, Oñatiko musikagintza-ren historia azaltzen duen emanaldia prestatu dute. "1989ko Kilometroak jaialdia abiapuntutzat hartuta, herriko musikagintzak eboluzio handia izan du gaur egun arte, eta hori azalduko da ekitaldian", adierazi du Jon Irizarrek, Kilometroak 2017ko komunikazio arduradunak.

Ikuskizunak arlo desberdinak izango ditu. "Bideo eta esketxen bitartez, puntu, ekimen edota aldaketa garrantzitsuenak adieraztea izango da helburua, eta garai bakoitzeko talde garrantzitsuenetako batzuek zuzenean joko dute, estilo eta formatu anitzetan", adierazi du Irizarrek.

Hain zuzen ere, herriko zazpi musika talde ariko dira gaur, zuzenean: Aitor Uriarte –Latzen–, Ruper Ordorika, Sharon Stoner, Malenkonia, Hor Konpon, Txantxiku Ikastolako Ikasleak eta, azkenik, 1989ko Kilometroak jaialdiko abestiaren egile Juan Carlos Irizar, Txantxiku Ikastolako Kantu Tailerreko kideekin batera.

Horrez gain, omenaldi kutsua ere izango du gaurko emanaldiak. "Herriko musikagintza garrantzitsuak izan diren eta jadanik gure artean ez dauden pertsona batzuk ere omenduko dira ekitaldian, bertso, bideo eta esketx bitartez egingo den omenaldian", dio Irizarrek.

Aurkezpena, amaieran

Omenaldiaren ostean, emanaldiaren amaieran, aurtengo Kilometroak jaialdiak izango dituen

abestia eta bideoklipa aurkeztuko dira, biak ala biak auzolanean sortuak. "Auzolana denez jai honen oinarria eta aurtengo aldarr nagusia, herriko musikariak osatu dute kantua", azpimarratu du komunikazio arduradunak.

Eltziako parte diren hainbat musikari arduratu dira kantua-ren doinuez eta letra, berriz, Txinparta Bertso Eskolako kideek idatzi dute. Ahotsari dagokionez, herritarrenak dira ahots gehienak, nahiz eta badiren aurpegi ezagun batzuk ere, hala nola, Zurine Hidalgo Hesian

BIETAN, KANTUAN ZEIN BIDEOKLIPEAN, IKASTOLAKO IKASLEEK ERE HARTU DUTE PARTE

taldeko abeslaria edota Angel Alkain aktorea. "Jo izan dugu Kilometroak jaialdian, baina, justu, jaialdiaren abestian kantatzeko ez didate sekula esan, eta kasu honetan berezia izan zen, polita niretzat. Proposamena iritsi zitzaizkidan, poz handiz, baiezkoa eman nuen", adierazi du Hidalgo.

Alkainek, berriz, festan parte hartzeko gonbita egin du: "Azaldu zaitezte Txantxiku Ikastolaren alde egingo den festara, baina, betiere, umorearekin, ez ahaztu hori", adierazi du. Ruper

Ordorika herritarrek ere egin dio ekarpena abestiari. "Kantuak beti balio izan du jendea batzeko, eta, Oñatin izanda, kantuan egin behar nuen", dio. "Noizbait ez dira izango beharrezkoak horrelako gauzak, baina gaur egun oraindik bai, eta pozik nago parte hartzeagatik", amaitu du.

Erakargarria

Auzolanean sortutako kanta erakargarria da, Irizarren hitzetan. "Bizia, dantzagarria eta erraz entzutekoa da".



Bernat Alberdi grabaketaren une baten. IMANOL SORIANO

Bideokliparen grabaketa

"Logotik dator ideia. Soinu uhinaren errepresentazio edo metafora bisuala egin nahi izan da", dio Kepa Aranburuk, zuzendarietako batek –bestea Bernat Alberdi izan da–. Bideoklipeko protagonista Uxue Murguzur ikaslea da. Astebetean aritu dira grabazio lanetan.

ZURE EKARPENAK, EGUNEROKOAN ONURA. GOGOAN HARTU.

Aurten, aurrekontuaren ia erdia bideratu da gizarte politikerara. Ekonomia sustatzea eta enplegua sortzea ere lehentasuna dira. Hori, eta gehiago. Eta guztia, zu onuradun izan zaitezten.



Amaia,
oñatiarra.
Ingeniaria.

- A** Gipuzkoa osoa lotzen duten Lurreldebuseko 111 linea.
- B** 3.478 langile kontziliazioaren inguruko esperientzia pilotuetan parte hartuz.
- C** Gipuzkoako biribilgunea: autobia edo autobide bat herri bakoitzetik 15 km baino gutxiagora.
- D** 90 km baserri bideren berritze lanak 75 herritan.
- E** 419 enpresa berri: 147 emakumeek sortuak.
- F** %67ra bitarteko deskontua autobietan Abiatuari esker.

Hizkuntz paisaia euskalduntzen

Dendariei eta ostalariei euren komertzioetako errotulu, kartel, menu edota bestelako iragarkiak euskaratzen laguntzeko Idazlaguna ekimenak egindako ibilbidearekin "oso pozik" dago Jardun euskara elkarteak; ekainerako beste kanpaina bat prestatzen dabilta



Idazlaguna ekimena lau iruditzen. JARDUN

Jokin Bereziartua BERGARA

Duela ia hiru urte jaio ziren Bergaran idazlagunak, dendariak eta ostalariei euren komertzioetako hizkuntz paisaia –errotuluak, menuak, eskaintzak...– euskaratzen laguntzen dieten herritar boluntarioak. "Euskara, hizkuntza gutxitua izanik, nabarmendu egin behar da. Bultzada berezia behar du. Horregatik, merkataritzan euskara hutsean dagoena baloratuko eta gorai-patuko dugu, nahiz eta elebitasuna onartzen dugun. Hori bai,

betiere, euskarari lehentasuna emanda", dio Jardunek. Orain arte egindako ibilbidearekin oso pozik daude: "Ekimena martxan jarri zenean 60 herritarrek baino gehiagok eman zuten izena boluntario, eta 100 komertzioek konpromisoa hartu zuten euren hizkuntza paisaia euskaraz edo ele bitan jartzeko. Orain arte egindako kanpainetako parte hartzea ona izan da, eta lortu dugu hainbat komertzioek euren kabuz euskaraz iragartzea. Hasieran idazlagun baten beharra

zuten, baina gaur egun ez. Hor-taz, oso balorazio positiboa egin dugu, herritarrek eta komertzioak batuta lortu dugulako gure herriko hizkuntz paisaia euskaldunagoa izatea".

Ekinean, arropak eta oinetakoak

Jardun euskara elkarteak urteko lau kanpaina aurreikusten ditu, kanpaina bakoitza arlo zehatz baten zentratuz: tabernak eta jatetxeak, arropa eta oinetako dendak, janari dendak eta bestelakoak. Tabernetan eta

jatetxeetan hizki-zopa egin zuten, janari dendetan *Erosi, prestatu eta gozatu euskaraz* kanpaina eta aurtengo ekinean arropa eta oinetako dendetan zentratuko dira: "Kanpaina berri horri forma ematen gabiltza".

Idazlagun izaterakoan hiztegi arazoak izaten dira ohikoenak, ez dira-eta itzultzaile profesionalak. "Egokitasuna dela, euskara batuan berba batzuk ulergaitzak direla eta horiek nola moldatu herritarrek uler dezaten..." Horretarako, baina, Jar-

dunek *IdazLaguna* izeneko aplikazioa sortu zuen. Eta, idazlagunek hala esanda, "tresna oso erabilgarria" da.

Ekimenak bide oso emankorra egin du orain arte, baina oraindik badago zer egin. "Etengabe elikatu behar da; bestela, ahaztuztat emateko arriskua dago", diote Jardunekoek. Ainara Zubia idazlagunak honakoa gaineratu du: "Guretako, oso lan erraza da eta laguntza handia dugu atzetik. Beharra dagoen bitartean hor egon behar dugu".



2017ko OHIKO BATZAR OROKORRERAKO DEIA

Kontseilu Errektorearen erabakiz, Elkartearen Ohiko Batzar Orokorrera deitzen da. Batzarra, **Aretxabaletako Kiroledegian**, egingo da 2017ko maiatzaren 12an, 15:30ean lehen deia eta, kasua balitz, bigarrenetan, 16:00etan, egun eta toki berean, hurrengo eguneko gai zerrendaren arabera:

GAI ZERRENDA

1. Aktak onartzeari buruzko informea eta akordioa.
2. Memoria irakurtzea eta onartzea.
 - 2.1. 2016ko Gestioari buruzko akordioa.
 - 2.2. 2017ko Gestio Plana onartzea.
3. 2016ko Urteko Kontuen azterketa.
4. 2016ko Emaizten banaketa.
5. Erregimen ekonomikoari buruzko estatutu xedapenak.
6. Fagor S.Coop.eko Estatutu Sozialen 35 art. aldatzea.
7. Kooperatiba bazkideen Estatutu Sozialen 4.2. art. aldatzea.
8. Mondragon Componentes eta Fagor Taldeari buruzko txostenak.
9. Kontseilu Errektorearen jakinarazpenak.
10. Kanpoko Auditoreak izendatzea.
11. Kontseilu Errektorea berritzea
12. Kontseilu Soziala berritzea
13. Galderak eta eskaerak

Kontseilu Errektoreko Lehendakaria
Aretxabaleta, 2017ko apirilaren 27an

*Espresuki jakinarazten da bazkide guztiek dutela Estatutu Sozialari buruz proposatutako aldaketan testu osoa eta berorren justifikazio txostena egoitza sozialean aztertzeko eskubidea, eta dokumentu horiek dohainik eskuratu edo bidaltzeko.

Bailarako beste esperientziak

Bergarako Idazlaguna ekimena aitzindaria eta berritzailea bada ere, bailaran izan dira ostalaritza mundua euskalduntzen saiatzeko ekimenak. 2016ko azaroan Baietz 1.000 kanpaina abiatu zuen Arrasateko euskalgintzak, bertako komertzioetan euskaraz aritzea helburu. Kanpaina horren barruan, besteak beste, 1.000 herritarren argazkiekin osatutako mosaiko erraldoia osatzeko erronka lortu zuten. Duela lau urte, bestalde, Oñatiko Udala Euskaltegiak oinarritzko euskara ikastaroak antolatu zituen ostalariei begira. Taberna eta jatetxeen egunerokotasunean erabilgarriak izan zitezkeen berba eta esamoldeak ikasi zituzten orduan.


Nola bizi izan duzu ekimena?



SEBASTIAN IMAZ
HARAKINA

"Oso interesgarria da, baina oraindik badago zer egin"

"Olatzagutian [Nafarroa] jaio arren, 8 urte ditudanetik Bergaran bizi naiz. Bolu kaleko harategian 31 urte daramatzat lanean. Idazlaguna ekimenari dagokionez, ideia oso interesgarria iruditzen zait, baina oraindik badago zer egin. Nire kasuan, egia esan behar badut, ez dut askorik erabili berbitzua; izan ere, nire emaztea bergararra eta euskalduna da, eta, alde horretatik, ez dut arazorik izan harategiko kartelak eta bestelakoak bi hizkuntzatan erakusteko".



AINARA ZUBIA
IDAZLAGUNA

"Urtebete pasatuko zen ez didala laguntzarik eskatu"

"Nirekin aritu den dendariak sekulako esfortzua egin du euskaraz mintzatzeko eta kartelak euskaraz izateko. Asko ikasi du eta geroago eta laguntza gutxiago eskatzen dit. Hori da Idazlaguna-ren helburua, dendariak bere kabuz euskaraz iragartzera animatzea. Eta, nire kasuan, urtebete pasatuko zen laguntza eskatu ez didala; pozgarria da. Oro har, uste dut proiektuan parte hartzen duen dendariak zein idazlagunak prestutasun handia dutela. Hala ere, badago oraindik zer egin".

Erakutsi erraustegiaren kontratua

IGOR TOME

DEBAGOIENA ZUTIK-EN IZENEAN
DEBAGOIENA

Joan den astean, jarraian datorren idatzia aurkeztu genuen Debagoieneko Mankomunitatean. Herritar talde bat antzerako testuak sartzen aritu gara Gipuzkoako udal desberdinetan, eta erraustegiaren bultzatzaileek gobernaturiko oso udal gutxi erantzun dute –eta erantzun gehienak benetan lotsagarriak izan dira–. Debagoiengan ere antzera gertatu da.

Mankomunitatearen partetik antzerako zerbait espero dugunez, berau publiko egitea eta gai honetan instituzio batzuek darabilten ezkutukeria publikoki salatzea erabaki dugu. Hona hemen testua:

Orain gutxi jakin dugu gipuzkoar guztion diru publikotik 60 milioi euro ordaintzen ari garela bankari, EAJk ezkutuan sinatu, angulekin ospatu eta orain aste batzuk epaitegiaren defendatu duen tratu horrengatik.

Informazio zehatzen faltan, kalkulatu da 1.500 milioi euroko zor ilegitiua eragingo digula erraustegiak, herriei zor izugarriak eraginez.

Gainera, diru horretatik ehunka milioi euro zuzeneko irabaziak izango dira enpresentzat. Jakin dugu

erraustegiaren proiektua sinatuz gero, ondoren albo batera uzten bada 600 milioi euro oparitu beharko dizkiegula enpresei, *kalte-ordain bezala*. Herritarren dirua, zuzenean %1aren poltsikora kontratu eta kalte-ordain kontzeptuetan.

Garai latzak bizi ditugu. Gizarteko sektore handi bat kolpaturik dago ekonomikoki, eta aberatsen eta gainontzeko guztion arteko tartea izugarri hazten ari da. Bitartean, Gipuzkoako Aldundiak behar ez dugun erraustegi bat eraiki nahi du diru publikoarekin nola edo hala. Albiste solteak ateratzen diren arren, ez dugu 35 urtetarako zorpetuko gaituen kontratuari buruzko informaziorik.

Horrengatik, zera eskatzen dugu:

1- Gure izenean 2017ko apirilaren 3an sinatu den kontratua ikusi nahi dugu. Egia jakin nahi dugu.

2- Mankomunitateei eskatzen diegu herritarrek informa ditzatela. Erraustegira bideratu nahi dituzten eta denonak diren milioika eta milioika euro horiek nondik aterako dira? Zenbat ordaindu beharko dute udalek? Gipuzkoako Aldundiak jarriko al du dirurik?

3- Erraustegia eraikitzean, sustatuko al duzue birziklapena zuen parte diren udaletan?

4- Alternatibarik bilatu al da?

5- Planteatu al duzue sinatu berri den kontratu hau baino merkeagoa dela mankomunitateek zaborren tratamendu eta bilketaren eskumena berreskuratzea?

Guztion artean lortuko dugu!

AITZOL AUZMENDI, BERONIKA GARAI, EDURNE IRAOLA, JUAN LUIS AREXOLALEIBA, IKER SANPEDRO, OIHAN ZUBIZARRETA, JOSE RAMON ARKAUZ, XABIER ZUBIZARRETA, AIZPEA OTXANDIANO, JULEN ARREGI, HAIZEA PAGOAGA, URKI LARREA, KEPA ALTUBE ETA MAITE URANGA

ARRASATEKO SARE

ARRASATE

Azken hilabete hauetan Oier Gomez preso politikoa etxeratzea aldarrikatzeko guztion artean egindako lanari esker, Oierrek zituen hiru euroaginduen etenduraren berria jaso eta gero oso positiboki baloratzen dugu kondena etendura ahalbideratu duen garaipen kolektiboa.

Hiru euroaginduak bertan behera gelditzeak Oier laster Euskal Herrira gerturatzea dakar. Zuen guztion babesik gabe, hau ezinezkoa izango zen.

Gogora dezagun Oier urtarrilaren 10ean eraman zutela ospitalera eta oraindik ere Parisko ospitale batean jarraitzen duela. Oier oso gaixorik dago eta behar duen tratamendua etxetik hurbil dagoen ospitale batean jaso behar du.

Oierrekin batera, gogora ekarri nahi ditugu larri gaixo

diren beste hamarnaka preso politikoa, eta hauek ere lehenbailehen kaleratuak izan daitezela exijitzen dugu.

Apirilaren 8an, ETAK gizartearen esku utzi zituen arma guztiak erakundearen armagabetzea burutzeko. Batzuek pausoak eman bai, baina besteak orain arteko espetze politika hiltzailearekin jarraitzeko asmoa dutela adierazten ari dira behin eta berriro komunikabideetan. Bada ere formula xebreak proposatzen dizkionak Madrili: euskal preso politikoa gehienez ere etxetik 250 kilometrora egon daitezela. Baina zer da hori? Guztiak Zaballara ekartzea exijitzen dugu. Euskal preso politikoen %80 etxetik 400 kilometro baino gehiagora dago.

Salatzen jarraituko dugu larriki gaixo dauden preso politikoa heriotzara kondenatu nahi dituztela. Preso gaixoak alarma gorrian daude.

Gaur, ostirala, arrasatear guztioi deia luzatu nahi dizuegu herriko plazara etor zaitezten. Oraingo honetan, hainbat herritarrek patata-tortillak, solomoa eta txorizoa prestatuko dituzte bertan dastatzeko. Era berean, datorren maiatzaren 6an Gasteizerako deialdia luzatzen dizuegu, SAREk deitutako manifestazioan parte hartzea, bertan eskatuko baitugu larri gaixo dauden preso politikoa guztiak etxeratzea.

Egoera honek behin betiko amaitu behar du. Gaixo larriek eta kondena beteta duten presoek kalean behar luketela aldarrikatzen dugu. Salbuespen legedia amaitu eta legea bete dadila eskatzen dugu.

Mendekuan eta giza eskubideen urraketa oinarritutako espetze politika behin betiko amaitu behar dugu.

Ez izan zalantzarik:

Guztion artean lortuko dugu!

Erresonantzia

TXERRA RODRIGUEZ

HTTPS://LABUR.EUS/OWAUK

Xabier Erizek *Bat 99* aldizkarian jarriren inguruko ikerketak errepasatzen ditu. Errepaso hori egiteko, hainbat kontzepturi heltzen dio: hau linguistikoa, motibo subjektiboak, hiztunen agentzia, ekintza soziala. Eta, zelan ez, erresonantzia. Honela dakar berak kontzeptu hau:

"Erresonantzia: Kausa edo mugimendu sozial batek arrakasta lortzen du mugimenduak igortzen duen diskurtso edo markoa (balioak, ideiak, sinesmenak, ekintzak) herritarren motibo subjektiboekin (interesak, balioak, sinesmenak) lerrotzeko denean, biak norabide berean doazenean, eta bien artean erresonantzia berri bat sortzen denean, halako sintonia bat sortzen denean".

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez 2.000 (hutsuneke barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otolara Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA





ZABALIK

IÑIGO IÑURRATEGI

UDAK euskaraz irabazi

Orain aste batzuk Bergarako Ipintza futbol zelaian. Jubenilen arteko partidua eguraldi ederrarekin.

Eguzkiaren gozoa, baina, ederki mikaztu zidan Bergarako taldearen entrenatzaile gazteak. 90 minutu oso-osorik erdara batean, euskaraz jakin badakien arren. Ezta "aupa mutilak" soil bat ere.

Burgosko partidu bat ikusten ari nintzela esanez gero eta entzuten ari nintzenaren arabera erantzun beharko banu, sinistu.

Baina ez, Bergaran, euskaraz ederki ulertzen duten 16-17 urteko mutil talde baten entrenatzailea zen.

Bestaldean UDAko entrenatzailea guztiz alderantziz. Dena euskaraz. Eta baita arbitro gaztea ere, txukun. Eta nire artean pentsatzen nuen: "Kanpofubolian danek euskeraz jakixek eta a ze aldia entrenatzaile bati edo bestiari entzun. Zeinek esan

bihar jotsak zeozer mutil honi?".

Dena esan behar bada, erdara batean baina partidua irabazita pozik joan zen entrenatzaile hori.

Harrezkero, gertakariari buruz berba egin eta enteratu naiz UDAk euskararen

ERDARA BATEAN BAINA PARTIDUA IRABAZITA POZIK JOAN ZEN ENTRENATZAILE HORI

erabilera eta tratamenduari dagokionez egiten duen lanaz. Hezitzaile eta entrenatzaileek euskaraz aritzeko betebeharra, barne komunikazio guztia euskara hutsean, sare sozialetako komunikazioa euskara hutsean, gurasoekin komunikazioa euskaraz edo ele bitan egitea...

Hainbeste jende mugitzen duen erakunde batean guztia lotuta izatea ez da beti posible izango, baina azpimarratzekoa da ahalegina.


Beste kontu bat da gazteek zein hizkuntza erabiltzen duten kirola egiten ari direnean –eta hortik kanpo–.

Baina, hasteko, beraientzako erreferentzia diren hezitzaile, entrenatzaile eta klubeko arduradunek euskaraz jardutea ezinbestekoa da.

Horregatik aprobeztatu nahiko nuke tarte hau UDAko zuzendaritza eta hezitzaile zein entrenatzaileak zorientzeko, zuen ekarpena euskararen erabileraren partidua irabazteko funtsezkoa delako.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Zentzumen ezezagunak

GOIZALDE LANDABASO

[HTTPS://LABUR.EUS/MMWGJ](https://labur.eus/mmwgj)

Errealitatea etengabe aldatzen ari da. Eskolan ikasi genituenak ez dira orain ikasten dituztenak. Orduko egiak ez direlako oraingo errealitateak. Gauzak zeharo aldatzen dira. Gure ezagutza handiagoa da orain, nonbait. Inteligentzia, adibidez, ez da bat eta bakarra, askotarikoa izan baitaiteke. Horregatik lehengoan zentzumenak sei baino gehiago direla irakurri nuenean ez nintzen hainbeste harritu. "Usaimena, dastamena, ukimena, ikusmena, entzumenena eta oso argi ez dudana seigarren

zentzumenaz gain, zer beste?", pentsatu nuen. Ikerketa neurologikoen arabera, 21 dira gizakiak izan litzakeen zentzumenak. [...] Guztietan azaltzen da oreka, eta badirudi oreka badela beste zentzumen bat. Norberezeptuari esker, badakigu gure gorputzaren atal guztiak non dauden; esaterako, zentzumen horri esker ikusi ez arren jantz gaitezke. Bada gizaki batzuek duten zentzumen berezi bat: sinestesia. Musika ikus dezakete; alegia, bi zentzumenen arteko uztarketa bat da. Ekolokalazioa ere bada gizaki batzuek dutena. Izurdeek dutenaren antzekoa baina, antza, ez hain garatua.

[...] Nozizepzioa ere zentzumen berrien zerrenda guztietan azaltzen da. Mina sentitzeko gaitasuna da. Badirudi zentzumenetako askok besteekin harremana dutela; esaterako, kasu honetan ukimenarekin. Grabitazio pertzepzioa, elektrozepzioa, klariaudientzia, energia-ikusmena, telepatia, emozio-pertzepzioa, dimentsio-pertzepzioa, sentsibilitate izpirituala, intuizioa, magnetozeptzioa, sen ona, kimiozeptzioa, sexualzeptzioa... hamaika eta gehiago, esan bezala. Honen gainean irakurri ostean hasi naiz zerrenda ikasten, eta bide batez, euretako zenbat ditudan zenbatzen.

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Amaia Mundiñano, Zierza Martin, Imanol Elortza, Jokin Uribeetxeberria.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.
Erredaktore burua
Ubane Madera.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Ubane Madera,
Monika Belastegi, Mirari Altube.
Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Marta Leturia.

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA



Bi lagun komertzio bateko produktuak elkarrekin ikusten. XABI GOROSTIDI

Arrasateko merkataritza hauspotzeko lan ildoa

Ikertalde enpresak egin du hiri-ekonomia indartzea helburu duen plana. Sare sozialak eta turismoa baliatzea dira bertan jasotzen diren zortzi neurrietako bi, eta, merkatariek positibotzat jo zituzten arren, Hirigintza Saitetik jasotzen dituen trabak salatu zituzten

Xabi Gorostidi ARRASATE

Azken hamarkadako krisi ekonomikoaren eraginez, Arrasateko merkataritzak momentu larriak pasa ditu, eta asko izan dira egoera horren aurrean atek itxi behar izan dituztenak.

Baina, krisiaz aparte, badaude sektorea kaltetu duten beste faktore garrantzitsu batzuk ere: kontsumo ohituren aldaketa, hiriguneekin loturak hobetzea eta *on line* erosketen gorakada, besteak beste. Horri guztiorri, sektoreko langileen batez besteko adina oso altua dela gehitu behar zaio, gazteen kualifikazio maila gero eta altuagoa delako eta beste sektore batzuek erakartzen dituztelako.

Egoera horren aurrean, Ibai Artek eta Arrasateko Udalak herriko merkataritza suspertzeko plan bat egitea adostu zuten iaz, eta asteazken goizean eman zuten horren berri.

Garapen Ekonomiko, Teknologia Berri, Komertzio eta Turismo zinegotzi Victor Fuentesen ustez, ekonomia motelki hobetzen ari denez, momentu "aproposa" da era horretako plan "garrantzitsu" bat martxan jartzeko.

Ikertalde enpresa izan da txostena idazteko aukeratutako enpresa. Hain zuzen ere, Arrasateren egoera aztertu dute, eta zortzi neurriko lan ildo zehaztu. Txostena ikusgai dago udal webgunean.

Zortzi neurri

Ikertalde enpresako Iñigo Artetxeren ustez, apustuak egitea beharrezkoa da Arrasatek Debagoieneko erdigune komertzial izaten jarrai dezan.

Proposatutako lehen lan ildoan, bertako erosleak erakartzea jartzen du helburu, eta, horretarako, sare sozialen bidez bezero komunitateak sortzea eta haiekin hartu-emana handitzea proposatzen du. "Teknologia berriak *on line* erosketekin lotzeko joera dago merkatarien artean. Hala ikusita, etsai bat izan daiteke, baina Whatsapp bezalako aplikazioak oso lagungarriak izan daitezke bezeroekin kontaktuan egoteko, eskaintzak bidaltzeko

Erdialdean 75 lokal hutsik

Ikertalde egindako txostenean, Arrasate erdialdean 75 lokal huts daudela jasotzen da, erdia baino gehiago alde zaharrean.

Horien jabeak aurkezpen ekitaldira gerturatu ziren, eta lokalak zabaltzeko Hirigintza Saitetik jartzen zaizkien oztopoak salatu zituzten. Erretiratuentzako turismoan aditua den enpresaburu kataluniar bati herriko bi lokal gustatu zitzaizkiola adierazi zuen batek, baina inbertsioak egin beharagatik Eibarren zabaltzea erabaki zuela.

eta bezero leialak lortzeko". Horrekin lotuta, Arrasatek Donostian, Bilbon edo Gasteizen dagoen turismo handia erakartzeko gaitasunean ere jartzen du fokua. Horretarako, hutsik dauden lokalak batzuk ostatu funtziora bideratzea eta bisitariei aparkatzeko erraztasunak ematea lagungarri jotzen ditu planak.

Herriko merkatariek begi onez ikusi zuten neurrietako bat lokal hutsak zabaltzen laguntzeko lehen hiruzpalau urteetan konponketa lanik ez egiteko proposatzen dena da. "Negozioa bidegarria izaten hasten den arte lokalek hirigintza araudia betetzeko egin beharreko lanak lehen urte horietan ez egitea adostu dugu", esan zuen Iñigo Artetxek. Merkatarien ustez, horrek ez du arazoa konpontzen, baina lagungarritzat jo zuten.

Eguzkilaruk haurren ideiak jasoko ditu aurten ere

Ekainaren 25ean, haren eguna ospatzeko, herriko haurren ekarpenak jasoko dituzte Txatxilipurdikoek

X.G. ARRASATE

San Juan jaien hirugarren egunean Eguzkilaru Eguna ospatuko dute Arrasateko haurrek, eta, iaz bezala, egun berezi horretarako proposamenak helarazteko aukera izango dute.

Iaz 100 haur inguruk eman zituzten ideiak, eta, egunaren arrakasta ikusirik, Txatxilipurdiko kideek ideiak batzeko parte hartze saioak prestatu dituzte. "Haurren Eguna izanik, Eguzkilaru Eguna berauen parte hartzeaz diseinatzea da gure ideia nagusia".

Ideiak emateko modu ugari

Maiatzaren 2an egingo dute lehen parte hartze saioa, Arimazubin, 3an San Antolinen eta 4an Herriko Plazan, denak 18:00etan.

Hala ere, bertara joan ezin direnentzat postontziak jarriko dituzte herriko leku ezberdinetan. Maiatzaren 2an Arimazubin, Itxaropena plazan eta Kurtzetxiki plazan; 3an, Munarren, ahateen parke ondoko ziburuetan eta San Antolinen; 4an, Seber Altuben, Zaldibarren eta Herriko Plazan; eta 5ean, berriz, Euskal Herria plazako, Txatxiko eta Aprendizzen eraikinaren alboko jolasparkeetan egongo dira kutzak.

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Edurne Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta eta logopeda
Itziar Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta
Saioa Belategi - Psikologoa, Heziketa Bereziko masterra
Kontxi Lazkano - Pedagogoa
Ion Astigarraga - Psikologoa

Diagnostikoa - Orientazioa

Laguntza eskolarrak

Psikoterapia: umeak, gazteak eta helduak

Estimulazio goiztiarra

Arreta psikologikoa genero indarkerian

Logopedia

Ikasketa teknika eta ohiturak

Ignazio Zuloaga 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE
psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net RPS 295/13

Lore

LURRINDEGIA

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

EH Bildu, ikusgarritasun lesbikoaren alde

Apirilaren 26a Ikusgarritasun Lesbikoaren Eguna izan zen, eta Arrasateko EH Bilduk prentsa oharra plazaratu zuen horren harira.

"Lesbiana askok bizi duten errealitatea zaila da mundu mailan. Matxismoak emakume bat emakume izateagatik ez ezik sexu orientazio ez heterosexuala izateagatik ere zapaltzen du.

Eta diskriminazio egoeran bizitzera behartzen ere bai".

Euskal Herriko lesbianen egoera zaila dela adierazi zuten, eta, testu amaieran, horri buelta emateko konpromisoa hartu zuten. "Denon esku dago Arrasaten eta eskualdean sexualitatea libreki bizi eta errespetatua izan dadila, denok baitugu giltza elkarbizitzarako. Arrasateko EH Bildutik gure esku dagoen gutia egingo dugu herri aske batean bizi ahal izateko, baldintza eta aukera berdintasunean".



BNI sareko Jose Antonio Cano, asteazkeneko prentsaurrekoan proiektua azaltzen. ANE VITORIA

Kontaktuak elkarbanatu aurrerapausoak egiteko

Hori da Ameriketako Estatu Batuetan jatorria duen BNI proiektuaren xede nagusia. Ildo ezberdinetako enpresa txiki zein ertainen sare bezala funtzionatzen du, eta, herrian bat hedatze aldera, Udalak Garaia Gunea erabiltzeko aukera emango du

Xabi Gorostidi ARRASATE

BNI sare bat martxan jarri nahi dute Arrasaten. Ahoz ahoko marketinaren bitartez funtzionatzen du proiektuak. Horren funtsa enpresa txiki eta ertainen kideak biltzea da, horietako bakoitzak enpresa munduan erabiltzen dituen kontaktu ezberdinak elkarbanatzeko, eta guztien artean negozio aukerak handitzeko. 25 kideko sarea izaten da kopuru gomendagarriena, eta ildo ezberdinetako enpresak izan behar dira. Antzerako negozioak dituzten bi enpresa ezin dira talde berean egon. Hala, espezialitate edo negozio mota ezberdinetako kontaktuak baliatuz, nork bere aktibitateari bultzada ematea da lortu nahi den onura.

Maiatzaren 5ean jarriko da martxan Arrasateko BNI sarea, Garaia Gunean. Dinamika, beste BNI sareetan bezala, 06:45ean elkartzea izango da. Bertan, enpresa ezberdinetako kideak batuko dira eta bilera goizeko zazpietan hasiko da. Hain zuzen, ordu eta erdi iraungo dute batzarrek, eta, horietan, 20 puntu nagusiri buruz mintzatuko dira.

Ostiraletan egingo dira, eta enpresetako kideek bilera guztietara joateko konpromisoa hartu beharko dute.

Esperientzia honetan parte hartu nahi dutenek 943905461 deituz edo info@akorde.net helbidera idatziz egin dezakete.

Konpromisoa eta konfiantza

Bi balio horiek funtsezkoak dira BNI sarean. Parte hartu nahi duten enpresak bileretara gerturatu daitezke informazio bila, eta, interesatuta egonez gero, eskaera orria bete eta elkarriketa bat pasa beharko dute. Arrasateko Udalak ekimen horren alde egin nahi du: "Babesa eman nahi diogu, interesgarria delako enpleguarekin eta ekonomiarekin zerikusia duelako. Udaletik eskainitako babesa inplizitua izango litzateke, eta bilerak egiteko behar diren gela edota Kulturate bezalako tokiak eskainiz", adierazi du Maria Ubarretxena alkateak.

Asko dira Euskal Herri mailan sortu diren sareak. Gipuzkoan, Beasainen, Eibarren eta Donostian, eta, orain, Debagoienaren eta Arrasateren txanda da.

Matrikulazio epea zabalik!

Debagoieneko

Haurreskolak

Zure lasaitasuna gure helburua



0-2
URTE

Maiatzaren 2tik 12ra | 2016-2017an jaiotakoentzat.

ESKORIATZAKO Haurreskola - KULUNKA
Gaztañadui 25
Tel.: 943 71 57 70

ELGETAKO Haurreskola
Torrealdea 3
Tel.: 943 78 82 36

OÑATIKO Haurreskola - TXIKI TXOKO
Olakua auzoa 19
Tel.: 943 71 64 05

ANTZUOLAKO Haurreskola
Bustinzuri, 4
Tel.: 943 78 60 15

ARAMAIOKO Haurreskola
Nardeaga, 38
Tel.: 945 06 30 35

ARRASATEKO Haurreskola - MUSAKOLA
Elkano 8
Tel.: 943 79 13 03

ARRASATEKO Haurreskola - BEDOÑABE
Alfontso VIII 1
Tel.: 943 79 76 86

Arrasateko gaztetxea haurrentzat aisialdi-gune

Arrasateko gaztetxeko Guraso eta Haur Asanblada 25 familia inguruk osatzen dute. Herrian haurrentzat aukera gutxi zeudela ikusirik, gaztetxeko kideen babesna jaso zuten euren umeekin bertara joan, jolasak egin eta eraikinari probetxua ateratzeko

Xabi Gorostidi ARRASATE

Kalea eta jolasparkeak haurren denbora-pasarako lekuri kutunenak izan dira betidanik, baina neguan, batez ere, aukera gutxi izaten dituzte leku horiek erabiltzeko.

Horri konponbidea aurkitze aldera sortu zen Arrasateko gaztetxeko Guraso eta Haurren Asanblada ikasturte hasieran. "Guztiz modu naturalan sortu zen. Kurtso hasieran, eguraldi onarekin hainbat gurasok planteatu genuen ea zer egin genezakeen negua heltzerakoan, eta gaztetxea erabiltzeko ideia azaldu zen. Batzuek aterpe gisa ikusten zuten, beste batzuek aterpetik harago ekintzak antolatzen gune bezala, eta, pixkanaka, forma ematen hasi ginen" azaldu dute asanbladako kideek.

Gaztetxeko babes osoa

Gaztetxeko kideei proposamena helarazi bezain pronto, haiek baiezeko borobil batekin ireki zizkieten ateak. "Hasieratik ilusionatu ziren gaztetxea haurrei zabaltzeko asmoarekin, eta erraztasun ugari eman dizkigute. Erabiltzen hasi aurretik dena garbi eta txukun uzteko konpromisoa hartu zuten, euren musika kendu eta haurren musika jartzeko eskatzen ziguten, eta



Haurrak eta gurasoak gustura gaztetxean jolasak egiten. GURASO ETA HAUR ASANBLADA

uneoro egon dira guri laguntzeko prest. Zentzu horretan, esker oneko hitzak besterik ez dugu gaztetxeko kideentzat, primeran hartu gaituzte eta".

Hala, abendu aldean egin zuten lehen batzarra eta urtarrilean hasi ziren gaztetxea erabiltzen. "Batzuetan, alde aurretik moztarriak eramateko edo marrazkiak egiteko antolatu izan gara, baina, beste batzuetan, bertara joan eta jolastera mugatzen dira, haurrek ez baitute askoren beharrik ondo pasatzeko". Egun, 25 familia inguruk osatzen dute

taldea, eta haurrentzako gauzak antolatzen gogoia duen edonor izan daiteke bertako partaide.

Lehen ekintza sorta

Gaztetxeko kideek emandako babesna eskertzeko, herrira begira ekintzak antolatzea erabaki zuten. Asteazkenerako, haurren loari buruzko hitzaldia antolatu zuten, eta, biharko, Txiki Festa, haur guztiek ederto pasa dezaten. "Txiki Festa egiteko ere Txatxilikoekin laguntza izango dugu, eta hori ere eskertu nahiko gugu".



Aggressive Combat izango da San Andresen joko duen taldeetako bat. A. COMBAT

Herriko musika taldeak nagusi San Andresko jaien egitarauan

Arkada Social, Aggressive Combat, Crap, BAR eta Los WC taldeek joko dute aste bukaera honetan

X.G. ARRASATE

Apirila bukatzeaz dela, San Andresko jaiak ate joka hasten dira. Gaur 18:00etan jaurtiko dituzten etxafuegoen ezteandarekin hasiko dira jaiak, eta astelehene arratsaldera bitartean jai giroan murgilduko da San Andres auzoa.

Etxafuegoak jaurti eta gutxira, 18:30ean, buruhandiak auzoko gaztetxoak beldurtzen ahaleginduko dira, eta 19:00etan, jokoak, txokolate-jana eta bestelako ekintzak egingo dituzte San Andresko Gazte Txokoa.

Jaietako lehen eguna borobiltzeko, Javisound-ek dantzaldia eskainiko du, auzotarrei dantzarako gonbidapena eginda.

Bigantxak eta kontzertuak bihar

Etxafuegoen hotsekin hasiko dute eguna bihar, eta jarraian, 11:30ean puzgarriak egongo dira. 13:00etan poteo herrikoari ekin-

go diote Sakatu elektrotxararen laguntzarekin, eta, behin hori eginda, auzo bazkaria egingo dute 15:00etan. Opariren bat edo beste banatzeaz gain, auzotarren argazkia ere aterako dute bertan. 17:15ean bigantxak izango dira Hiruki plazan, eta gauean kontzertuen txanda izango da. 23:00etatik aurrera, Los WC, BAR, Crap eta Cruce De Caminos taldeak igoko dira Gudarienezko plazako oholta gainera.

Arkada Social eta Aggressive

Bi talde arrasatearrek kontzertua eskainiko dute domeka gauean, baina, aurretik, umeentzako *Patrulla canina* ikuskizuna izango da, 17:00etan.

Astelehenean, aldiz, 12:00etako mezaren ostean, helduentzako bazkaria egingo dute Etxaluzen. Bertan, opariak banatuko dituzte, eta 18:00etako etxafuegoekin agur esango diete jaiari.

Jose Aranzabal

Zure sukaldea...

4.780€-tik aurrera*

* Muntatzea eta BEZa prezioaren barruan

Etxetresna elektriko packa barne

Doctor Bañez kalea 2, Arrasate • Tel.: 943 79 18 92

DECORactiva ★
ZUK NAHI DUZUN SUKALDEA

DOAN
*Kontsulta itzazu opari sortak katalogoan!

Lau autoeskola ikertuta, prezioak adostearren

Aurre-ikerketak bat egin ostean, Arrasate, Leniz, Telleria eta Peñakoba autoeskolei zehapen-espeditentea ireki diete. Ikerketa Errenterian abiatu zen, partikular batek hango lau autoeskolak antzerako praktikak egiten zituztela salatu ostean

Xabi Gorostidi ARRASATE

Lehiaren Euskal Agintaritzak Gipuzkoako zortzi autoeskola ikertzen dihardu, ustez euren artean prezioak adostu dituztelakoan. Horietako lau Errenterian daude eta beste laurak, aldiz, Arrasaten; Leniz, Telleria, Peñakoba eta Arrasate autoeskolak, hain zuzen.

Partikular batek salaketa jarri zuen Errenterian enpresek prezioak adosten zituztelakoan, eta, horren ondoren, ofizioz hasi du Lehiaren Euskal Agintaritzak Arrasateko lau enpresen ikerketa prozesua. Enpresen arteko lehia ahalbidetzea helburu duen erakundeak aurre-ikerketak bat

egin du eta zantzu nahikoak ikusi ditu zortzi autoeskolak B gidabaimena lortzeko klaseen prezioak adostu izana ondorioztatzeko. Hala balitz, leiaren defentsarako 15/2007 legea urratzen ariko lirakeke, prezioak adostuaz lehiaren arauak hautsita.

Enpresek euren negozio-bolumenaren %1 eta %10 arteko isunak jaso ditzakete lege urraketa frogatzen baldin bada.

Lehiaren Euskal Agintaritzak abiatutako ikerketa guztietan bezala, gehienez 18 hilabeteko epearen barruan argitu beharko da ikerketa. Oraingoz, zehapen-espeditentea zabaldu diete aipatutako zortzi autoeskolei.

Enpresek espeditentea ikusteko aukera izango dute, eta ikerketak irauten duen artean alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Autoeskolen iritzia

Leniz Autoeskolako Jokin Iturrriotzek esan duenez: "Beste edozein negoziotan bezala, ingurukoaren prezioak kontuan hartzen dituzu zureak ezartzeko. Berdina gertatzen da tabernetan, harategietan edo arrandegietan, eta ez da ezer gertatzen. Guztiz normala den zerbait da. Kasu honetan, gure sektorea soilik ikertzen ari dira, eta hori ez zaigu bidezkoa iruditzen".

Mila esker guztioi 250 kilotik gora batzen laguntzeagatik

Goiena komunitatea
Red Dragons / ARRASATE

Pasa den zapatuak utzitako ajearen ondoren, esker oneko hitzak bakarrik ditugu festa hura posible egin zenuten guztientzat; laguntzaileentzat eta janaria ekarri zenutenentzat. Lehen aldia zen guretzat, eta, akatsak egin genituen arren, azkenean, 250 kilotik gora batu genituen.

ARRASATE IRRATIA

Musika eta kirola

Asteartean hasiko dira asteke emisioak, eta, besteak beste, Josu Larreategi saskibaloi prestatzailea eta Zea Maysko Aiora abeslaria igoko dira autobusera.

Zozketak

Maiatzaren 6an Arrasate Musikalek eta Goikobaluk egingo duten saiorako eta Zea Mays taldearen zuzenkorako sarrerak zozketatuko ditugu.

Umeen danborradan aritzeko izen ematea martitzenetik aurrera

Maiatzaren 2tik aurrera eman ahal izango da izena aurtengo umeen danborradan parte hartzeko.

Hori egin nahi dutenek Nafarroa etorbideko SUDCen egotzara joan beharko dute 16:30ak eta 18:00ak bitartean. SUDCek ohartarazi duenez, pertsona bakoitzak, asko jota, hiru haur apuntatu ahal izango ditu.

Seme-alaben heziketa afektibo sexuala lantzeko saioak

Udal Sexologia Zerbitzuko Montse Velasco pedagogo eta sexologia hezitzaileak gidatuta, seme-alaben heziketa sexuala ondo egiteko lau saio antolatu ditu Arrasateko Udalak, maiatzaren 15etik 18ra.

Izen emateak udal webgunean edo 943 25 20 07 telefonoan egin daitezke, betiere, maiatzaren 5a baino lehen.



Bidebarri

LANERATZE ENPRESA

20 urte uending zerbitzua eskaintzen






“Eskaintza bereziak bidezko merkataritzako kafe eta txokolatean enpresa txiki eta ertainentzat”

www.bidebarri.org

 Eskatu aurrekontua inolako konpromisorik gabe:
Tel. 943 716 479 • Mug. 617 677 913 • bidebarri@terra.com



Kevin Barranca, ligako partidu baten, kontrarioak gainditu guran. GOIENA

Igoera fasea Arrasaten jokatzeari dago jokoan

Mondratek ligako azken partidua jokatu du gaur (21:15, Zaldibian); Arrasatekoak dagoeneko igoera faserako sailkatuta daude, baina lehenengo bi postuetan sailkatzea dago jokoan, horrek igoera faseko lehen partidua etxean jokatzeari baliatuko lukeelako

Xabier Urzelai ARRASATE

Ligan ia urte osoan agintzen joan eta gero, azken bi hilabeteotan beherakada izan du Mondratek. Baina lehenagotik batuta zituen puntu mordoxkari esker igoera faserako sailkatzea lortu dute dagoeneko –bigarren daude–, eta beherakada horren zergatiak ere zuzendu dituzte datozen partiduetara begira: "Taldea oso gogotsu dago. Gainera, Ibai Hernandezek min hartuta jarraitzen badu ere, garrantzitsuak diren bi jokalarirekuperatu ditugu, Joseba Palacios eta Xabi Gorroñogoitia. Partiduren baten Kevin ere min hartuta egon da, eta hutsune horiek betetzeko kadete mailako Julen Estrella eta Jon

"IKUSTEKO DAGO TELLATUBERRI ZE INTENTSITATERE KANTXARATUKO DEN GAUR"

Mancebo igo behar izan ditugu goiko taldera. Arazo horiek konpondu ditugu, eta, bide batez, eskerrak eman gura dizkiet jokalariei gazte horiei, euren erronka handia izan delako goiko taldera igotzea, eta euren ekarpena handia izan delako", adierazi du taldeko entrenatzaile Josu Uribarrenek.

Hori horrela, Mondrateko ia jokalariek guztiak izango dituzte eskura Uribarrenek gaur: "Ikusteko dago Tellatuberi ze intentsitatekin kantxaritzen den, eurek ez dute eta ezer jokoan. Baina seguru norbaitek afari bat eskaini diela guri irabaztearren [Barre]".

Igoera fasea Arrasaten

Lehenengo bi postuetan sailkatzen badira, igoera faseko lehenengo kanporaketa Musakolan jokatu luke Mondratek: "Horregatik da garrantzitsua gaurko partidua, igoera fasea bi asteburutan jokatu dugu, eta lehenengo etxean izatea oso garrantzitsua da".

Kadeteak ere igoera fasean

Mondrateko lehenengo taldea ez da lanak txukun egiten dabilen bakarrik, kadeteak ere igoera fasean lehiatuko dira eta: "Oraingo asteburuan final-laurdenak ditugu. Ligan bi multzo izan ditugu, eta beste multzoko bigarrenaren kontra jokatu dugu", dio taldeko entrenatzaile Kevin Barrancak. "Oso denboraldi ona egin dute gazteek, kadete mailako lehenengo urtekoak direlako denak, eta nagusiagoen kontra jokatu dutelako".

"Non jokatzeari komeni zaigun hausnartu behar dugu udan"

MUrti partidu bakarra geratzen zaio liga amaitzeko; maila galtzeko arriskuan daude zuri-moreak

X.U ARRASATE

Joan den astean Grupo Santiago Automocion taldearen kontra galdu ostean, Josu Larreategik zintzo erantzun zuen Goienako kameraren aurrean: "Udan hausnartu beharra dugu, ikusi behar dugu, azken jardunaldian gertatzen dena gertatzen dela, datorren urtean ze kategoriatan egotea komeni zaigun. Izan ere, EBAn egin ditugun urteak ederak izan dira, baina azken urte hau oso gogorra izaten dabil,

batez ere, jokalarientzako. Izan ere, gogorra da aste barruan entrenatzera joatea, jakinda zaila izango dela asteburuko partidua irabaztea".

Zuzendaritza aldaketa

Ointxe! klubak oraingo zuzendaritza taldeari erreleboa emango liokeen hautagaitza aurkezteko epea zabaldu du, maiatzaren 15era arte. Prozesuaren gaineko informazio gehiago, ointxe@ointxe.eus-era idatzita.

Campusean gozaten

Pazko Astean, lau egunez, eta Mondrako lehen taldeetako sei begiraleren ardurapean, futbol campusa egin zuten Mojategiko instalazioetan. Bertan batu ziren 7 eta 12 urte bitarteko 60 neska-mutiko baino gehiago, eta arrasatearrek batera inguruko herrietako neska-mutikoak ere izan ziren. Helburua garbia: formazioa balio positiboekin egitea.



MONDRA



DORLETAKO AMA

Estatuko selekzioekin lehiatzen

Joan den domekan jokatu zuten Gipuzkoako gazte mailako 23. Klasikoa Zegaman, eta estatu osoko selekzioekin batera lehiatu ziren Dorletako Amako Portabicis.com taldeko ordezkariak. Erretratuko seikoteak lan txukuna egin zuen, eta ikasgai ederra izan zen, zalantza barik. Bihar, Euskal Herria Trofeo barruan Amurrioko II. sari nagusian izango dira.

Zea Mays azken Kooltur Ostegunetako kontzertuan

Zea Mays taldeak emango die amaiera Arrasateko gaztetxean egiten diren Kooltur Ostegunei. Bilbotar talde hori ikasturteko azken kontzertuan izango da, maiatzaren 4an, hain zuzen, eta jende ugari gerturatuko dela aurreikusten da

Ane Vitoria ARRASATE

Maiatzean amaituko da Arrasateko gaztetxean antolatzen den Kooltur Ostegunen azken edizioa. Izan ere, azken kontzertua Zea Mays taldeak eskainiko du hilaren 7an. Laukotearen azken diskoa, *Harro* izenekoa, 2016ko azaroan plazaratu zuten eta bertako katek protagonismoa izango dute Kooltur Ostegunetako azken kontzertuan. Hala ere, hogeituroko ibilbideko kantu esanguratsuenak ere joko dituzte. Jada birritan izan da taldea Arrasateko gaztetxean antolatzen den egitasmo horretan, eta, errepikatu nahian, laster gerturatuko dira Arrasatera: "Duela 2 edo 3 urte izan ziren Zea Mayskoak, eta, asko gustatzen zaien egitasmoa denez, gogotsu bueltatuko dira. Oso polita izango da haiekin aurtengo edizioa amaitzea", aitortu du Kooltur Ostegunen antolatzaile Iker Barandiaranek.

Balorazio oso positiboa

Jada zazpi urte pasa dira Kooltur Ostegunak antolatzen hasi zirenetik eta urte hauetako balorazio oso positiboa dela adierazi du Barandiaranek: "Lehenengo bi urteak oso arrakastatsuak izan ziren; agian, nobedadea zelako. Egia da hirugarren



Zea Mays taldeko Aiora Renteria kontzertu baten. IMANOL SORIANO

eta laugarren urteak nahiko ahulak izan zirela. Baina ez soilik Kooltur Ostegunetan, Arrasateko musika inguruan biltzen ziren egitasmo gehienetan beherakada izan zela uste dut". Hala ere, laugarren urtetik hona, Arrasateko ostegun kulturek geroz eta indar handiagoa hartu dute; izan ere, egitasmo horren helburua jende ugari eta gustu ezberdinak dituzten pertsonak biltzea da. Hau da, musika estilo ezberdinak eskaintzen dituzten taldeak gerturatzea. Modu horretan, espazio

zio bakar batean, aukera ezberdinak eskainita. Aurtengo edizioa ere oso ondo joan dela dio Barandiaranek: "Jende ugari gerturatu da gaztetxera ostegunero kontzertuez disfrutatuguran". Bitxikeria bezala, aurtent ez da atzeritar talderik izan. Beste urte batzuetan ez bezala, aurtent, batik bat, Euskal Herriko taldeak izan dira. Baita Madril eta Andaluziako musika taldeak ere. "Ez da arrazoi zehatzik izan horretarako, agenda kontua baizik", aitortu du Iker Barandiaranek.

Musikaldia Jaialdiaren baitan bi ikuskizun asteburu honetan

Anido eta Alos Quartet taldeak ikusteko aukera izango da asteburu honetan, egubakoitzean eta domekan

A.V. ARRASATE

Astebete iraungo du aurtengo Musikaldia Jaialdiaren XIII. edizioak. Gaur hasi eta maiatzaren 7an amaituko da; tartean, ekitaldi ezberdinak eskainiko dira. Egitasmo horrek talde ezberdinak biltzen ditu eta horietako bakoitzak bere estilo propioa azalaraziko du; tartean, orkestra, musika banda, gitara laukotea, eta abar izango dira. Egitarauaren asmoa ikus-entzule ezberdinak erakarriko dituen ikuskizunak eskaintzea da.

Lehenengo ekitaldia

Musikaldiaren lehenengo ekitaldia gaur arratsaldean izango da, 20:00etan, Arrasateko parrokiari; Anido gitara laukotea entzuteko aukera izango da. Gitarraren baliabide adierazkorrak garatu nahi ditu *Anido*-k; betiere, instrumen-

tuaren funtsezko ezaugarriak galdu gabe. Gitara talde hori musikagile ospetsuen lanen transkripzioez baliatzen da eta egungo euskal abestien moldaketak ere egiten ditu. Gainera, abesti berriagoak ere interpretatzen ditu laukoteak, askotariko musiken eraginak dituztenak: herri musika eta rock erritmoak, besteak beste.

Beste laukote bat domekan

Kulturateko areto nagusian izango da Alos Quartet laukotea domekan, arratsaldeko zortzietan. *Garden* hirugarren diskoa atera berri dute, eta musika iturri ezberdinetatik edaten duen estilo originala jorratu dute bertan. Gainera, hamahiru konposizioz osaturiko disko horrek artista ezberdinen kolaborazioak ere biltzen ditu.

Liburuaren Eguna ospatzeko, umeentzat ikuskizuna izango da

Joan den domekan, hilaren 23an, Liburuaren Eguna izan zen. Horren harira, eta kultura sustatzen duen egun berezi hori ospatu nahian, Arrasateko Udal Liburutegiak egitarau berezia aurkeztu zuen martxoan; Udal Liburutegiak martxotik maiatzera bitartean antolatu dituen hainbat ekintzen berri ematen da bertan, eta era askotako jar-

duerak daude: haurrentzako ikuskizunak, gazteentzako lehiaketa, idazleen presentzia eta liburuaren aurkezpena. Eta gaur arratsaldean umeen txanda da. Izan ere, hurrei bideratuta dagoen ekitaldia eskainiko dute Kulturaten. Hain zuzen, *Ina, nire ama afrikarra* ikuskizuna izango da. 7 urtetik aurrerako umeentzat zuzenduta dagoen ekitaldi horretara joan nahi duenak Kulturateko areto nagusira gerturatu beharko du arratsaldeko sei eta erdietan.

Kontxi Tamayo, doktorea. Dermatologoa

DERMATOLOGIA

- Aknea, psoriasis, akne arrosa, ...

KIRURGIA DERMATOLOGIKOA

- Lunarrak, kisteak, garatxoak, azaleko minbizia, ...

DERMATOLOGIA ESTETIKOA

- Zimurak, zuloak, zuzenketak azido hialuronikoarekin, peelingak

LASER

- Aurpegiko zaintxoak, gorritasunak, kouperosia, akne arrosa, eguzkiak eta adinak eragindako orbanak. Depilazioa.

Laser bidezko tratamenduak



BARIKULAK

AKNEA

LESIO BASKULARRAK

FOTOGAZTETZEA

ZUATZU KLINIKA Nafarroa etorbidea z/g, behea • ARRASATE • Tel.: 943 79 20 18 / 620 12 48 43

Partikularrak • Aseguruak: *Lagun Aro, Sanitas, Prevalia, Generali.*

Kiroldegia 07:00etan zabalduko dute maiatzetik

Martitzenaz geroztik eta uztaila bukatu artean ordubete goizago zabalduko dute Ibarra kiroldegia. Erabiltzaile goiztiarrendako, gainera, hainbat jarduera antolatu dituzte: hipopresiboak, igeriketa eta areto bizikleta, besteak beste

Mirari Altube ARETXABALETA

Maiatzaren 2an hasi eta uztaila bukatu artean, 07:00etan zabalduko dute Ibarra kiroldegia, orain baino ordubete goizago. Ordutegia luzatzeko egingo duten bigarren proposamena da; domeka arratsaldeetan zabaltzea izan zen lehenengoa eta ia bi hilabetez probatu dute, apirilaren 9a arte, hain zuzen ere.

Hainbat jarduera egiteko aukera ere eskainiko dute, gainera, martitzenetik aurrera, *Egun on jarduerak* izenarekin: martitzen eta eguenetan igerian hobetzeko elkartuko dira 07:15ak eta 08:00ak artean eta hipopresiboak landuko dituzte 08:15etik 09:00etara; eta astelehen eta eguaztenetan, areto bizikletan jardungo dute 07:15etik 08:00etara.

Konponketa lanak hastear

Kiroldegiaren fatxadaren konponketa lanak hiru bat aste barru hasiko dituzte. Jausitako kristalaren orde *sandwich* panelak



Ibarra kiroldegiko jardueretako bat. GOIENA

jarriko dituzte: "60 milimetroko panelak izango dira eta 23 zentimetroko tartearrekin marra bertikal bat izango dute, kristalaren zabalera berekoa. Zurixkak dira; hortaz, ez da aldaketa nabarmenik izango itxurarako", argitu du Unai Elkoro alkateak.

423.000 euroko kostua izango duten konponketa lanak soberakinarekin finantzatzea erabaki dute: "Horretarako, osoko bilkura egin beharra dago aurrekontuan txertatzeko; hurrengo asterako espero dugu tramiteak eginak izatea", dio Elkoro.

Maiatz erdialderako konponduta pilotalekuaren teilatua

Apirilaren 19an hasi zituzten Iturrigorri pilotalekuaren teilatua konpontzeko lanak. Plamar enpresak dihardu, eta Juan Sanchezek margotu egingo du, gero, estalkia eusten duen zertxa. Ondo bidean, maiatz erdialdea baino lehen bukatuta izango dituzte ia 60.000 euroko kostua duten lanak. Itoginak zituen pilotalekuak, eta kondentsazio arazo handia; haizeteak, gainera, zuloa egin zion. Orain, beste material bat jarriko dute sabaia babesteko: "Lehen zegoena baino txapa hobe jarriko da; hau da, isolatzaile hobearrekin. Izan ere, txapa sinpleak kondentsazio arazoak sortzen zituen. Ea beste 30 urte irauten duen!", jakinarazi du Unai Elkoro alkateak.



Iturrigorri pilotalekuaren teilatua konpontzen. IMANOL GALLEGU

Lanak pozik hartu dituzte UDAko pilotariak, herriko ia 30 bat gaztetxok, egoera oso eskasean entrenatu eta jokatu behar izan dutelako. Jon Etxeberria entrenatzaileak

aldagelak ere gurako lituzke, baina, Elkororen esanetan, inguruan dauden azpiegiturak aprobeztatu behar dira: "Kurtzebarri eskolako aldagelak bertan daude eta".



Jone Ojea omenaldian. MIRARI ALTUBE

Gernikako bonbardaketaren oroimen ekitaldia izan da

Gernikako bonbardaketa gogora ekarri eta memoriaren gaineko balantzea egin zuten eguazten arratsaldean

Mirari Altube ARETXABALETA

Gernikako bonbardaketaren 80. urtemugaz baliatuta, memoriaren gaineko balantzea egin zuen Sortuk eguazten arratsaldean. Hainbat aretxabaletar elkartu ziren Mitarte plazan antolatutako ekitaldian; omenduak askotarikoak izan ziren. Batetik, Gernikako bonbardaketa, gerra zibila eta diktadura garaia bizi izan zituzten euskaldun guztiak. "Sasoia da 80 urteko siltasuna eta inpunitatea behingoz azalera ekarri eta garaitzeko. Orain artean, hauxe da ezagutu duguna, siltasuna", azpimarratu zuen Jone Ojeak, Aretxabaleako Ernaiko kideak. "Doakie, xumea bada ere, bonbardaketa hartan eta ondorengo gerra eta diktadura sasoiaren bizia galdu zuten guztiak". Horrez gainera, euskal presoak eta iheslariak ere omendu zituzten eguazteneko ekitaldian. Baita egungo gatazken

ondorioz euren lurraldeetatik ihes egin behar duten errefuxiatuak ere. Ekitaldian, bonbardaketako soinuak eman ostean, txalapartariak izan ziren. Eta txistulariek aureskua eskaini zuten dantzariarekin batera. Arrosa sorta bat banatu zuten, aretxabaletarrek lore bana ikurriaren gainean jarri zezaten, errespetu seinale bezala. Amaieran, Kalera Kalera dinamikaren berri eman zuten eta nazio zein herri mailan egingo diren ekitaldi eta deialdietan parte hartzera gonbidatu zituzten aretxabaletarrak.

'Bakea eta Askatasuna Txokoa'

"Euskal Herriaren zein Aretxabalearen bake eta askatasunaren alde eginiko borroka askoren zentroa izan da plaza hau", zioen Ojeak, eta, hala, *Bakea eta Askatasuna Txokoa* leloa duen plaka ezarri zuten bertan.

Uribesalgoren gaineko liburuxka maiatzaren 4an

Isidoro Uribesalgo Guruzeta (Aretxabaleta, 1865-1915) eskultorearen biografia eta obrak jaso ditu Aitor Antxia Leturiak, Kepa anaiarekin eta Amaia Murgiondorekin batera, liburuxka batean -Udalaren laguntzarekin-, eta maiatzaren 4an, 19:00etan, aurkeztuko dute Arkupe kultur etxean. Herrian inork gutxik ezagutzen duen eskultorearen

gaineko argibideak emango dituzte ekitaldi horretan.

Errotabarri errotan jaioa, trebetasun handia zuen marrazkiak egiten eta buztina lantzen. Lehen ikasketak egin ostean, Erromara joan zen; hango eskultorekin maitemindu, eta han geratzea erabaki zuen, Arte eta Lanbideen Eskolan izena eman ostean. Gipuzkoako diputazioaren beka lortu zuen eta hiru urtean egon zen Italiako hiriburuan. Hark egindako obra asko daude bai Erroman, bai Gipuzkoan.



Osatu berri den Basotxoko zuzendaritza batzorde kideak presidentearen inguruan. MIRARI ALTUBE

Basotxoko zuzendaritza, lanerako gogotsu

Jose Rodriguezek hartu du presidente ardura eta hari lagun egingo diote Xabier Zaloña presidenteordeak, Tere Artano idazkariak, Ramiro Gomez diruzainak eta beste bost kidek. Dagoeneko hasi dira hurrengo ekintzak antolatzen

Mirari Altube ARETXABALETA

Martxoan egindako ohiko batzarraren ostean, osatuta dago Basotxo erretiratuen elkarteko zuzendaritza berria eta dagoeneko lanean hasi da. Presidente ardura Jose Rodriguezek hartu du eta presidenteordea Xabier Zaloña da; idazkari lanak Tere Artanok egingo ditu eta diruzaina Ramiro Gomez izango da. Beste bost kidek osatuko dute batzorde hori: Pedro Etxebarria, Kontxi Romano, Isabel Olivenza, Nieves Gonzalo eta Jose Gatok.

Eguaztenean Burgosera

Hilabetea irteera eginda hasiko dute; datorren eguaztenean, maiatzaren 3an, Burgos aldera joango dira. Orbaneja del Castillo herria ezagutuko dute goiz partean, eta Oñan bazkaldu gero. Bazkalostean, Monasterio de San Salvador bisitatzea joango dira, etxera itzuli aurretik.

Ekainaren 8an, ostera, Kantabriara joateko asmoa dute, Santillana del Mar herrira hain zuzen ere. Hitzaldiak ere izango dira datozen asteotan, baina oraindik guztiz zehaztu barik dituzte horiek.

Udaberri Jaian askotariko ekitaldiak izango dira

Arizmendi Ikastolako Udaberri Jaia maiatzaren 6an izango da. Aurten hamabigarren urtez ospatuko dute, eta, azken hilabeteetan buru-belarri lanean jardun ondoren, egitarau biribila antolatu dute. Basabeazpi aurrean hasiko da jaia, 10:30ean, eta 10:45ean, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako haurrentzat eta gurasoentzat jolasak eta ibilaldia izango dira. 12:00etan, kalejira egingo da Basabeazpi ikastolatik hasita. Horrez gainera, Herriko Plazan erraldoiak eta buruhandiak izango dira; baita talo tailerra ere (12:30). Horren ostean, bazkaria izango da, 14:00etan, eta 15:00etarako umeentzako tailerrak antolatu dituzte. Kantuan ibiltzeko euskal karaokea ere prestatu dute (15:30), eta, jaiari amaiera emateko, Argitxoren agurra izango da; txokolate beroa ere eskainiko dute Basabeazpin. Giro polit eta alaiaz disfrutatu nahi duten haurrek eta gurasoek hitzordua dute datorren zapatu goizean.



MIBA PAGALDAI ARETXABALETA

ERKOP

ORAIN EZ DUGU IXTEN

Astelehenetik barikura (08:30 - 19:00) | Zapatuetan (09:00-13:00)

Maiatzeko eskaintzak

UZTAILA ETA ABUZTUA

Astelehenetik barikura (08:30 - 15:00) | Zapatuetan (09:00-13:00)



Geranioak
1,80€ (bakoitza)



Bitxia txakolina
5,5€ (botila)

Berritasunak

- Zaldiendako pentsua (Power Horses Plus, 21,14€)
- Landako oiloendako pentsu berezia (19,60€)

Ordutegi berria maiatzean hasiko da martxan. Eskaintza baliagarriak maiatzean. Eskaintza ez metagarria.

10€-ko deskontua

100 eurotik gorako erosketetan

5€-ko deskontua

50 eurotik gorako erosketetan

Euro bateko deskontua

10 eurotik gorako erosketetan

MITARTE 7, behea ARETXABALETA • Tel.: 943 77 00 33 • aretxamiba@miba.coop



Iaz, Otala Zelaiko krosean bi emakume parte-hartzaile helmugara iristen. MIRARI ALTUBE

Urkulu urtegiari bira, Otala Zelaiko krosean

Joseba Larrinaga 'Mardo'-ren oroimenezko 39. Otala Zelaiko kros herrikoa maiatzaren 14an izango da domekan. Urtero moduan, Urkulu urtegiari bira eman beharko diete parte-hartzaileek 8.410 metroko bidea eginaz

Imanol Beloki ARETXABALETA

Otala Zelaiko krosa maiatzaren 14an izango da, eta urteroko formatu bera jarraituko du 39. edizio honek. Batetik, haurren lasterketak izango dira, 10:00etan hasita, benjaminen, alebinen eta infantilen mailetakoenak, eta, horiek amaitzean, 11:00etan lasterketa nagusia izango da.

Aurten, lehenengoz, UDA kirol elkarteak antolatuko du kros herrikoa Aretxabaletako Udalarekin batera eta dagoeneko izena emateko epea zabaldu dute: bost euroren truke aurrez erosten dutenentzat, eta egunean bertan 15 euro izango da. Hona bertan parte hartzeko bideak: Ibarra kiroldegia edo www.herrirokrosa.eus webgunea. Antolakuntza taldeko Agurtzane Elkorro UDAko presidentek adierazi du oso garrantzitsua dela izen-emateak kontuan izatea: "Inskripzio prezioari dagokionez, ezberdintasun handia dago aurrez edo egunean bertan egin. Izan ere, aurrez egitea bultzatu

nahi dugu. Hala, egunean bertan arazorik ez izateko. Beraz, krosean izena eman nahi dutenei izena aurrez emateko eskatu nahi diegu, posible badute, behintzat...".

Kategoria ezberdinak

Eguneko lehenengo pausoak haur eta gaztetxoek emango dituzte, Otala Zelain hasi eta bertan bukatuta. 10:00etan, benjaminak irtengo dira, eta 500 metro egin beharko dituzte korrika. 10:10ean, alebinen 1.000 metro egingo dituzte eta 10:20an, infantilek 1.500 metro egingo dituzte.

Helduen lasterketa, berriz, absolutua, 11:00etan izango da eta 8.410 metro egingo dituzte

ELBARRIEK PARTE HARTZEKO AUKERA JARRI DUTE BERRIKUNTZA MODUAN

parte-hartzaileek. Bakarka (gizonezkoak zein emakumezkoak) edo bikote mistoa osatuta parte hartu ahal izango dute, azken urteotan legez. Sari banaketa ekitaldia, ostera, 12:30ean izango da eta kategoria guztiek jasoko dute saria.

Aurtengo berrikuntzak

Aretxabaletako Udalak UDA kirol elkarteari proposatu dio krosaren antolakuntza eramatea eta elkarteak gogoz hartu du erronka. "Erreferentziazko lasterketa da Aretxabaletan Otala Zelaiko krosa eta ahal bezain ondoen egiten saiatuko gara. Gainera, berrikuntza bat egiteko asmoarekin gaude. Mardo-ren oroimenezko krosa denez, Bilboko elbarri elkarte batekin jarri gara harremanetan, eta krosera etortzeko gonbidapena luzatu diegu. Hala ere, zalantzak ditugu zein bide egingo duten, etorriko diren edo ez... baina egin beharreko zerbait zela iruditu zaigu".

Lehen postuaren bila, ligako txapeldunak izateko

Nazionalerako sailkatuta dauden arren, UDAk liderrari irabazi behar dio ligako lehen postua eskuratzeko

I.B ARETXABALETA

Riberaren mutilek denboraldi bikaina egin dute aurten, hasieratik goiko postuei utsita, eta dagoeneko sailkatuta daude Nazional Mailarako. Hala ere, zapatuan liderraren aurka jokatu dute etxean, Afantxo Pescados Ferreresen aurka, hain zuzen ere, eta, haiei irabaziz gero, lehen postua eskuratu dute.

Hirugarren Nazional Mailara igotzeko txartela lortuta duten arren, 16:30ean jokatu dute Ibarra kiroldegian liderraren aurka, eta dena ematera irtengo

direla kantxara adierazi du Arkaitz Ribera entrenatzaileak: "Lehen postua eskuratu nahi dugu denboraldi borobil honen ostean. Iaz ez ginen hain fin hasi, baina aurten oso ondo ibili gara denboraldi osoan zehar. Hala ere, nahiz eta zapatuko partidua irabazi, azken jardunaldia geratuko zaigu eta oraindik itzarotea geratzen zaigu. Biak irabazi nahi ditugu, eta, horretarako, gonbidapena luzatu nahi diegu zale guztiei kiroldegira hurbildu eta taldeari animoak emateko".

Bakarrizketa saioak izango dira gaur Arkupe aretoan

Maribel Salas (Barakaldo, 1965) eta Javier Merino (Donostia, 1967) umoristek *Monolokos* bakarrizketa saioa eskainiko dute gaur Arkupe aretoan.

Barre, algara eta txaloeekin beteta aurreikusten den saioa 20:00etan eskainiko dute eta sarrerek lau euro balio dute. Umorista biak ezagunak dira telebistan agertu izanagatik. Javier Merino, batez ere, *Gente seria* ETBko bakarrizketa programan agertu izanagatik da ezaguna. Maribel Salas, berriz, bakarrizketetan ere aritu arren, aktorea da, eta *Vaya semana*, *Con el culo al aire*, *Allí abajo* eta beste hainbat saiotan agertutakoa da.

Kurtzebarri eskolak masaje ikastaroa antolatu du

Kurtzebarri eskolan masaje ikastaroa antolatu dute, hazkunde goxoa bideratzen duen esperientzia izateko. Ikastaro egunak hauek izango dira: maiatzaren 2a, 4a, 8a eta 10a; eta 17:30ean hasiko da. Gomendatzen den adina, berriz, hilabete batetik sei hilabetera bitartekoa da, eta izena eman nahi duenak 943 79 00 49 telefonora deitu dezake.

'Okilak eta biodibertsitatea' erakusketa

Natur Eskolak antolatuta, *Okilak eta biodibertsitatea* erakusketa izango da Arkupe aretoan hilabete osoan. Gainera, bisita gidatuak egingo dituzte bi egunetan: maiatzaren 2an eta 17an; 19:00etan izango dira.

Erakusketan panel batzuk jarriko dituzte, *Okilak munduan* izenekoak. Okilak nolakoak diren azalduko dute bertan, gorputzeko atalak nolakoak dauzkaten, nola elikatzen diren... Beste atal bat *Basoko atabulariak* izango da, eta, bertan, okilek enborrak zein helbururekin jotzen dituzten azalduko da. Okilen habiak ikusteko aukera ere izango da, besteak beste.

Mobiliario
ARENAZA

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



laz, Eskoriatzako Zaldibar antzokian ospatu zen Liburuaren Nazioarteko egunean. XABI GOROSTIDI

Irakurketaz beteko da gaur Zaldibar antzokia

Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko egitarau zabala prestatu dute gaurko: musika eskolako haurren ipuin musikatua, Lehen Hezkuntzako seigarren mailakoen lehiaketako saridunen irakurketa, Dorleta Kortazarren kontaketa, eta abar

Imanol Beloki ESKORIATZA

Apirilaren 23an Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatu zen munduko hainbat herrialdetan, eta Eskoriatzan ere, irakurketa sustatzeko asmoz, Xabier Amuriza izan zen *Zein ongi bizi zen Ulises* izeneko emankizunarekin. Bestalde, martxoaren 29an Kirmen Uribe idazleak *Elkarrekin esnatzeko ordua* liburuaren gainean jardun zuen. Hala ere, Liburuaren Nazioarteko Egunaren inguruko egitaraua ixteko, gaur arratsalderako ere hainbat ekintza antolatuta dituzte.

18:00etan Zaldibar antzokian hainbat ekintza egingo dira, eta horiei hasiera emateko Beheko Errota musika eskolako haurrak oholtzara igoko dira ipuin musikatua eskaintzeko. Ondoren, azken urteotan egin den *Ezagutzuz ulertu eta ulertuz maitatu* lehiaketako sari banaketa izango da. Luis Ezeiza eta Almen ikastetxeetako seigarren mailako ikasleei zuzendutako lehiaketan, partaideek euren aito-

na-amonei buruzko bizipenak edota biografiak idatzi dituzte, eta saridunak oholtzara igoko dira beraiek idatzitako istorioak kontatzera. Bide batez, posible bada, saridunen aitona-amonei ere gonbidapena luzatuko diete bertaratu daitezten, eta lore sortatxoak jasoko dute haiek. Irabazleek, berriz, erosketa-txartel bat jasoko dute.

Gero, ekitaldia borobiltzeko, Dorleta Kortazarrek ipuin kontaketa eskainiko du. Liburuetan eta literaturan oinarrituta, ipuin tradizional bat kontatuko du 15-20 minutuko saioan.

Antzokiko atarian bigarren eskuko liburu azoka ere izango da. Haurren liburuak 50 zentimotan erosi ahalko dira eta hel-

SEIGARRIN MAILAKO HAURREK BERAIEI AITONA-AMONEN BIOGRAFIAK KONTATUKO DITUZTE

duentzat zuzendutakok direnak, berriz, euro baten. Batutako dirua Udalarai entregatuko zaio, behar handien dutenei laguntzeko asmoz, eskolako materiala, liburuak... erosteko.

'Irakurri, gozatu eta oparitu'

Bestalde, *Irakurri, gozatu eta oparitu* egitasmoa martxan dago oraindik Eskoriatzan. Martxoaren 20an hasi zen, eta maiatzaren 31ra arte iraungo du. Irakurzaletasuna bultzatzea helburu duen egitasmo horrek herritarrak euskarazko liburuak irakurtzera animatu nahi ditu, irakurtzearen alde atsegina azpimarratuta, eta liburutegi publikoen zerbitzuen erabilera sustatzeko.

Horretarako, bibliotekatik euskarazko liburu bat hartu, etxera eraman eta irakurri ostean, itzultzean, irakurle-fitxa betez gero erosketa-txekea jasotzen da. Hala, txekea erabiliz liburu bat erostera joatean, %35 merkeago erosteko.



Ekaitz Zilarmendiren ikastaroaren ostean ateratako argazkia. IRATXE ARRESE

Asteburuan 'Hi, selphie!' lehiaketa egingo dute nerabeek

Instagram aplikazio ezaguna erabilia, ginkana bat egingo dute hainbat erronkari aurre egiteko

I.B ESKORIATZA

InstantLean kanpaina barruko *Hi, selphie!* Gipuzkoa mailako lehiaketa da eta 12 eta 17 urte bitarteko nerabeei zuzenduta dago; bada, Eskoriatzan, beraien modura antolatuta, aste bukera honetarako deitu dute lehiaketa; zapatuan eta domekan izango da.

Instagram aplikazioa erabilia, erronka ezberdinei aurre egin beharko diete parte hartzaileek. Zapatuan 17:30ean hasiko da lehiaketa, eta argazki ginkana bat antolatu dute horretarako. Taldeetan banatuta, *selfie* bitxiak atera beharko dituzte, herriko txoko bateko elementu bat aurkitu eta argazkia atera, eta abar. Orain arte, sare sozialen gaineko formazio saioak izan dituzte nerabeek. Haien arriskuak zeintzuk diren adierazi diete, Ekaitz Zilarmendi argazkilariaren ikastaroa ere

jaso zuten, eta, haren azalpenak barneratuta, argazki saioa egin dute kanpaina horren barruan ikasitakoa praktikan jartzeko. Hala ere, ekintzak ez dira nerabeentzat soilik landu; gurasoentzat ere izan dira formakuntza saioak.

Lehiaketa hori Gipuzkoa mailan dagoen *Hi, selphie!* lehiaketarako baliagarria izango da eskoriatzarrentzat. Hala, asteburuan ateratako argazkiak bidali ahal izango dituzte eta sari ederrak irabazteko aukerak izango dituzte.

Erabilera sana izateko

InstantLean hiritartasun digitala nerabeekin lantzeko kanpaina bat da, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gaztematika arloak, hainbat udalek eta gaztelekuk martxan jarri dute, eta gazteen teknologiaren erabilera sana sustatzeko helburua du.

'Barro Rojo' ikuskizuna domekan, Zaldibar antzokian

Javier Liñena zuzendariak gidatutako *Barro Rojo* lana Zaldibarren izango da domekan, 19:00etan. Iraganeko bi historia errealek kontatuko dira: Hitlerren Europa ardatz izango duena, batetik, eta Francoren Espainia ardatz izango duena, bestetik. Gaztekeraz izango da eta sarre-ak lau eurotan egongo dira salgai Zaldibar antzokian.

Protagonistaren eta bere osaba homosexualaren bidaia kontatuko da. Hain zuzen, homosexuala izatearren kartzelatu izan zen osaba, Europako kontzentrazio-esparru batean, eta, gero, Francok zituen kartzelatan ere egon zen preso.

Hainbat sari irabazi ditu lan horrek: Max sarietan hautatua izan zen autore berri onenen sailean, 2016an Urrezko Hiruki saria jaso zuen, eta urte berean Indifest festibaleko muntai onena irabazi zuen lanak.

"Artistaren bizitza zoroa da, hala izan behar du"

IÑAKI RUIZ DE EGINO ESKULTOREA

Maiatzaren 4an, 'Arte bakarra bi hemisferiotzat' erakusketa inauguratuko dute Ibarraundi museoa eta Ruiz de Eginoren 16 eskultura izango dira bertan ikusgai

Imanol Beloki ESKORIATZA

Iñaki Ruiz de Eginok eskultorea, margolaria, grabatzailea da. Nazioarteko abstrakzio geometrikoaren eta gaur egungo arte neokonkretistaren artista handienetakotzat jotzen da. Zaragozako Arte Eskolan ikasi zuen eta nazioarte mailan jarduten du batez ere, Euskal Herrian baino gehiago.

Bere obra zehatza, koherentea eta independentea, artearen merkatuko interesetik kanpo, izateagatik nabarmentzen da eta *Arte bakarra bi hemisferioentzat* erakusketarekin izango da Eskoriatzan. Datorren egunean, maiatzaren 4an, izango da inaugurazioa, 19:00etan, Ibarraundi museoa, eta egilea bera ere bertan izango da bere lanen azalpenak ematen.

Arte bakarra bi hemisferiotzat erakusketa ekarriko duzu Eskoriatzara; zer ekarriko duzu?

Nire bildumako pieza gutxi batzuk dira ekarriko ditudanak, eta espazioaren arabera aukeratu ditut. Guztira, 16 eskultura: burdinazkoak, egurrezkoak, altzairuzkoak eta brontzezkoak direnak. Honekin batera, obra grafikoa eramango dut, figuratiboagoa dena...

Zein da erakusketaren helburua?

Asmoa da erakusketa didaktikoa izatea, batetik, ikastetxeetatik datozen haurrentzat zuzenduta izango dena. Hain zuzen ere, marrazten eta diseinatzen hasten garen momentutik eskultura bilakatzerainoko bidea erakutsi nahi dut.

Eta zer adierazi nahi duzu lan honenkin?

70eko hamarkada ezkerer nabil lanean, eta pinturerekin eta eskulturrekin aritu naiz, batez ere. 200etik gora erakusketa propio egin ditut eta taldean 800 erakusketa inguru. 21 urterekin Euskal Pinturaren Sari Nagusia jaso nuenetik etengabe ari naiz lanean, beraz pentsa ezazu...



Iñaki Ruiz de Eginok eskultorea. NOTICIAS DE NAVARRA

"MARRAZTEN HASTEN GARENETIK ESKULTURA BILAKATZERAINOKO BIDEA ERAKUTSI NAHI DUT ERAKUSKETAN"

Hainbat artista ezagutu ditut ibilbide luze honetan, eta nork bere estiloa bilatzen du. Nik nirea bilatu dut, eta erabiltzen ditudan material tradizionalak euskal kulturakoak dira. Hori helarazi nahi dut, baita piezak egiteko prozesua, besteak beste. **Zure ibilbideari erreparatuz, artistaren bizitza nolakoa da?**

Artistaren bizitza zoroa da, eta hala izan behar du. Batez ere, nazioarte mailan ibili naiz, eta ari naiz lanean; beraz, asko bidaiatu dut nire lan ibilbidean. Hong Kong-etik, Lanzarotera etorri berri naiz, Singapur, Tailandia... bezalako tokietan ibili ostein.

Noiz arte izango da erakusketa ikusgai?

Maiatzaren 4an 19:00etan izango da inaugurazioa eta bertan izango naiz ni zalantza guztiak argitzeko prest. Erakusketa, berriz,

maiatzaren 5etik 25era bitartean egongo da irekita herritarrentzat. Asteleheneetik egubakoitzera bitartean, 12:00etatik 14:00etara goizez eta 18:00etatik 20:00etara arratsaldean. Domeketan, 12:00etatik 14:00etara. Eta zapa-tuetan, berriz, itxita egongo da erakusketa.

Erakusketa honez gain, maiatzaren 16an *Una dimensión creativa* hitzaldia eskainiko duzu, ezta?

Maiatzaren 16an *Una dimensión creativa* hitzaldia eskainiko dut Ibarraundi museoa, 18:30ean izango da. Artisten lana nolakoa den azalduko dut bertan, zergatik egiten dugun egiten duguna, zer transmititu nahi dugun, lan horrek zein esanahi kultural duen... Oinarrian halako gauzak azalduko ditut, baina ezagutu ditudan artista handiekin dudana izan dudana erlazioa ere kontatuko dut.

Zein artistarenak, jakin badaiteke?

Eskultore bezala, gaztetatik izan ditut lagun Jorge Oteiza, Txillida, Françoise Morellet, Basterretxea... haien lana ere erreparatuko dut, eta haiekin dudana izan dudana erlazioa. Batez ere, eskultura gaur egun nola dagoen adierazteko.



Duela bi urte ospatu zen Atxorrotx Kultur Elkartearen eguna. GOIENA

Atxorrotx Kultur Elkartearen eguneko egitaraua prest dago

Maiatzaren 13an elkartearen eguna izango da, eta egun osoan zehar hainbat ekintza izango dira Eskoriatzan

I.B ESKORIATZA

Atxorrotx Kultur Elkartearen eguna maiatzaren 13an izango da, eta, urtero moduan, egun osoko egitaraua prestatu dute antolatzaileek. Besteak beste, musika emanaldiak, haurrentzako puzgarriak, txistulariekin kalejira, taloak eta sagardoa herriko plazan, paella jana eta beste hainbat ekintza antolatutuzte, sorpresaren bat edo beste ere bai. Hala ere, elkartearen egunaren aurretik, maiatzaren 12an, motorrak berotzen joateko Trigger proiektuarekin izango da Eñaut Zubizarreta musikaria Inkernu tabernan 22:30ean.

Errekan Gorako taldeak lotzen

Atxorrotx Kultur Elkartearen egunarekin batera, elkarteak berak antolatzen duen Errekan Gora jaialdiak hamar urte beteko ditu, eta musika ikuskizunez beteko dituzte herriko txoko ezberdinak uztaileko aste bukaeretan.

2007an egin zen lehen aldiz Errekan Gora jaialdia eta Atxorrotx Kultur Elkartearen kideak hasiak dira hamargarren edizio honetarako egitaraua prestatzen. Hala ere, antolatzaileen esanetan: "Egitarauari azken ukituak ematen ari gara, eta, musika talde batzuk lotu ditugun arren, oraindik goiz da nortzuk ekarriko ditugun esateko. Hala ere, laster jakinaraziko ditugu zein talde izango diren aurtengo edizioan. Hamar urteak behar bezala ospatu nahi ditugu, eta, uztaileko egitaraua ederra izan-

go den arren, maiatzaren 13an talde bitxi bezain ederra ekartzea lortu dugu..." dio Iñaki Kortazarrek, Atxorrotx Kultur Elkartearen kideak.

Talde handiak hamar urtetan

Hamar urtetan musika estilo, talde eta bakarlarari ugari batu dituzte Errekan Gorak. Besteak beste, Kepa Junkera, Amparo Sanchez, Anje Duhalde, Dead Bronco, Belako, Glaukoma, Mikel Urdangarin, Kalakan, Izaki Gardenak, Bizardunak... halako talde handiak izan dira Eskoriatzan. Gainera, emanaldiak Eskoriatzako txoko ezberdinetan prestatzen ahalegintzen dira antolakuntza taldekoak eta hala jarraitzeko asmoa dute. Batzuetan arrakasta handiagoa eta beste batzuetan txikiagoa izan arren, xarma berezia izan duten kontzertuak ere prestatu izan dituzte. Esaterako, Atxorrotx mendian egin zenekoa. 2010eko uztailearen 24an, gazteluaren inguruko azalpenak, bertsolariak, erromeria eta Bizardunak taldea izan ziren. Jende asko batu zen, eta mendian egiteak arrakasta aparta izan zuen.

Bide beretik jarraitzeko asmoz

Atxorrotx Kultur Elkartearen kideak pozik daude Errekan Gorako hamar urteek eta elkarteak berak antolatu dituen ekintzekin, eta bide beretik jarraitzeko asmoa dutela adierazi dute, betiere, Eskoriatza kulturaz eta musikaz betetzen jarraitzeko, eta herria girotzeko asmoz.

Bihotza lantzeko eremua egokitu dute kiroldegian

Eskoriatzako Manuel Muñoz kiroldegian makina kardiobaskular berriak jarri dituzte; bizikleta estatikoak eta eliptika aparailuak. Horiek erabiltzeko gunea egokitu egin dute, eta behean zituzten bizikleta estatikoak ere bertara eraman dituzte

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako Manuel Muñoz kiroldegian bihotza lantzeko eremua egokitu dute, makina berriak jarrita, eta gimnasioan zeudenak gora eraman dituzte. Eliptika egiteko aparailu bat eta bizikleta estatiko bat jarri dituzte, hain zuzen, eta horren arrazoia izan da aparailu horiek direla kiroldegian gehien erabiltzen direnak.

Ander Agiriano kiroldegiko monitorea haxe adierazi du: "Kiroldengan gehien erabiltzen diren aparailuak kardioa lantzekoak dira, eta gunea egokitzea eta aparailu gehiago jartzea beharrezkoa dela ikusi dugu; hala, eremu handiagoan erabiltzaileak gusturago egon daitezten, eremu handiagoan".

Onura ugari

Eliptika edo bizikleta estatikoak egunero erabiltzea oso osasungarria dela adierazi du Ander Agiriano monitorea. Gorputza lantzeko modu bat izanik, muskulatura, bihotz maiztasuna, odolaren zirkulazioa... hobetzen dutela azpimarratu du. "Gorputzarentzat bizitza aktiboa izatea onuragarriagoa da sedentarioa izatea baino. Hala, egunero ordubeteko egitea gomendatzen dut, muskuluak eta odola mar-



Ander Agiriano begiralea bihotza lantzeko aparailuen eremuan. I.B

txan jarriz osasunean irabazten delako".

Aparailuen funtzionamendua

Martitzenetan eta egunetan, 10:30etik 11:30era eta 18:30etik 20:30era Agiriano egoten da bihotza lantzeko gunean, edozein erabiltzailek zalantzaren bat badu, laguntzeko prest. Hala ere, beste orduren batean joanez gero eta harreran galdetuta arazo barik laguntzen dutela gaineratu du Agirianok.

Libreki joan beharrean herri-tarrak animatu nahi dituzte

kiroldegitik, bertara joan eta makinak probatzera. Ondoren, spinning ikastaroa egin nahi duenak izena emateko aukera dauka.

Spinning saioa irekian

Horrekin batera, zapatuan, spinning saioa egin nahi dute, Santa Marina plazan, 10:30etik 12:00etara bitartean.

Bide batez, makina berriak probatzeko eta kirola eginaz goiz ederraz disfrutatzen. Xabi Azkaratek eta Iker Beitiak gidatuko dute saioa.

'Play-off'-etarako sailkatuta, liderraren aurka azken partidua

Eskoriatzako areto futbol taldeko neskek etxean jokatu dute zapatuan Idiazabalen aurka, 18:00etan

I.B ESKORIATZA

Eskoriatzako areto futbol taldeko senior mailako emakumezkoek ligako azken partidua jokatu dute zapatu honetan, Manuel Muñoz kiroldegian, Idiazabal taldearen aurka. Aurkaria lide-

rra da 44 punturekin eta Eskoriatzako neskek, berriz, hirugarren postuan daude 30 punturekin, eta postu horretan amaitu nahi dute denboraldia. Dena den, txapelketan zazpi taldek jokatu dute, eta sailkapeneko

lehen lau postuetan geratzen direnek jokatu dituzte *play-off*-ak. Hala, etxeok txartela lortuta dute dagoeneko, eta liderrari irabazita amaitu nahi dute.

Gonbidapena herritarrei

Partidua 18:00etan izango da, eta herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte bertara daitezen. Honela, *play-off*-en aurreko azken partidua Idiazabal liderrari irabazten badiote, ospakizuna handiagoa izan dadin.

LEINTZ GATZAGA | 21



Gatz Museoko arduradun Aitor Larrañaga azalpenak ematen. AMAIA TXINTXURRETA

Leintz Gatzagan bisitari ugari izan dira oporraldian

Batez ere, Aste Santuko lehen egunetan batu dira turista gehien herrian, leku askotatik etorritakoak

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Leintz Gatzaga herri bisitatu dela jakinek da. Hainbat txoko ditu bisitatzeko: Gatz Museoa, Gaztainuzketa mendi etxeak, herria bera... Hala, aurten ere, urtero bezala, oporraldian, jende asko pasa da bertatik; leku askotatik etorri dira.

Aste Santuko egunetan izan dira turista gehien Leintz Gatzagan. Gatz Museoa, zapatuan, adibidez, "Gasteiztik etorritako bisitariak izan ziren. Baina Gasteizko jendeaz gain, Bilbotik, Donostiatik, Madrildik, Bartzelonatik eta Kanarietatik etorritakoak ere izan dira egunotan. Iazko bisitari kopuru antzekoa izan dugu", adierazi du Gatz Museoko arduradun Aitor Larrañagak.

Gaztainuzketa mendi etxeetan, mendi etxe guztiak beteta izan dituzte. Sei txabola daude

gutzira; hiru sei pertsonakoak eta beste hiru lau pertsonakoak dira. Horrez gain, jangela ere beteta izan dute egunotan, eta, alde horretatik, pozik geratu dira oporraldian izan duten bisitari kopuruari erreparatu.

Aterbeko Jose Ayudarte ere pozik agertu da oporraldiak eman duenarekin. "Lehenengo astean izan ditugu bisitari gehien. Bigarren astean, bestalde, jende gutxiago izan da nahiz-eta izan ditugun hainbat bisitari".

Bisitari, geratzeko asmo barik

Soran Etxeko Montse Valeriok, bestalde, adierazi du kanpotik etorritako bisitariak izan dituztela, baina bertan geratzeko asmoz baino gehiago, egun-pasa etorri direla. "Uste baino bisitari gutxiago izan ditugu. Egun-pasa etorri dira, bazkal-tzera asko, baina bertan gutxi geratu dira gaua pasatzen...".

Maiatzeko lehen domekan hasiko dira mezak Dorletan

Ohitura da, udaberri aldera, San Millan Leintz Gatzagako elizatik -herrian dagoena- Dorletako santutegira pasatzea mezak ematera. Hala, hurrengo domekan, maiatzaren 7an, izango da meza bertan.

Hilean lau meza emango dira, bi 10:00etan izango dira eta beste bi, berriz, 12:30ean, baina oraindik zein meza noiz izango

den zehazteko dagoela adierazi du Dorletako eta parrokiako arduradun Tere Aranburuzabalak. Hau gaineratu du: "Aldaketa Dorletako santutegia zabalik egoteko egiten dugu, leku bikaina da, batez ere eguraldi ona egiten duenean, kanpotik ere jende asko etortzen delako...".

Bestalde, esan du Dorleta Santutegian ospatzen den ezkontza kopurua jaitsi egin den arren, aurten lau egongo direla: bi uztailean, bat abuztuan eta beste bat irailean.

Maiatzaren 6tik 13ra da aurtengo Lorabari Astea

Bosgarren urtez antolatu du egitarau hori Aramailur kontsumo elkarteak, herriko beste hainbat talderekin eta Udalaren laguntzarekin eta babesarekin batera; lehen sektoreari buruzko ohiturak eta jakintzak ezagutzera ematea da helburua

Eneko Azurmendi ARAMAIO

Datorren maiatzaren 6tik 13ra bitartean egingo dute Lorabari astea, lehen sektorea oinarritzat duten hainbat ekintzaz osatuta. "Elikadura burujabetza, kontsumo arduratsua eta beste nola-baiteko alternatibak lantzen saiatzen gara. Batez ere, herri jakintza eta lehen sektoreari loturiko ohitura eta lanak ezagutzera ematea eta horiek transmititzea da helburua", adierazi du Irati Mujikak, antolakuntzako kideak, eta gaineratu du "horretan" oinarritzen direla egitaraua antolatzeko orduan.

Mujikak azpimarratu gura izan du elkarlanetik abiatutako ekimena dela Lorabari Astea. "Aramailur kontsumo elkarteak herriko beste talde batzuekin elkarlanean sortzen duen egitaraua da: Guraso Elkarteak, Jubilatuen Elkarteak, Udalaren laguntza eta babesarekin badaukagu... Elkarlanetik sortua eta antolatua da", azaldu du.

Mota guztietako publikoari zuzendutako ekintzak egongo dira. Urtero moduan, azoka izango da ekintza nagusia, eta gainontzeko ekintzak desberdinak izango dira. "Hasieratik saiatu izan gara gai ezberdinak lantzen eta publiko desberdinarentzat erakargarri izan daitekeen eskaintza prestatzen", azaldu du antolakuntzako kideak. Eskaintza horrekin, "herriarrek dauzkaten jakintzak plazaratzeko" aprobetxatzen dutela dio Mujikak, baita kanpotik etorritako zenbaiten jakintzak plazaratzeko ere.

Aramaioarrei zein kanpotarrei

Nagusiki aramaioarrei zuzenduta badago ere, inguruko herrietako jendea gerturatzea gustatuko litzaieke antolatzailerei. "Noski, interes handiena herrian bertan jartzen dugu, hemen zabaltzeko, baina, betiere, saiatzen gara eskualdera eta inguruko



2015ean egin zen sukaldaritza ikastaroa, Lorabari Astearen baitan. GOIENA

herrietara zabaltzen. Ekintza guztiak dira irekiak eta edozeinek parte hartzeko modukoak", zehaztu du Mujikak.

Bosgarren urtez

Duela bost urte antolatu zen lehenengoz Lorabari Astea eta urtetik urtera "egonkortuz" doan zerbait dela nabarmendu du Mujikak. "Jendeak badaki maiatzean egitarau hau egongo dela. Erreferentzia puntu nagusia azoka dela esango nuke, nahiz eta egiten diren ekintza ezberdinek ere pisua duten".

Garagardo ikastaroa

Lehenengo ekintza Garagardo ikastaroa izango da. Maiatzaren 6an egingo dute, Sastiñan. "Lau orduko ikastaroa da, teorikoa eta praktikoa. Garagardoa egingo da eta garagardo desberdinak probatzeko aukera egongo da", Mujikaren hitzetan.

Parte hartzeko, aurrez eman beharko da izena, plazak mugatuak dira eta. Horretarako, aramailurkt@gmail.com helbidera idatzi edota 688 69 57 63 telefonora deitu beharko da. Ordainketa, 10 euro, egunean bertan egingo da.

Asteko egitaraua

Maiatzak 6

- Garagardo ikastaroa Sastiñan, 11:00-14:00.

Maiatzak 7

- Belar Meta, 10:00etan parkean.

Maiatzak 9

- Buztin tailerra. 14:00-16:00 eskolako haurrekin eta 17:00-19:00 Jubilatuen elkartearen.

Maiatzak 10

- Hitzaldia Sastiñan: *Ortu eta baso bioanitzen onurak*, 19:00etan. Iñaki Etxebeste biologoaren eskutik.

Maiatzak 11

- Altza Porru Komikihitzaldia, 18:00etan, Sastiñan.

Maiatzak 13

- Azoka, Bixente Goikoetxea plazan, 11:00-14:00.



Osteta kaleko konposta gunea. E.A.

Aramaion sortzen den errefus kopurua geroz eta txikiagoa da

2016ko datuen arabera, kopurua beherantz doa urtez urte, eta Udalak egiten duen balorazioa positiboa da

E.A. ARAMAIO

Eusko Jaurlaritzak ateratako dekretuaren arabera, Europatik datozen betebeharrak kontuan izanda, 2020rako udalerrri bakoitzak bere birziklatze tasak gutxienez %50era igotzea lortu behar du, legez.

Arlo horretan, iazko datuak aztertuta -2016-, bi ondorio nagusi atera ditu Aramaioko Udalak: batetik, herrian sortzen den errefus kopurua geroz eta txikiagoa dela. Udalaren esanetan, jaitsiera hori "organikoa gehiago birziklatzen delako" gertatzen da. Hain zuzen ere, hori da Udal

Gobernuaren bigarren ondorioa. 2015. urte amaieran martxan jarri zen Osteta kaleko konpost-gunean hondakin organiko gehiago kudeatzen dela. Gaur egun, 40 familiak erabiltzen dute gune hori eta horrelako gehiago ezartzea aztertzen ari da Udala.

Gainontzeko hondakinei dagokienez, 2016an 216 kilo olio sortu ziren, 38.400 ontzi arin, 15.380 kilo traste handi eta 24.125 kilo kartoi.

Aurrerantzean ekimen berriak jarriko ditu martxan Udalak, kontzientziarazioa areagotzeko.

Udaletxea itxita egongo da gaur, San Prudentzio dela eta

Gaur, egubakoitza, San Prudentzio eguna ospatzen da Araban. Hori dela eta, Aramaioko udaletxea itxita egongo da egun osoan.

Udaletxeaz gain, herriko bestelako zerbitzu batzuk ere itxita egongo dira. Adibidez, San Martin eskola eta anbulatorioa. Horrez gain, bestelako dendetan nork berea moldatuko du; hain zuzen, batzuek jai hartuko dute eta beste batzuek goizez irekiko dituzte ateak eta arratsalde, berriz, itxi.

Azkenik, San Prudentzio zaindariaren kantua eskaini zuten atzo eskolako haurrek jolastorduan, abestuz eta txirula eta danborra joz.

Bi arlotako diru laguntzen deialdiak zabalik daude

Auzoetako jaietako eta kultura eta kirol ekintzak antolatzeko diru laguntzen deialdiak zabalik daude dagoeneko, Aramaioko udalbatzak 2017ko martxoaren 30ean hala erabakita.

2017an auzoetako jaiak antolatzeko diru laguntzaren kopurua 13.500 euro da.

Bestalde, herrian antolatzen diren kultura, kirol eta gizarte ekintzak antolatzeko emango den diru laguntza 17.080,16 euro izango da.

Deialdia Arabako Foru Aldundian argitaratuta dago eta laguntza horiek jaso ahal izateko baldintzak bertan azaltzen dira, zehazki azalduta, baita betebeharreko imprimakia ere.



Aretxabaletako GSR Debagoiena egoitza. ENEKO AZURMENDI

Aramaioarrek bi plaza Aretxabaletako egoitzan

Orain arte Arrasateko egoitzan bi plaza bermatuta zituzten, baina Arabako Foru Aldundiaren eta Arrasateko Udalaren arteko hitzarmena ez da berri eta hemendik aurrera Aretxabaletako egoitzako bi plaza bermatuta izango dituzte aramaioarrek

Eneko Azurmendi ARAMAIO

Gaur egun, aramaioar bat gelditzen da Arrasateko zaharren egoitzan. Hala ere, plaza hori hutsik gelditzen denean, aramaioarrek ez dute aukerarik izango egoitza horretako egoiliar izateko, Arabako Foru Aldundiaren eta Arrasateko Udalaren arteko hitzarmena berri eta

zelako bere garaian; Arrasateko Udalak bi plaza horiek behar zituela azaldu zion Aldundiari bere erabiltzaileentzako, eta, horren ondorioz, ez zuela hitzarmena berriko.

Aramaioako Udalarentzat ezinbestekoa zen plaza horiek bereganatzea eta, ahal izanez gero, errealitate soziolinguistiko an-

tzerakoa zeukan leku batean izatea. Hala ere, Arrasateko Udalarekin hitzarmena ez berri arren, Arabako Foru Aldundiak momentu hartan bere horretan utzi zuen kontua, ez zuen alternatibarik bilatu nahi izan -aurreko legealdian izan zen hori, duela sei urte-. Hori ikusita, Aldundiarekin negozi-

zioak hasi zituen Aramaioako Udalak, "zerbait egin beharra" zegoelako plaza horiek berreskuratzeko, Lierni Altuna alkatearen esanetan. Negoziazio luzeen ostean lortu ahal izan zen helburua.

Aldundiak lehiaketa publiko-ara atera zituen bi plazak eta GSR enpresa bakarrik aurkeztu zen. Beraz, Aretxabaletako egoitzan bermatuta izango dituzte plaza horiek aramaioarrek. "Zentro pribatu bat da, izatez, baina, guretako, publikoa izatea bezala izango litzateke", dio alkateak. Plaza horiek, behintzat, lortu dira eta Udalarentzat "oso pauso garrantzitsua" da hori. "Zorionez, bi plaza hauek berreskuratu ditugu, herritik nahiko gertu, gainera, eta hori da garrantzitsuena Aramaioko herritarrentzako. Alde horretatik, pozik gaude", azpimarratu du Altunak.

Azkeneko tramiteak

Arabako Foru Aldundiak aditzera eman duenez, Aretxabaletako egoitzako bi plazak hilabete barru egongo dira erabilgarri. "Azkeneko tramiteak -kudeaketa, itxaron zerrenda, baldintzak,

eta abar- egiten ari dira eta imajinatzen dut laster izango dela. Baina tramite horiek gizarzte langileek egiten dituzte eta haien esku dago", onartu du Altunak.

Egoitza baten beharra

Egoera hori ikusita, Aramaioako Udal Gobernuak garbi ikusten du herrian zaharrentzako egoitza baten beharra dagoela. "Bi plaza berreskuratu ditugu, eta ez da gutxi, baina bi plaza txiki geratzen zaizkigula esango nuke. Are gehiago, egoitza txiki bat eduki beharko genuke Aramaion bertan", azaldu du Altunak. Hala ere, pausoz pauso joan behar dela uste du. "Ezer ez edukitze-rik lehengo egoerara bueltatzea lortu dugu, behintzat, eta, oraingoz, ez da gutxi. Jarraituko dugu gai hau lantzen", azaldu du Altunak.

Herrian bertan egoitza izatearen aukera hori, ordea, oraindik nahiko zail ikusten du alkateak. "Arabako Foru Aldundia probintzia mailako gizarte zerbitzuen mapa egiten ari da eta gu, gure egoera berezia kontuan hartuta, gurea aldarrikatzen ari gara, eta behar duguna eskatzen".

ARAMAIOAR BAT DAGO ORAINDIK ARRASATEKO EGOITZAN, BAINA AZKENA IZANGO DA

ARAMAION ZAHARREN EGOITZA BATEN BEHARRA DAGOELA GARBI IKUSTEN DU UDAL GOBERNUAK



NIRE USTEZ

IKER ELEMPURU

Elikadura eta osasuna

Kapitala eredu duen mundu zoro honek erritmo bizia ezarri digu. Presaka bizitze horrek azken hamarkadetan izugarritzko aldaketa ezarri du gure elikaduran. Ekoizteko eta jakiak prestatzeko denborarik ez dugunez, erosotasunaren bila jaki prozesatueta jotzen dugu bi aldira pentsatu barik.

Azkenaldian hainbat zientzia artikulu eskura etorri zaizkit ia ohartu gabe. Zientzia azterketa sakonen ondorioen azalpen zorrotza, gomendioz josia... gaixotasun kroniko eta larriak gero eta

adin txikiagoetan ematen ari dira, asma kasuak eta alergiak gora nabarmen, minbiziak izugarritzko gorakada izan du... eta horien guztien oinarri eta erroan, nabarmen elikadura ohiturak eta jaki prozesatuak.

Jaki horietan erabili ohi diren kontserbagarri,

"GAIXOTASUN KRONIKO ETA LARRIAK GEROZ ETA ADIN TXIKIAGOETAN EMATEN ARI DIRA"

gehigarri kimiko, eta abar lehen efektu larriak ematen ari dira guztion osasunean. Kontuak honela, gomendioa erraza bezain zaharra. Etxean egunean sukaldaturiko sasoiak sasoiko jaki osasuntsuak oinarri izango dituen elikadura!!! Horrela gaixotasun zerrenda luze bat ekidin ahal dugu eta sasoi fisiko hobea izan. Kristoren aurkikuntza!, gure aitona-amonon errezetak hauts artetik atera eta praktikan jarri beharko ditugu!



EUSKADIKO ORKESTRA

Bizente Goikoetxearen omenez

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak Aramaioako musikagile ezagunaren omenezko kontzertua eskaini zuen oraingo asteko astelehenean, Gasteizko Principal Antzokian. EOsek aramaioararen obra liturgikoen aukeraketa bat berreskuratu eta interpretatu zuen haren heriotzaren mendeurrenean.



Aurreko eta agintaldi honetako EH Bilduko ordezkariak osoko bilkuraren ostean, Askargortarekin eta Elortzarekin. JOKIN BEREZIARTUA

Esker oneko hitz eta txalo artean egindako agurra

"Arrazoi pertsonalak" argudiatuta, zinegotzi moduan dimititu dute EH Bilduko Lauri Askargortak eta losu Elortzak; Elena Lete alkateak ere eskertu du haien lana: "Oposizioan, baina herriaren alde egiteko borondatea erakutsi dute, eta eskertzekoa da"

Jokin Bereziartua BERGARA

EH Bilduko zinegotzi Lauri Askargorta eta Iosu Elortza izan ziren apirileko osoko bilkurako protagonistak. "Arrazoi pertsonalak" argudiatuta, zinegotzi kargua utzi zuten biek asteleheneko bilkuran; esker on hitzak izan zituzten eta une hunkigarriak bizi izan ziren. Udaletxeko osoko bilkuren aretoa bete egin zen bi zinegotziak agurtzeko. Aitor Arantzabal eta Ainhoa Lete izango dira EH Bildu Udaltaldean sartuko diren kide berriak, maiatzeko osoko bilkuran.

Askargorta: "Ez da batere erraza"

Lauri Askargorta 2007an izan zen lehenengoz zinegotzi hautatua, Eusko Alkartasuna alderdiko ordezkari gisa. "Egun berezia eta gogorra izan da. Horrenbeste jende ikusita eta txalo entzunda, gogorra egin zait hitza hartzea", esan zuen bilkuraren amaieran. Hamar urte egin ditu zinegotzi, eta askorako ematen duela dio: "Jende asko ezagutu

dut eta gauza onak zein txarrak bizitzea tokatu zait. Azken finean, baina, Udalaren munduari gehiago zor diot nik eman diodana baino". Esker on hitzak izateaz gain, Askargortak dio jende gehienak ez duela Udaleko funtzionamendua ezagutzen: "Komeniko litzateke mundu guztia hemendik pasatzea, ikusteko ez dela batere erraza. Herri oso bat kudeatu behar dela. Herri honetan jai nintzen eta herri hau maite dut; beraz, ahalegindu naiz herriarendako onena ematen. Bizitako esperientzia onek zein txarrek asko erakutsi didate eta indartu egin naute; orain deskantsu bat hartuko dut eta gero, Udaletik kanpo bada ere, jarraituko dut herrian laguntzen".

**AITOR ARANTZABALEK
ETA AINHOA LETEK
HARTUKO DUTE HAIEN
ZINEGOTZI KARGUA
MAIATZEKO BILKURAN**

Elortza: "Asko ikasten da"

Iosu Elortzak, bestalde, agintaldi honetako bi urteak egin ditu zinegotzi: "Oso gustura nago egindakoarekin. Norberaren zirkunstantziak direnak dira eta, esaterako, lanarekin uztartzea ez da batere erraza. Dediakzio handia eskatzen du. Hori bai, esperientzia moduan oso positiboa da, asko ikasten da".

Lete: "Eskertzekoa da euren lana"

Elena Lete alkateak ere, Udaltaldearen izenean, eskerrak eman zizkien Askargortari zein Elortzari Bergararen alde egindako lanagatik: "Herrigintzan boluntario lan egiteko asmoa erakutsi dute. Oposizioan, baina herri honen alde lan egiteko nahia erakutsi dute eta hori eskertzekoa da egin duten lana. Hemen lortutako esperientzia ez da bakarrik haiendako geratuko, baizik eta herri osoarendako. Zorrikerik onena opa diegu ibilbide berrian eta ziur noizbait berriro ere topo egingo dugula".

Isunak txakur kakak jasotzen ez dituzten jabeendako

Maiatzaren 8tik aurrera ordenantza betearaziko du Udalak; isunak 300 euro artekoak izan daitezke

J.B. BERGARA

Bi arrazoi nagusi eman ditu Udalak txakurren inguruan aspalditik onartuta dagoen ordenantza betearazteko: batetik, herritarren aldetik "kexa ugari" jaso dituzte jabeek kakak jasotzen ez dituztela eta. "Bereziki eremu berdeetan eta beste toki zehatz batzuetan ugaritu egin dira txakur kakak: Ortuibarren, Martokoan, San Antonion eta San Lorentzon, esaterako", adierazi du Obra eta Zerbitzuetako, Auzoetako, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko zinegotzi Lander Arregik. Bestetik, batez ere lorategietan lan egiten duten udal langileak ere kexatu dira: "Bereziki udaberrian kaka pila bat topatu dituztela adierazi dute. Arazoa plazaratu beharra dago".

Hala, maiatzaren 8tik aurrera, udaltzainak isunak jartzen hasiko zaizkie herri barruko edozein tokitan -kalean zein lorategietan- txakurren kaka jasotzen ez duten jabeek. Udalak gogora ekarri du herrian zehar horretarako propio jarritako hainbat edukiontzia daudela; sei pipi-can ere badaude: "Baliabideak badaude, erabili egin behar dira. Ardura hartu". Ordenantzak jasotzen duenez, isunak 300 euro artekoak izan daitezke.

Udaleku irekietan begirale moduan lan egin gura duzu?

Goiena komunitatea

Jardun / BERGARA

Udaleku irekietan lan egiteko maiatzaren 5era bitartean Curriculuma bidaltzeko aukera dago, gaztejarhun@topagunea.com helbidera bidalita edo Jarduneko bulegora ekarrita (kultura etxea). Derrigorrezko formazio saioa maiatzaren 27an izango da, goizez eta arratsaldez.

NIRE USTEZ



ANDRES OSA
'SAKONA'

Korrika aguro, euskara motel

Korrikaren 20. erakustaldia jendetsua eta koloretsua izan da. Zorionak! Joseba Sarrionandiak, bere mezuan, baieztapen lapidarioa ozenki barreiatu zuen: "Euskara, beste hizkuntzak bezala, altxor unibertsal bat da denona delako, agortzen ez delako eta dohainekoa delako". Beste hau ere aitortu zuen: "Euskararen alde egitea normaltasunaren kontra egitea da oraindik". Halaxe da, Joseba. Honek kontrapuntua ezartzeko arrastoa ematen dit.

Korrikan ikusi izan ditugu udal, diputazio, Jaurilaritza eta zenbait organizazioen ordezkariak. Batzuek ahoa ongi puztu dute euskara laudoriotzeko. Ongi. Baina zer egiten dute TAO-OTA, udaltzain, ertzain, eta abarrekin? Hitz batean, herritarren zerbitzuan "eskaparatean" dabilzan edo ibiliko diren langileekin ze plangintza dago? Esparru zabalagoan ere sar gintezke.

Eta ikastetxeetan, ikastola mordoa barne, ikasleak euren artean erdara hutsean aritzen badira eta egoera tamalgarri hori iraultzeko ezer ez bada egiten, zer espero genezake? Korrikak koloretsua bezain seriooki errebindikatzailea izan behar luke oraindik. Bernizak ez dezala barruko herdoil ustelgarria estali.

ZUZENKETA

Apirilaren 12an kaleratu genuen *Puntu*a aldizkarian, Korrikaren gaineko argazki erreportajea argitaratu genuen. Bertan, Bergarari eskainitako bi orrietan, gaizki izendatu genuen argazkietako bat; Helduen Hezkuntza Iraunkorraren eta Miguel Altuna Institutuaren ordezkariak lekukoa hartu zuten argazkian Jardun euskara elkarte zela jarri genuen, akatsez, argazki oinean. Barka eragozpenak.

Boni Laskuraingo bidea bidegorri, uda amaieran

Boni Laskurain eta Ernai kaleen arteko bidegorri zatia uda amaierarako bukatuta egongo dela espero du Udalak, eta orain arte "bidegorri erabilera" izan duen pasabideko "trafikoa ordenatzea" da lanon helburu nagusia; aurrekontua: 186.000 euro inguru

Jokin Bereziartua BERGARA

Boni Laskurain eta Ernai kaleen arteko bidegorri zatia egiteko lanak apirilaren 3an hasi zituzten. Lanotarako aurreikusitakoa epea sei hilabetekoa da, baina Udaleko ordezkariak aste lehenago amaituko direla. San Joxepe elkartearen parean hesi bat jarriko dute oinezkoen eta txirrindularien bideak hobeto bereizteko. Elena Lete alkateak nabarmendu du obrak hasi aurretik ere pasealekuari "bidegorri erabilera" ematen zaiola, oinezko zein txirrindulari ugari igarotzen dira eta bertatik. Horregatik, lanon helburu nagusia "trafiko hori or-



Bidegorriarako lanak asteon Boni Laskurain kalean, Agorrosin kanpoan. OIHANA ELORZA

denatzea" dela dio alkateak. Horrez gain, nabarmendu du gune horretan ikastetxe ugari eta hezkuntza osasun eta kirol instalazioak daudela; hortaz, erabilera handia duenez, "berreziki garrantzitsu" deritzo.

Uda amaierarako bidegorri zatiak 600 metroko luzera izango du, Udaleko aparejadore Edu Alvarezk azaldu duenez. Zati horretan, Boni Laskurain kalearen atzealdetik sartuko da bidegorria, eta beheranzkoan eskuinaldetik joango da. Hala, gaur egun bertan dauden eserleku eta kirol tresnak pasealekuaren beste aldean jarriko dituzte, lorategiaren ondoan, hain zuzen. Hilerrri parean, berdegunetik joango da bidegorria, eta aurrerago, espaloitik. Hain zuzen, San Martin Herri Eskola pareko gunean espaloia handitu egingo dute oinezkoek zein bizikletek toki handiagoa izan dezaten. Zubiari dagokionez, ezkerreko espaloia txirrindulariek erabiltzeko izango da, bertatik pasako dela bidegorria. Eskuineko aldea, berriz, oinezkoendako izango da. Hori bai, aipatzekoa da Alkabetako 7, 9

eta 11. zenbakien aurrealdean –jabetza pribatukoak dira– ez dutela jabetza pribatuko lurren gaineko akordiorik lortu; zati horrek, beraz, egungo moduan jarraituko du.

Udalak Zetabi Arkitektura Bulegoari esleitu zion proiektu teknikoa –6.032 eurotan–, eta exekuzioaz Sasoi eraikuntza enpresa arduratzen dabil; proiektua exekutatzeko aurrekontua 180.000 euro inguru da.

Mekolaldeko zubia, zabalik

Bestalde, lau pabost hilabeteko lanen ostean, martitzena ezkerreko zabalik dago oinezkoendako Mekolaldeko egurrezko zubia. Lanak Urartetxe enpresak egin ditu eta pasabideak bi metro ditu zabalera eta 35 metro luzeran. Obra egiteko garaian auzokideen aurretiko kezka kontuan izan dira; bi behar nagusi adierazi zituzten, zabor bilketa eta mugikortasuna. Zabor bilketa ibaiaren bi aldeetatik egin da eta garraio publikoa indartzeaz gain, taxi zerbitzua finantzatu zaie auzotarrei hilabeteotan. Segurtasun ikuspegitik, uholde arriskua txikitu egin da.


ARANZADI ikastola
Kalitatezko Euskal Heziketa

Batxilergoko aurrematrikulazioa
ARANZADI IKASTOLAN

BILERA INFORMATIBOA:

Eguna: maiatzaren 4an, osteguna
Ordua: 18:30

Tokia: Aranzadi ikastolako areto nagusia

AURREMATRIKULAZIO EPEA:
maiatzaren 2tik 12ra

Idazkaritzako ordutegia: 07:00-18:00

943769071
bergara@ikastola.eus
www.aranzadiikastola.eus




ikastolenekartea



Herritik irteteko beharrik gabe, ekintza ugari udan

Udalak sei multzotan banatu du udako eskaintza: udaleku irekiak –iaz 484 umek hartu zuten parte–, kanpamendu teknologikoak, kirol kanpaina, sormen tailerra, 'Bibliopiszina' eta uretako indusketak; izena eman daiteke maiatzaren 12ra arte, Agorrosinera jota

Jokin Bereziartua BERGARA

"Haur, gazte zein helduei zuzendutako ekintzak antolatu ditugu udako egunetan ondo pasatu ahal izateko Bergararik irten gabe. Kirola, ondarea, kultura, teknologia... arlo guztietako ekimen ugari izango dira. Udaleko sail ezberdinek elkarlanean egindako eskaintza oso interesgarria eta erakargarria dela uste dugu eta bergararrak parte hartzea animatzen ditugu". Hitz horiek izan ditu asteon Maite Agirre zinegotziak Udalak udara begira antolatu duen "eskaintza zabala" azaltzeko.

2 eta 12 urte arteko neska multikoei zuzendutako udaleku ire-

kiak uztailearen 3tik 28ra izango dira, 10:00etatik 13:00etara: "Erabiltzaile kopuruak gora egin du izugarri. 2013an 283 ume izan ziren eta 2016an, berriz, 484", adierazi zuen aurkezpenean Izaskun Labaien zinegotziak. Eta, iazko arrakasta ikusita, kanpamendu teknologikoak errepikatu egingo dituzte, umeak zein gaztetxoak teknologiarene eta zientziaren munduan barnerratzeko. Kirol kanpainari dagokionez, adin guztietarako ha maika jarduera eskainiko dira hainbat berritasunekin –helduendako nordic walking ikastaroa, esaterako–, eta igerilekuan irakurzaletasuna bultzatzeko

Bibliopiszina ekimenaren barruan, ekainaren 26tik uztailearen 21era 15:00etatik 18:00etara, liburuak maileguan hartzeko aukera izango da. Bestalde, aurtengo berrikuntza nagusia da sormen tailerra; uztailearen 10etik 21era izena ematen duten 10 eta 12 urte arteko gazteek antzezlan bat sortuko dute. Amaitzeko, 2007 eta 2009 urteen artean jaiotakoendako uretako indusketa arkeologikoa egingo dute uztailearen 12an, duela 3.000 urte Aiaraldean hondoratutako Uluburu itsasontziaren bueltan.

Maiatzaren 12ra arte eman ahalko da izena, Agorrosin Ekin-tza Gunera jota.

Labegarrietako jaiak apirilaren 30ean eta maiatzaren 1ean

Domekan mozerro desfilea (12:00), II. auzo bazkaria (14:00), ume zein helduendako dantza saioa (17:00) eta DJ Julen Narbaizaren saioa izango dute karpan (20:30), besteak beste. Astelehenerako egitarauan, eskolarteko txirringularitza proba (11:00), meza nagusia (11:00), II. auzo krosa (17:00) eta umeendako jolasak (18:00) dira ekintza aipagarrienak.

UNEDen, sukaldaritza makrobiotikoaren inguruko ikastaroa

Gorka Gereño sukaldariak gidatuta, 1920an Japonian garatutako sukaldaritza makrobiotikoaren inguruko ikastaroa antolatu du UNEDek. Maiatzaren 11n hasiko da (eguna), baina izena emateko epea maiatzaren 7an itxiko dute. Izena emateko: 943 76 90 33 edo csoriano@bergara.une.es. Plaza mugatuak izango dira.

Ibon Manterolaren hitzaldia maiatzaren 3an Irizar jauregian

Jardun euskara elkarteak antolatuta, 2011 ezker hizkuntzalaritzan doktore den Ibon Manterolak hitzaldia eskainiko du maiatzaren 3an Irizar jauregian (19:30). *Euskararen biziberritzea: ziklo berrirako osagai batzuk* du izenburu saioak; gaur egun ere irakasle da Manterola, EHU, Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Sailean.

Sortuko eledun Arkaitz Rodriguez Arranon, maiatzaren 2an (19:30)

Independentzia 2026? izenburupean, Sortuko bozeramaile Arkaitz Rodriguezek hitzaldia eskainiko du maiatzaren 2an Arrano tabernan (19:30). Independentistak sareko kide Maite Aristegik egingo ditu aurkezle lanak. "Euskal Herriko prozesu independentistaren berri izateko aukera bikaina izango da", adierazi du Bergarako Sortuk.

Renove Planaz gozatu!

ECHO
Maquinaria Forestal y Jardineria

Merkatuko sasi-garbitzeko makina aurreratuen lor ezazu!

Sasi-garbitzeko zure makina zaharra ekarri eta

150 € emango dizkizugu

RM 520 ES berria erosten baduzu



comercial BRUNET

Telleria 2, Labegaraieta, BERGARA. 943 76 31 52. www.comercialbrunet.com



RM 520 ES

Zilindro-bolumena:
50,20 cm³
Pisua: 12 kilo



1.080 €
BEZa barne



Eta oparia
Hiru puntako diskoa



Bergarako talde erretratua, denboraldiaren aurkezpenan. IMANOL SORIANO

Bergarak bi puntu behar ditu ametsa borobiltzeko

Hiru jardunaldi geratzen badira ere, Bergara mailaz igo daiteke bihar. Matematikak aldeko dituzte, partidua galduta ere posible da helburua betetzea, baina, Urolari begira egon barik, Getariakoren kontra irabazita hasi gura dituzte ospakizunak

Xabier Urzelai BERGARA

Duela bi urte, maiatzaren 23an, etxean galdu zuen Bergarak kategoria. Azken partidu hartan mahoneroek etxerako lanak ondo bete zituzten Martuteneri irabazita (1-0), baina ez zen nahikoa izan. Berri txarrak iritsi ziren Agorrosinera, Zarautzek eta Hondarribiak euren partiduak irabazi zituztelako. Bada, bi den-

boraldi erregional preferentean lehia ibili ostean, bihar (17:00) Agorrosinek festa galanta bizi dezake, Bergarak osterera ere dagoen tokira bueltatzeko aukera aparta duelako.

Oraindik hiru jardunaldi geratzen zaizkio ligari, baina mahoneroek 8 puntuko abantaila dute; hala, bi puntu behar dituzte matematikoki mailaz igotzeko,

eta nahikoa izango da bihar Getariako mendean hartzea helburua lortzeko –galduta ere, Urola derrigortuta dago Idiazabalaren irabaztera–.

Zaleen babesa gura dute

Biharko deialdia egin du klubak, partidura joateko –sarrera doan da–. Ospakizunak gertu daude, baina bi puntu behar dira.

Euskal Herriko Eslalom Txapelketa egingo dute bihar

Euskal Herriko eta Kantabriatik etorritako kirolariak batuko dira Bergarako pilotalekuan (10:30)

X.U. BERGARA

Kirol Egokituko Euskal Federazioak Euskal Herriko Eslalom Txapelketa antolatuko du zapatutako Bergaran (10:30ean, pilotalekuan), Kemen, Dordoka eta Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioarekin elkarlanean.

Zer da eslalom?

Garun paralisia daukatenentzako kirola da eslalom. Bergarako frontoian jarriko duten zirkuituan, gurpil aulkian dabilen kirolariak oztopoak saihestuz

ibilbide osoa egin beharko dute ahalik eta denborarik laburren. Eta, Euskal Herriko kirolariarekin batera, iaz Kantabria-koak ere izan ziren.

Hastapenak, Aspaceren eskutik

1992an hasi zen eslalom gurpil aulkian ezagun egiten EAEn; izan ere, Aspace Gipuzkoak lehen taldea sortu zuen. Orditik aurrera, beste autonomia erkidego batzuetara zabaldu zen, eta, hala, 1993an Espainiako lehen txapelketa antolatu zuten.



BERGARA SASKIBALOI ELKARTEA

Leire Martin Pinedari babesa

Araskik eta Gironak Gasteizen jokaturako emakumezkoen saskibalo ligako partidua aprobetxatu zuten Bergarako saskibalo elkarteak Leire Martin Pineda herrikidearekin elkartasun keinuaz izateko. Hala, taldeko ordezkariak Araskiko neskekin batera erakutsi zuten pankarta, eta talde erretratua egin zuten.

Bergarako infantilek Euskal Selekzioa izan dute aurrean

Aste barruan Bergara Kirol Elkarteko Infantil Txiki taldeak Euskal Selekzioko U12 taldearen kontra jokatu du Zubietan. Carlos Romerok eta Pedro Zafrak entrenatutako mutilak oso pozik itzuli ziren Zubietan aldetik. "Esperientzia benetan aberasgarria izan da jokalariek guztiondako", adierazi du klubak.



Bergarako eta Euskal Selekzioko ordezkariak Zubietan. BKE

Eskola mailako gaztetxoek ziklismo lasterketa etzidamu

Astelehenean, hilak 1, maila eskolarretako ziklismo lasterketa egingo dute Labegarietan –11:00etan hasita–, eta bertan batuko dira ibarreko klubetako ordezkari asko. Infantilak (2003 eta 2004 urte bitartekoak) eta alebinak (2005-2006 urte bitartekoak). Benjamin mailakoek ere parte hartuko dute, baina lehia-tu barik.

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

Herrian irakurzaletasuna badela igarri da asteon

Apirilaren 23ko Liburaren Nazioarteko Egunaren bueltan hainbat hitzordu izan dira azken egunotan, Udal Liburutegiak antolatuta. Gaur, Bergarako ikastetxeetako ikasleen bisita gidatua eta umeei zuzendutako ipuin kontaketa saioak izango dira

Maite Txintxurreta BERGARA

Apirilaren 23an izan zen Liburuaren Eguna, eta horren bueltako hainbat ekimen izan dira asteon herrian, Udal Liburutegiaren eskutik. Oraindik, baina, ez dira bukatu ekimenok. Gaur goizean ikasleen bisitak izango dituzte eta arratsaldean, berriz, umeendako ipuin kontaketa.

San Martin Agirre Herri Eskolako, Mariaren Lagundiko eta Aranzadi Ikastolako Lehen Hezkuntzako lehen mailako ikasleek liburutegira bisita egingo dute gaur goizean. Bisita horren barruan, Maite Frankoren eskutik ipuin kontaketa izango dute.

Liburutegiko arduradun Mila Agirrezabalek dio urtero egiten dituzten bisita horiek "aukera polita" direla gainontzean liburutegi zerbitzura jotzeko ohiturarik ez dutenei ere zerbitzua ezagutarazteko.

Bestalde, arratsaldeko seietan, Maite Frankok berak beste ipuin kontaketa saio bat eskainiko du, irekia, eta 3-6 urte bitarteko umeei zuzendua.

Balorazio positiboa

Orain arteko ekintzez "balorazio positiboa" egiten dutela dio Agirrezabalek. Esaterako, astelehenean Patxi Larrion idazle beragarrearekin *Feriatzaileak* liburuaren inguruko solasaldia egin zuten Irizarren, eta 40 pertsona inguru batu ziren. Bertan baka-rrik ez; izan ere, martitzenean eta eguaztenean ere ipuin kontaketa saio bana izan zen, eta deialdiok ere "erantzun zabala" izan dutela nabarmendu du.

Liburuaren egunaren bueltakoa garai berezia izan ohi da liburutegian, baina gainontzean ere, Agirrezabalek uste du zerbitzuak baduela presentzia herrian, eta jendeak ezagutzen duela. Gainera, eskaintza gaurkotua izaten ahalegintzen dira, eta aldiro aldiro material berria ekartzen dute.



Feriatzaileak liburuari buruzko solasaldia Patxi Larrionekin. M.T.



Eraikinen kanpoaldean jarri duten forjatzko errotulua. MILA AGIRREZABAL

Itxura berritua du liburutegiak

Udalak liburutegia prest eta txukun jarri nahi du, eta, erabiltzaileen erosotasuna hobetu eta erabilera errazteko asmoz, geletako berrantolaketa egin da. Bestalde, liburutegiari presentzia emateko eta ikustarazteko, forjatzko horma-irudia ere jarri dute eraikinean.

Irakurgailuek badute jabea

Apirilean zehar Udal Liburutegian mailaguren bat egin duten guztiek liburu irakurgailu bat irabazteko zozketan parte hartzeko aukera izan dute. Aurten bi liburu irakurgailu zozketatu

dituzte, eta badaukate jabea: Angelita Agirrebeña eta Raul Tercero, hain zuzen.

Liburutegiko arduradunek azaldu dute hilabete honetan 80 pertsonatik gorak hartu dutela parte zozketa horretan.

Monzon, Casablanca filmeko protagonistaren pare

'Telesforo ez da Bogart' antzezlanaren taularatuko du bihar, Zabalotegin, Lapurdiko Iduzkilore antzerki taldeak (20:00)

M.T. BERGARA

Atzo iluntzean, Joseba Tapiak eta Koldo Izagirrek *Hari mehe eta tinko hura* Telesforo Monzonen bizitzan oinarritutako ikuskizun musikatua eskaini zuten. Bada, bihar, zapatua, Xabier Mendigurenek idatzitako *Telesforo ez da Bogart* antzezlanaren ikusteko aukera izango da Zabalotegi aretoan (20:00); Udalak Jardunen eta Olaso Dorrea Fundazioaren laguntzarekin antolatuta du. Sarrera 8 euro da.

Lapurdiko Iduzkilore antzerki taldeak taularatuko duen an-

tzezlan horretan, Humphrey Bogart eta Ingrid Bergman *Casablanca* filmeko protagonisten pare jartzen dituzte Telesforo Monzon eta Maria Josefa Ganuza senar-emazteak.

Hala, pelikula hori oinarri hartuta, naziengandik ihesi Euskal Herriatik alde egin behar izan zuten euskaldunen historia dakarte gogora, eta Monzon Marokora eraman zuen *Alsina* itsasontziaren historia. Umorerik ere ez da falta izango kontakizunean. Hamar aktorek hartzen dute parte antzezlanean.

'Konposteroak' datoz herrira

Zirika Zirkus taldeak *Konposteroak* ikuskizuna taularatuko du domekan, apirilak 30, Zabalotegi aretoan (18:00). Umeei eta familiei zuzendutako antzezlan horretan, birziklapenaren gaia jorratzen dute Karton Jauna, Kon Fuso Barruso eta Plasti Anderefioa protagonistek; betiere, umorez. Antzerkia, musika eta zirkua uztartzen ditu emanaldiak. Sarrera: 4 euro.



ZIRIKA ZIRKUS



IMANOL SORIANO

'Go!azen'-ekin liluratuta

Domekan, *Go!azen* telebista saio arrakastatsuan oinarritutako antzerkia izan zen Udal Pilotalekuan, eta protagonistak bertatik bertara ikusteko gogoz zeuden neska-mutuez bete ziren harmailak. Emanaldiaz gozatzeko gainera, bukaeran, eurekin argazkiak ateratzeko aukera ere izan zuten.

Goiena Klubera apirilaren 1etik 30era bitartean bazkidetuz gero, prezio berezia egingo dizugu: **10 EURO BAKARRIK!**

www.goienakluba.com

Eta bazkidetzen zareten lehendabiziko 100ak **100 euroko erosketa txartel baten zozketan sartuko zarete.**



943 25 05 05  kluba@goiena.eus

  688 69 00 07

goienakluba

Euskara irabazle, denok irabazle!

Goiena Klubaren txokoa

Endesa Liga Goiena Klubean!



BASKONIA - UNICAJA PARTIDURAKO 4 SARRERA BIKOITZ DITUGU.
Maiatzaren 7an, 18:30ean Buesa Arenan jokatu den partidurako.

PARTE HARTZEKO: MAIATZAREN 2RA ARTE.

E-postaz: kluba@goiena.eus **WhatsApp:** KLUBA "Baskonia"

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuzaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea.

Eskubidea izango duzue datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezertzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Plateruena Kafe Antzokiari esker

Jon Gurrutxaga & Keu Agirretxea kontzerturako sarrerak ditugu.

Plateruena, Durangon. | Maiatzaren 7an, 13:00etan

Arrasateko Udalari esker

Arrasate Musikaleko Orkestraren eta Goikobalu Abesbatzaren kontzerturako sarrerak ditugu.

Amaia Antzokian, Arrasaten. | Maiatzaren 6an, 20:00etan

PARTE HARTZEKO: MAIATZAREN 2RA ARTE.

E-postaz: kluba@goiena.eus **WhatsApp:** KLUBA "Plateruena / Amaia Antzokia"

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuzaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea.



Eskubidea izango duzue datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezertzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako otordua

ZUMELAGA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntu aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte!

943 25 05 05  kluba@goiena.eus

  **KLUBA Jatetxea**
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Antzerki taldea osatzen duten kideak: Carmelo Muñoz, Lidice Abreu, Iñaki Mata, Marisol Abreu eta Alberto Iñurrieta. M.T.

Antzerki Ezezaguna ezagutzeko ordua

Carlos de Petre dramaturgoak Venezuelan sortutako metodologia berezi batekin landutako antzezlanaren estreinatuko dute maiatzaren 6an Torresoroan: *Agian argian*. Bost kideko lantaldeak hiru urte baino gehiago jardun du obra lantzen

Maite Txintxurreta ANTZUOLA

Maiatzaren 6an, Torresoroako areto nagusian, Txiruli kultur elkarteak *Agian argian* antzezlanaren taularatuko du, 19:00etan. Sarrera 5 euro da. Lan hori Carlos de Petre dramaturgo argentinarrak Venezuelan sortutako Antzerki Ezezaguna izeneko metodologian oinarrituta dago. Herriko jendearen sorkuntza eta

proposamen desberdin bat ikusleentzako aukera da.

Taldea bi venezuelarrez eta hiru euskaldunz osatuta dago. Abreu ahizpek De Petreraren eskutik ikasi zuten Antzerki Ezezaguna, eta hona ekarri dute.

"Aktorea sortzaile autonomo moduan ulertzean datzan metodologia da", azaldu du Marisol Abreu zuzendariak. Hala, "au-

rretiazko ezagutzak eta eskemak apurtzea" da bilatzen dutena.

Lan egiteko era antzerki tradizionalarekiko desberdina da: "Ez datza beste zuzendari batzuen gidoiak hartzean; alderantziz, ikerketa prozesu esperimental baten bidez, aktorea bere pertsonaiaren rolaz jabetzen doa".

Prozesua taldearen eboluzioaren menpe dago: "Lehen fasea

ikerkuntzakoa da, non espresio ariketa ugari izaten diren, eta, pixkanaka, metodologiara pasatzen goaz, zeinetan jarraibideak lantzen ditugun, inozentzia egotzera heltzeko". Urtebetez aritu ziren ikerketan, eta duela hiru urte hasi ziren obrarekin.

Aktoreen bizipenak

Lidice Abreuk azaldu duenez, metodologia horren emaitzak, "lehenik eta behin, norberarendako dira ezustekoak. Prozesu honetan gauzak gertatzen diren bezala gertatzen dira, eta ez aurrez pentsatutakoaren arabera".

Prozesuaren askatasuna izan zen Carmelo Muñoz gehien harritu zuena: "Denak balio du". Espero ez zuen tokietara eramandu bide honek Muñozen pertsonaia: "Ez nago testuarekin lan egitera ohituta, clown munduan aritu izan naiz nagusiki; ordea, oraingoan, testu gehien duena naiz. Hori gertatu da inprobisatzen ari naizenean burura dator-kidana botatzen dudalako. Grazia egitera ohitua nago, eta hemen kontrakoa da, dramatikoagoa".

Iñaki Mata antzuolarrak ere deseraikitze ariketa egin behar izan du: "Aspaldidanik nabil antzerki munduan, eta zailena izan da horren ondorioz nituen hainbat aurreiritzi baztertzea. "Hutsunea bilatzea eta hutsetik hastea izan da nire lana", dio.

Alberto Iñurrieta, berriz, orain arte ez da aktore lanetan ibili. Berarentzat, gogorrena "agertokira atera beharra" izan da. "Baina talde-lan polita izan da, oso prozesu eraikitzailea", dio.

Ikuslearen pertzepzioa

"Zerbait berria eta guztiz originala da, eta ikusleak ere hala jasoko du", dio zuzendariak, jendea antzezlanera gonbidatuta.

Antzezlanaren nondik norakoak

Hiru gizon elkarrekin dira bidean, eta bideari aurre egiteko orduan, zailtasunean eta itxaropenean, konplize bihurtu dira. Aldizka, lagun egiten dien argi bat ere sumatzen da, eta berarekin ordena berria dakar argiak.

Hori da maiatzaren 6an Torresoroan estreinatuko duten *Agian argian* antzezlanaren sinopsia.

Iñaki Mata azaldu duenez, "esperantzarako leihobat zabaltzen da *Agian* izenarekin". Ohiko antzezlan bat izango ez denez, ildo bakar baten partez, ikusleek "norberarengan ezezaguna den zerbait ikustea" bilatu nahi dute. "Misteriora irekitzea eta misterio hori geureganatzea", Alberto Iñurrietak dioen moduan.

Maiatzaren 6an, antzezlanaren ostean, foro bat egingo dute, "bakoitzaren begirada eta esperientzia denon artean konpartitzeko", Mataren esanetan: "Elkartruke hori garrantzitsua da hizkuntza berri honi buruz gehiago ikasteko. Sarri gertatzen da emanaldia ikusi ostean batek ez dakielako zer pentsatu ikusi duen horretaz. Entzuteko gogoia egoten da, eta, osteko solas horretan, sarri, zentzua hartzen diogu ikusi dugun horri", gaineratu du Iñurrietak.

Marijo Deogracias, Nafarroako Hezkuntza Departamentura

Joan den astean antzuolarra kabinete-buru izendatu du kargua hartu berri duen Maria Solana kontseilariak

M.A./M.T. ANTZUOLA

Marijo Deogracias Horrillo (Antzuola, 1973) Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuko kabinete-buru izendatu du Maria Solana kontseilariak.

Informazio Zientzietan lizentziaduna da, EHU (1996), eta Multimedia Komunikazioa EHU-EiTB masterra (2013) eta Gizarte Komunikazio masterra (2014) ditu. Tokiko hedabideetan kazetari zein zuzendari

lanetan jardundakoa da; besteak beste, *Arrasate Press*-en eta Goienan. Kolaboratzaile ere ibili izan da, *Argia* astekarian, ETBn, Euskadi Irratian, Arrosa irrati sarean eta *Mujeres con Ciencia* blogean.

Eusko Legebiltzarrean aholkulari eta komunikazio lanetan ere ibili da bi legegintzalditan.

2014tik hona formakuntzako ikerlari eta kontratatutako ikerlari gisa jardun du EHUren Ikus-entzunezko Sailean.

'Koaderno handia' filmaren emanaldia domekan Torresoroan

Janos Szasz zuzendariaren *Koaderno handia* (A nagy füzet) filma emango dute etzi Torresoroan (18:30), euskarazko azpigituluekin. Denboraldiko azkena izango da, eta David Martin Lucenaren esku egongo da hitzaurrea. II. Mundu Gerran girotuta, helduen munduan bizitzeko "sentimendurik ez izaten" ikasten diharduten bi anaiaren istorioa da.

Txiste kontaketa saioa eguaztenean Landatxopen

Eguaztenean, maiatzak 3, hitzordu berezia izango da Landatxope elkartearen. Txiste kontaketa saioa egingo dute, eta protagonista elkarte kideak eurak izango dira. 18:00etan hasiko da saioa, eta jada badira animatu diren lau kide. Horietaz gain, baina, saioan bertan norbait animatzen bada ere, aukera izango du txisteak kontatzeko.



Azken jardunaldian Zarautzen aurka lortutako garaipena ospatzen, Estalan. IMANOL SORIANO

Erregional Preferentera itzulera esku-eskura

Zapatuan Oreretan Touringen aurka jokatuko duten partidua irabaziz gero, aurtengo helburua lortu eta iaz galdutako mailara itzuliko litzateke Antzuola Kirol Elkarteko lehen taldea. Igoeraz gain, baina, denboraldia lider bukatu nahi dute gorriek

Maite Txintxurreta BERGARA

Bihar, zapatua, 20:00etan izango dute partidua Josu Larrearen mutilek, Touringen aurka, Oretan. Azken jardunaldian, Aste Santuko atsedendialdiaren aurretik, Estalan 4-2 irabazi zioten Zarautzi, hirugarren dagoen taldeari. Horrenbestez, biharko norgehiagoka irabaziz gero, Erregional Preferentera igoko da Antzuola Kirol Elkartea.

Lau jardunaldi geratzen diren honetan, hiru puntu nahikoa dituzte igoera hori lortzeko; izan ere, Zarautzek partidua guztiak irabazita 37 puntu lor ditzake, eta Antzuolak egun 34 ditu, eta gol aldea alde.

Igoera fasean bikain ari dira antzuolarrak, eta etxean jokatu dituzten norgehiagoka guztiak irabazi dituzte; Zarautzen aurkakoarekin, zazpi. Iaz denboraldi bukaera oso desberdina izan zen gorriendako, eta, denboraldi osoan asko sufrituta, maila galdu zuten. Oraingo honetan, beraz, aukera paregabea dute

Lehen Erregionala atzean laga eta Erregional Preferentera itzultzeko.

Partidu erabakigarria

Aste Santuko oporrak tarteko, bi asteko atsedendia izan dute, eta horrek "deskonektatzeko eta indarrak berreskuratzeko" balio izan die, eta, zapatura begira, "gogotsu" dago taldea. Touringen aurka etxeko partidua "nahiko erraz" jokatu bazuten ere, hitzordu gogorra aurreikusten du Ibai Zabalok, taldeko kapitainak: "Zaila izango da, ziur. Etxetik kanpo gauzak asko aldatzen dira, eta eurek asko jokatuko dute; guri gehixeago kostatuko zaigu, baina aukerak sortu eta aprobeztatuz gero, irabaz dezakegu".

LAU JARDUNALDI GERATZEN DIREN HONETAN, HIRU PUNTU NAHIKOA DITUZTE IGOTZEKO

Helburua, lider bukatzea

Iaz galdutako maila berreskuratzeko lehen helburu hori asteburu honetan lortuko balute ere, gorriak ez dira erlaxatuko, eta lehiakortasuna erakutsi nahi dute azkenengo hiru jardunaldietan ere. Izan ere, sailkapeneko lehen bi taldeak igoko badira ere, Zabalok azaldu duenez, denboraldia taldeko lider postuan amaitu nahi dute. Gaur-gaurkoz, bi puntuko aldea dute bigarren den Billabonarekiko: "Alde hori mantendu eta, ahal bada, handitu egin nahi dugu, finala jokatuz ahal izateko".

Azken hiru jardunaldietan antzuolarrak aurkari izango dituzten talde guztiak taulan erditik behera kokatuta daude.

Igoera faseko beste taldean egun Oiartzun da liderra, eta bere atzetik Ordizia dago, puntu bat gutxiagorekin. Beraz, taldeko lider moduan bukatzea lortzen badute, ziurrenik bietaiko bat aurkituko dute antzuolarrak finalean.



NIRE USTEZ

MARIJO DEOGRACIAS

Ez lotsatzeko

8 hamarkada bete dira Intxortan faxistak geratu zituztela. 80 urte, ahalik eta min gehien eragin asmoz, faxistek herritarren kontra bonbak jaurti zituztela. Gertatu zena kontatzen hasi zirela, ordea, ez dira hainbeste urte. Dezentze gutxiago dira.

Orain gutxi Gernikako bonbardaketa bizi izan zuen biktimen baten lobak gogoratzen zuen ondo gogoan duela bere amama zenak zer nolako beldurrarekin kontatu zien bizi izandakoa eta ondotik zabaldu zen isiltasuna, ez kontatzea, gertaera ezabatzeko asmoa. Amamarengandik jaso zuen memoria bizia, bonbardaketatik bizirik atera zirengandik testigantza jaso duten azkeneko belaunaldia. Joan egin dira gutxika orduko umeak; desagertu zuzeneko lekukotzak. Hori dela eta, lekukotza jaso dutenen zein gainerakoon ardura da gertatu zena errepika ez dadin bermatzea. Horixe gogoan errefuxiatuak ere izan dituzte gogoan aurten Gernikan; orduko biktimak eta egungoak egoera berbera bizitzen ari direlako. Eta ea guk zer egin genuen galdetzen digutenean, ez lotsatzeko.



EIBAR S.A.D.

Hiru antzuolar, liga txapeldun

Eibar futbol taldeko ohorezko mailako neska kadeteak liga txapeldun dira, eta talde horretan dihardute hiru antzuolarrak: Uxue Iparragirrek, Jone Jauregik eta Nagore Otadiuk. Argazkia Lazkaon ateratakoa da, Goierri Gorri taldearen aurka 0-4 irabazi ostean txapeldun bilakatu zirenekoan. Zorionak, beraz, lorpen horretan parte hartu duten armaginen antzuolarrak!

Maiatzaren 5era arte eman daiteke izena udalekuetan

Datorren eguaztenera arte (maiatzak 5) eman daiteke izena udaleku irekietan. Uztailearen 3tik 13ra izango dira, eta aurten ere azken bost egunetan ahietarrak etorriko dira parte hartzera.

Udaletxean egin daiteke izen ematea, aurrez eskolan banatutako orria eta ordainketa ziurtagiria aurkeztuz. *On line* ere egin daiteke, Udalaren webgu-

nean eskuragarri dagoen loturaren bitartez (www.antzuela.com). Honako bi kontu hauetan egin daiteke diru sarrera: Kutxabank (2095-5023-44-1060024477) eta Euskadiko Kutxa (3035-0040-13-0400900009).

Bestalde, udaleku horietan begirale jardun nahi dutenek ere maiatzaren 5era arte aurkez ditzakete eskaerak. Eskaera orria, baldintzak eta informazio guztia Udalaren webgunean eta udaletxeko idazkaritzan daude eskuragarri.

Udalak 68.998 euroko soberakina 2016an

Zertara erabakitzeke badago ere, 2017ko inbertsioetara bideratuko dute diru hori. Martitzeneko osoko bilkuraren hasieran, bestalde, Kanuto Ugalde izan zuen gogoan alkateak. Elgetako zinegotzia zen eta 1937ko apirilaren 25ean fusilatu zuten

Larraitz Zeberio ELGETA

Iazko aurrekontuaren likidazioa eginda, 68.998 euroko soberakina itxi du 2016a Elgetako Udalak. Gotzon Goikoetxea idazkariak argitu du 2016ko likidazioan Udalak ez duela gastuaren araua betetzen, baina ez betetze hori diru zaintzako soberakina ez erabiltzearen ondorioz gertatu dela eta, hortaz, ez dela horrelakoetan legeak aurreikusituen duen plan ekonomiko finantzarioa egin beharrik izango.

Aurreikusitako diru sarreraren zein gastuaren betetze maila %90tik gorakoa izan dela azaldu du Iraitz Lazkano alkateak, eta esan du alde hori gehienbat egiterik izan ez diren inbertsioengatik izan dela. "Balantzea azken urteetan egon den orekatuena izango da", esan du, eta kobragaitz modura izendatutako zenbait kopuru kobratzeko egindako ahaleginak isla izan duela likidazioan. "Aurtengo aurrekontuan erabili ahal izango dugu soberakin hori. Diru laguntzen arabera izan daiteke baserritarren batzordeko inbertsioak ukitu behar izatea".

Oposizioiko Mikel Larreak kobragaitzen inguruan esan zuen portzentaje "nahiko handia" iruditzen zitzaioela. "Ikusita ahalegina eginez gero diru-bilketa hobetzen dela ahalegin horretan jarraitu beharko da", esan zuen.

Goi-tentsioko lerroa

Astelehenean jaso du Udalak Gueñes-Itsaso lerro elektrikoa dela-eta aurkeztutako alegazioaren erantzuna. Lazkanoren ustez "oso ondo oinarritutako alegazioa da", baina Red Electrica de España ez du aintzat hartu. "Orain uste dut hamabost eguneko epea dugula erantzuteko eta saiaturako gara berriz ere gure zein bidegabeki kaltetuko diren hainbat eremuren interesak defendatzen zentzu handirik ez duen proiektu honen aurrean".



Elgetako udalbatza, martitzenean egindako osoko bilkuran. L.Z.

EZ DITUZTE KONTUAN HARTU UDALAK GOI-TENSIOKO LERROARI EGINDAKO ALEGAZIOAK

Alkateak azaldu zuen Udalak aurkeztutako alegazioak bi puntu hartzen zituela bereziki kontuan. "Batetik, kontuan hartu barik daudela udaletxearenak diren hainbat bideren erabilera bai eraikuntza lanetarako bai etorkizuneari dorreetara iristeko. Udaletxea ez da kaltetu moduan agertzen". Egoarbitzako, Goimendirako eta Azkonabietarako bideak aipatu zituen. "Bestetik plan orokorrean babes bereziko eremu bezala agertzen diren hainbat gunetan kalteak eragingo direla jasotzen da: zuhaitzak botako dira —pagoak eta haritzak—, eta airetik pasako da lerro hori".


Gu Geu Elgetako Mikel Larrea ere harrituta agertu da jasotako erantzunarekin. "Mehatxu tankera hartzen diot lehen paragrafoari", esan zuen. "Baina azken finean pentsatu zitekeen

erantzun hori etorriko zela horrelako entitate baten aldetik".

Eztabaida erraustegiaren harira Saioko gatazka alkateak oposizioari luzatutako galdera batekin eragin zuen. "Erraustegiaren inguruan hainbat galdera planteatzen genituen mozio baten aurka bozkatu zenuten nahiz eta galdera horien erantzunik ez eduki. Larritzen zaituzte orain Gipuzkoa hipotekatu duen kontratu hori ustela izan daitekeen enpresa batekin sinatu izana?". Oposizioak erantzun zuen egindako lehiaketa publikoan hautagaien gaitasun teknikoak eta ekonomikoak baloratuko zirela. "Okerkeriak egin badituzte beste edozein bezala epaitegietara joan beharko dira", esan zuen Eduardo Zubiaurrek. Gaiak luzerako eman zuen eta beste behin hondakinen kudeaketaren inguruko eztabaidan murgildu ziren udal ordezkariak.

Eguneko zentroaren esleipena

Gai zerrendan egon arren maiatzeko osoko bilkurarako utzi du udalbatzak erabakia. Garantia aurkeztea falta dela-eta mahai gainean utzi dute gaia asteen.



Kantsatzeke mendi taldeko Ibai Etxaniz, Jose Mari Beristain presidentearrekin. L.Z.

Umeendako bi irteera egingo ditu mendi taldeak aurten

Andastora egingo dute lehenengoa maiatzaren 7an eta jakinarazi dute zabalik dutela izena emateko epea

L.Z. ELGETA

Egitasmo berria du esku artean Kantsatzeke mendi taldeak. Neska-mutikoendako bi irteera antolatuko dituzte aurten lehen aldiz. "Helburua da umeen artean ere mendirako afizioa sortzea", adierazi du taldeko presidente Jose Mari Beristainek. Bigarren irteera udazkenean egingo dutela adierazi du, urriaren 10ean, hain zuzen ere. Irteera horiek antolatzeko ardura hartu duen Ibai Etxanizek eman ditu azalpen gehiago: "Familian egiteko irteerak izango dira; izan ere, eskatzen dugu umeak arduradun batekin etortzeko. Lehena izatera, ez dakigu zenbat lagunek emango duten izena, eta, oraingoz, asmoa da autoetan joatea". Gutxienez pare bat mendi gidari izango dira eta taldea 09:00etan abiatuko da Elgetatik. Asmoa da mendian lasai ibili eta bazkaldu ostean itzultzea. "Ez dugu

adin tarterik ipini. Umeek ipiniko dute erritmoa", esan du. "Arrazolatik abiatuko gara. Udalatx eta Anboto artean dagoen tontortxo bat da Andasto eta bide izugarri polita da: pagadi batzuk pasatzen dira, erromatar galtzada eta errekatxo ere badaude...". Etxanizek azaldu du Soraluzeko taldeak umeendako egiten dituen irteerak hartu dituztela oinarri: "Gehienez 600 bat metroko desnibela eta 7-9 kilometroko distantzia". Interesatuak maiatzaren 4rako eman behar dute izena. Prezioa da sei euro helduendako eta lau euro adingabeendako.

Helduak Kanpezura domekan

Neguko hilabeteak kenduta, hilero antolatzen du irteera bat Kantsatzekek. Domekan Ioar ingurura joango dira. "Dozena bat lagun elkartu ohi gara, batez beste", esan du Beristainek.

32 neska-mutiko hasi berria den euskal dantzen ikastaroan

Eibarko Kezka Dantza Taldeko Irati Kortabitarteren eta Olaia Gabirondoren gidaritzapean eguaztenean egin zuten lehen saioa, Spaloian. Aurrerantzean eguaztenean egingo dituzte entseguak: txikien taldeak 18:00etan, eta gaztetxoak 18:45ean. Euskal dantzak ikastearekin batera jaietako Herri Eguneko ikuskizuna prestatuko dute.

'Zumba' maratoia dago iragarrita maiatzaren 13rako

Iazkoak arrakasta handia izan zuen, eta aurten berriz egingo dute. Spaloia kafe antzokian izango da, maiatzaren 13an, 10:00etatik 12:00etara eta prezioa hamar euro da —ikasleendako zortzi euro—. Interesatuak deitu egin behar dute izena emateko: Eneritz 680 68 28 83, Janire 666 71 20 73 edo Maria Luisa 615 74 68 89.

Egia osatzen jarraitzeko ahaleaginean asmo argia

Frankismoaren zigorgabetasuna amaitzeko aldarria egin dute Elgetan. Lau egunez askotariko ekitaldiak izan dira, eta herriko 21 biktimaren oroimenez beste horrenbeste 'Egiaren iturria' banatu dituzte Udalak eta Intxorta 1937 kultur elkarteak

Larraitz Zeberio ELGETA

Intxortako erresistentziaren 80. urteurrena ez da Elgetan ohar-kabea pasa. Proiekzioak, antzezlanak, hitzaldiak, bisita gidatuak, memoria taldeen azoka, borrokaldien errekreazioa, omenaldi ekitaldia eta bazkaria egin dituzte apirilaren 20tik 23ra bitartean. Frankismoaren zigorgabetasunarekin amaitzeko esku dute hainbat erakundek eta horrekin batera egia, justizia eta erreparazioa aldarrikatu dituzte. Frankismoaren krimenen aurkako kereilan parte hartzeko dei ere egin dute.

Domekako omenaldi ekitaldian, bestalde, gerra sasoiaren hildako elgetarrak izan zituzten gogoan, eta horietako 21 izan ziren *Egiaren Iturria* oroigarria jaso zutenak. Noski, senitartekoak gerturatu ziren oroigarria jasotzera.

Egia osatzeko lanetan aurrera

Ekitaldi horretan egindako adierazpenetan edozein informazio edukiz gero emateko dei ere egin zuen Intxorta 1937 elkarteak Julia Mongek. "Fronte honetan erresistenteen bandoan 220 bat lagun hil ziren. Ehun inguruk lurperatuta jarraitzen dute, eta ez dakigu non", esan zuen. Datu gehiago eman ditu Iraitz Lazkano alkateak. "Erresistenteen bandoan egunero kontabilizatzen zituzten hildakoak plazan eta jasota dago informazio hori. Ehun bat hildakorekin hobi bat bada nonbait Elgetan", esan du.

Hilerrri inguruan lurperatuko zituztela da ustea. "Behin plazara ekarrita inguruan lurperatuko zituzten hildakoak, eta pentsatzekoa da hilerrri inguruan izango zela. Kontua da Elgetako hilerritik ere sarri atera izan direla hezurak, apur bat, edonola. Gerta daiteke dena nahastuta egotea, baina Elgetan nonbait ehun bat hildakorekin hobi bat badela seguru".



Martxa, domekan, frankismoaren zigorgabetasuna salatzen. ARGAZKIAK: GOIENA



Aureskua domekan omendutako biktima elgetarren oroimenez.



Memoria azoka, domekan, plazan.



Robert Egby hitzaldia egiten, barikuan.

Frankistek ere bajak izan zituzten. "Eibarrera jaisten zituzten hildakoen gorpuk eta baja guztiak erregistratuta gelditzen ziren. Marokoarrekin, ordea, bestela egiten ziren gauzak. Hil orduko lurperatzen zituzten. Pentsatzekoa da Miraballes eta Gureixa inguruan beste hobi bat egon daitekeela".

Ez da denbora luzea gizonetako batek gerra sasoiaren hildako bi lagunengandik kokapena eman duela Udalak zabalduko testigantzen bulegoan. Bergarako lurrak dira gaur egun eta kokapena markatuta gelditu da. Informazioa Bergarako Udalari helarazi zaio, lurpetik ateratzeko unearan zain.

Mikel Urdangarin eta Herrixa Dantzan aste bukaeran Spaloian

Zornotzarrak 'Margolaria' diskoa aurkeztuko du gaur eta dantzazaleek domekan dute hitzordua Monterorekin

L.Z. ELGETA

Mikel Urdangarin Spaloian izango da gaur, barikua. *Margolaria* izeneko disko berria aurkeztuko du. Banda formatuan dator oraingoan zornotzarra. Rafa Rueda, Koldo Uriarte, Angel Celada, Jon Cañaveras eta Nika Bitchiasvili ditu bidelagun. Sarrera da hamabi euro leihatilan eta bederatzi euro aurrez erosita.

Dantzarako saio bereziak

Domekan, berriz, apirileko Herrixa Dantzan saioa egingo dute antzokian, 19.00etan. Patxi Mon-

terok gidatuko du eta sarrera doan izango da. Horrekin batera, bi dantza saio berezi iragarri ditu Monterok hurrengo hilabeterako. Gerard Godon soinu-jole frantziarrekin egingo dute Herrixa Dantzan maiatzaren 7an. "Hogei urteko ibilbidean bederatzi CD argitaratu ditu, guztiak ere dantzarako musikaz osatuta", esan du Monterok. Maiatzaren 21ean, berriz, Kantu eta Dantza Eguna egingo dute Elgetan. Bazkaria eta dantzaldia iragarri dituzte Jainaga eta Narbaiza trikitilarietara.



L.Z.

Ipuinekin betetako kutxak

Astelehenean egin zituen Udal Liburutegiko arduradunak Liburuaren Nazioarteko Eguna erekin lotutako ekintza bereziak. Mahaia ipini zuen plazan eta horrekin batera *Kutxak* izeneko ipuin kontalaritza saioa egin zuten Beatriz Egizabalek eta Cesar Marcosek 40 bat neska-mutikoren aurrean. Hainbat kutxatan gordetako ipuinak askatu zituzten plazan.

Erretiratuek irteera antolatu dute maiatzaren 10erako

Egun osoko irteera antolatu du Xalbadorpe elkarteak. Ordiziarra eta Donostiara egingo dute txangoa. Bazkaria, berriz, Aginagako sagardotegian izango dela eman dute aditzera. Interesatuek bihar, zapatua, eman behar dute izena. Elkarteko kideak Ozkarbi elkartearen izan-go dira 11:00etatik 12:00etara. Prezioa 30 euro da.

Kontxi Idigorasen akuarela ikusgai Haizea tabernan

"Udaberria iritsi da Haizea tabernara", adierazi du Idigorasek. Urteak dira margotzen duela eta hainbat erakusketa ipini ditu aurretik ere Elgetan. Jakinarazi du akuarela bilduma duela ikusgai egunotan; izan ere, hainbat lan zintzilikatu ditu Haizea tabernako hormetan. Herrietarrak erakusketa ikustera gonbidatu ditu.

Herriko biodibertsitatea lantzen ari dira ikasleak

Herrian dauden arazoak identifikatzeko eta haiek konpontzeko irtenbideak aztertze saioak egin dituzte Agenda 21 programaren barruan. Aste honetan egin dute bilera lehentasunak finkatzeko eta udal ordezkariari egin beharreko proposamenak aukeratzeko



1a 2.000k ikusi zuten Natur Eskolaren *Okilak eta biodibertsitatea* erakusketa. NATUR ESK.

Oihana Elortza. OÑATI

Biodibertsitatea da Agenda 21en barruan herriko ikastetxeetan aurten lantzen ari diren gaia. Ez da gai arrotza, ordea. Ikastetxeek badute horren berri eta euren curriculumean sartuta dute; maila guztietan egiten dute lanketa ezberdinen bat gai horren inguruan. Aurten, baina, modu berezian ari dira jorratzen, Araziren laguntzarekin.

Duela hamar urte hasi ziren Agenda 21 programarekin Oñatiko ikastetxeetan. Orain arte ura, energia, mugikortasuna, hondakinak eta elikadura landu dituzte, adibidez. "Oñatin dugun biodibertsitatea aztertu beharko dute, zein arazo dauden identifikatu eta arazo horiei aurre egiteko proposamenak aurkeztu. Azkenik, alkatearekin elkartuko dira hobekuntza proposamen horiek konpartitzeko", dio ekimena koordinatzen ari den Araziko Nerea Ibañezek.

Denak

Eskolako Agenda 21 garapen iraunkorra bultzatzeko helburua duen heziketa programa da, Ibañezen esanetan, ikasleen artean ohitura onak bultzatuz: "Alde batetik, gai zehatz bat lantzen dute oso modu lokalean. Hau da, tokiko errealitatea eza-

gutuz. Baliteke gazteek hobeto ezagutzea Afrikako animaliak Oñatikoak baino. Hortaz, programaren helburuen artean badago bertakoa ondo ezagutzea, ezagutzen dena maitatzen baita. Beste alde batetik, udal ordezkariarekin harremanak sendotzen dira eta ikasleek ikusten dute udaletxea gertuko tokia dela".

Haur Hezkuntzatik hasi eta Batxilergorainoko ikasleek hartzen dute parte Agenda 21en; aurten 1.555 ikaslek. "Irakasleekin ikasturte osoan zehar elkartzen gara. Landu beharreko material didaktikoa ematen diegu, maila bakoitzean lantzeko eta gero saioak egiten dituzte ikasleekin, herrian dauden arazoak identifikatzeko eta haiek konpontzeko irtenbideak aztertze. Herriko zerrenda bateratua sortzen da, ikastetxe bakoitzeko ordezkariak oinarri hartuko dutena", dio Nerea Ibañezek.

Udal ordezkariari

Ikastetxe bakoitza ikasturte hasieratik ari da gaia lantzen ikasle eta irakasleek elkarrekin landutako eta adostutako proposamenak udal ordezkariari jakinaraziko dizkiete. Osoko bilkuren aretora joango dira ikasleak maiatzaren 24an.

Ikastetxeetan nola ari diren jorratzen



Arantzazu Lete.

Elkar Hezi

"Ikastetxean dauden zuhaitzen eta zuhaixken inbentarioa egin dugu eta haietan txorientzat habiak ipintzea erabaki dugu. Gabonetako azoka iragartzeko kartelak biodibertsitatearen gaiarekin lotura zuzena izan zuen: aztarna ekologiko kontzeptua islatuz, bi oin irudikatu genituen eta azoka horretan Oñatiko Naturzaliak boluntariotza taldea gonbidatu genuen eta bertan parte hartu zuten informazioa ematen. Natur Eskolako erakusketa ikasle gehienek ikusi dute eta hainbatek *Las 4 estaciones* dokumentala ere bai. Natur Eskolara ere joan gara eta Arazik maila bakoitzerako prestatutako fitxak ere landu ditugu".



Lierni Axpe.

Txantxiku ikastola

"Aurten biodibertsitatea oinarri hartuta gure ikastolaren diagnostikoa egin dugu eta ikastola *berdeagoa* izateko konpromisoak hartuko ditugu. Gurasoen parte hartzea ere bide beretik doa. Ikastolarako jasangarritasun ikuspegia duten jarduera bereziak antolatzen dituzte. Ikastolarako egiten diren ekintzez gain, Udalera begira dagoen proiektua gauzatzen dugu urtero. Ikastolan, gelaz gela, biodibertsitateari buruzko Unitate Didaktikoa lantzen gabilta. Orain artekoan oso gustura dabilta ikasleak gai honekin; bereziki, espezie berriak ezagutzeko eta ekosistema ezberdinak bisitatuz".



J. Zubillaga eta A. Beloki.

Urgain

"Eskolan eta inguruan dauden zuhaitzen izenak ikasi eta txartelak jarri ditugu, adibidez. Basoetako animaliak ezagutu ditugu; baita inguruko espezie inbaditzaileak ere. Emakumeen Eguna eta bioaniztasuna lotze aldera, *Wangari y los árboles de la paz* bideoa ikusi genuen. Ikastetxean eta inguruan txori-habiak eta janlekuak jartzea da aurreikusten ditugun beste ekintza batzuk; baita hegaztien eta animalien argazki bidezko inbentarioa egitea, besteak beste. Araztegiara, Ollerietara, Zumaiaiko flyschera, Gesaltzara eta Lemoizera egin diren irteeretan parte hartu dute ikasleek, baita Natur Eskolako ekintzetan ere".

Musika kontzertuekin hasiko dira gaur Olabarrietako jaiak

Musika kontzertuek eta karaokeak emango diete hasiera Olabarrietako jaiak gaur, 22:00etan. Zapatuan, herri kirolak egongo dira 11:30ean eta umeendako jolasak 17:00etan. Erromeria eta kontzertuak ere egongo dira. Astelehenean jokatuko dira pilota txapelketako finalak. Gauean autobusak egongo dira.

'Nosotras, mujeres del Euskalduna' lana ikusgai martitzenean

Langileen Egunaren harira, *Nosotras, mujeres del Euskalduna* dokumentala emango dute datorren martitzenean, maiatzak 2. Arazit Rodríguezek zuzendutako lanak Euskaldunako Ontzioletako borrokaren memoria jasotzen du, emakumeen ikuspegiarekin. Zinema aretoan izango da, 19:00etan.

Plater tiroketa egingo dute zapatuan, Pago-Usok antolatuta

Txopekua tiro zelaian, plater tiroketa txapelketa jokatu da bihar, Pago-Uso elkarteak antolatuta. Modalitatea foso unibertsala izango da, 25 platerera. Goizeko saioa 10:30etik 13:00etara izango da eta arratsaldekoa 15:30etik 17:30era. Beharrezkoa izango da federazioko txartela eguneratua izatea.

Desfibriladorea erabiltzen ikasteko saioak egingo dituzte

Debagoieneko Gurutze Gorriak antolatuta, desfibriladorea erabiltzen ikasteko ikastaroa egingo dute maiatzaren 5ean eta 6an. Zortzi orduko ikastaroa izango da eta titulu ofiziala banatuko dute. Matrikularen prezioa 85 euro da. Izena emateko edo informazioa eskatzeko: altodeba@cruzroja.es edo 678 40 15 86.

1981eko kintadako afaria maiatzaren 6an egingo dute

Maiatzaren 6an izango da 1981eko afaria Etxeberria jaitzean. Hor sartzen dira 1961eko irailaren 1etik 1962ko abenduaren 31ra arte jaiotakoak. Izena emateko bideak, hauek: 688 80 73 49 (Kepa Urteaga), 647 24 75 98 (Ernesto Kortabarria) edo 645 73 24 12 (Jabi Agirre). Meza eta poteoa izango dituzte aurretik.

Herrian oinez ibiltzearen onurak azalarazi dituzte

'Bagabiltz' proiektuaren barruan, eskolarako joan-etorria oinez, patinetean edo bizikletan egitea ona dela arrazoitzeko argudioak ematen dituen bideoa landu dute ikastetxeek eta Udalak. Herriko puntuak lotzen dituen mapa ere atera dute

Oihana Elortza OÑATI

Udalarekin batera, ikastetxetara oinez, bizikletan, patinetan edo patinetean joateko bideak landu dituzte herriko ikastetxeek azken ikasturteetan eta horrek duen garrantzia eta onura berresten duen bideoa aurkeztu dute aste honetan.

Irakasleek, gurasoek, ikasleek zein udal ordezkariak, guztiak arrazoi bat baino gehiago eman dituzte horrekin jarraitzeko, "herri atsegino baten alde". "Konturatu gara umeak biziago, aktiboago, datozela. Ingurumena zaintzeko modua ere bada, gainera", dio Maite Aiastuik herriko irakasleen izenean. Lierri Axpe izan da gurasoen ordezkaria: "Gu ere horrela joaten ginen ikastolara, baita eskolatik etxera ere. Bizipen haiek egungo haurrek ere izatea gurako genuke". Ikasleen izenean Aiert Alberdik hitz egin zuen bideoaren aurkezpenean: "Taldean, lagunekin joaten gara eskolara



Eguazten iluntzean egin zuten aurkezpena udaletxean. O.E.

eta oso ondo pasatzen dugu elkarrekin. Gainera, kutsadura gutxiago sortzen dugu".

Mapa

Ikasleen laguntzarekin herriko lagune batetik bestera zer distan-

tzia dagoen neurtu dute, metrotan eta minutuetan, eta koloretako mapa batean jaso. "Horikusten da distantziak ez direla handiak. Denbora gutxian hel zaitezke herriko edozein puntutara", esan du Nerea Zubiak.



NIRE USTEZ

JOSE LUIS MADINAGOITIA

Goi karguak eta herritarren heziketa

Ikusi dut Ipar Amerikako buru dan Trump harro asko bere herritarrei esaten bere eskuetan dagoela "bonba guztien ama" dena. Hori gutxi balitz, baita bota ere Afganistanen, 100 bat lagun heriotza lortuz. Gutxiago ez izateko, Putin errusiar buruak esan du bere armategian dutela "bonba guztien aita", eta honek ere izugarritzko suntsiketa egiteko gaitasuna duela. Hurbilago, guztiok jakin dugu Blesaren eta Ratoren epaiketaren emaitza, diru kantitate dezente euren poltsikoetara desbideratzeagatik "txartel beltzen" jokoarekin. Epaia errudun sententziatu ondoren, nola izan daiteke Auzitegi Nazionalak espetxetik libre uztea biak? Eta zergatik? Euren portaera prozesala erabat zentzuduna izan delako.

Eta nire galdera da, zer ikasten du herriak horrelakoekin? Pertsonak hiltzea beharrezkoa dela? Dirua lapurtu arren eta fiskoari iruzur egin arren, ondoren epaiketako portaera zentzuduna bada, nahiz lapurtutakoa ez itzuli, ez dela ezer pasatzen? Bitartean, gure ikastola, eskola eta unibertsitateetan maisuak saiatzen ari dira behar dan formazioa ematen. Zenbait ordu beharko dira horrelako egoera bat zuzentzeko?

Ekintzaileei laguntzeko zerbitzua eskatu du EAJK

Negozio bat ireki edo lan irteera berriak bilatzen dituztenek euren proiektuak abian jartzeko laguntza izan dezaten, Udalak aholkularitza zerbitzu eraginkorra eskaintzea proposatu du EAJKo udal taldeak. Adituen gaitasun eta eskarmenaz baliatu eta ekintzailetza sustatzeko *mentoring* programak abian jartzea ere planteatzen du EAJKo

ko udal taldeak. Horrez gain, jarduera ekintzaileak sustatu eta sendotzeko eta horiei jarraitzea emateko, adituen prestakuntzaz eta eskarmenaz –MUKo Enpresagintza Fakultatea...– baliatu nahi du Oñatiko EAJKo udal taldeak. Bestalde, langabeak lan munduan txertatzeko formazio ikastaroak antolatzea eskatera egin dio EAJKo Udala Gobernuari: "Gure helburu nagusia da ekonomia eta tokiko enplegu bultzatzea udalerriko enplegarritasuna hobetzeko".

"Lehen saioak 20. Korrikaren aitzakian egindakoak dira"

JULEN IRIONDO 'IKUSTENDA'

Bakarkako egitasmo baten dihardu kazetari oñatiarrak

O. E. OÑATI

Eguenean –21:00–, maiatzak 4, estreinatuko da Goiena telebistan *Ikustenda* egitasmoaren lehenengo saioa. Saioa sarean ere badago lehenagotik –bigarrena ere bai–. Izan ere, hori izango da jarduteko modua: aurrena www.ikustenda.eus-en jarri, eta gero Goiengan eman.

Zer dela-eta erabaki duzu zeure proiektu bat martxan jartzea, eta zer ikusi ahalko dugu bertan?

Askotariko lanak egin ditut Goiengan; gehien bete nautenak entretenimendurako saioak izan

dira, telebistakoak: *Ekogune*, *Pedalka*... Jendeari ere gustatu zaizkiola sumatu izan dut. Halakoak egiteko nahi beste aukera ez –baliabideak ere mugatuak direlako–, eta bide berri batean saiatzea pentsatu dut. 20. Korrikaren aitzakian eta Debagoieneko hiru euskaltzalerekin egindako saioak dira aurrenekoak. Patxi Goikolea arrasatearra –bertso eskolen sortzaile–, Xabier Ugarte oñatiarra –gitarra-jotzailea, besteak beste– eta Anaje Narbaiza bergararra –Elayko langilea– dira, eta euren ibilbi-



Julen Iriondo. GOIENA

dearen edo lanen errepasoa agertuko da saioetan. Bakoitzak du bere esparrua, baina denek dute lotura berezia euskararekin. Aurreneko saioan, zehazki, Antzuolako Elay enpresako langileak eta lana bera euskalduntzera bidean egindako ahalegina

izango da hizpidea, horretan zeresana izan zuen Anaje Narbaizarekin. 80ko hamarkadan hasi ziren Elayn hizkuntzarekiko ardura erakusten, eta 90ekoan jarri zuten martxan Euskal Herriaren aitzindari izan zen Euskara Plana. Gerora etorri dira beste hainbat eta hainbat enpresa, baita Antzuolako beste bi nagusiak ere, Erreka eta Goizper, eta hirurak lagungarri dira euskarak herrian, gaur egun, duen osasun onean. Enpresa haietako ordezkariak eta Beñardo Kortabarria alkatea ere azalduko dira saioan.

Eta hauen ondotik?

Askotariko pertsonak, gaiak... nahi nituzke saioetan jaso, Debagoieneko jendea eta kontuak... Martxan diren hurrengo saioak bizitza erdi kirolari eskaini dioten hiru laguni buruzkoak dira:

Reyes Azkoitia, Xabier Infante Artza eta Josu Larreategi. Gerora, nahi nuke *Pedalka*-ren gisako saioaren bat ere egin.

Eta baliabideak? Ekonomikoak, esan nahi dut.

Nere buruari gustukoan dudana hori egiteko aukera bat eman eta, horrez gain, neure ekarpena egin nahian hasi dut bide hau, baina argi dago proiektuak bideragarri izan behar duela, gerora izango bada. Bailarako merkatariei promozio bideoak eskaintzen ari naiz; enpresetan ere joko dut atea. Debagoieneko eta debagoienarrei buruzko eta entretenimendura bideratutako euskarazko egitasmo hau laguntzeko ekarpen oro ondo etorriko da. Edozertarako, baita kritike tarako edo proposamenetarako ere, ikustenda@gmail.com da kontakturako bidea.



Oñatiarrak garaipena ospatzen, Ford Mugarriren aurka jokatu ostean. ARATZ LOSADA

Burgosen jokatu dute oñatiarrek igoera fasea

Igoera fasean jarduteko txartela Ford Mugarri Arrasateren kontrako finalean eskuratu ostean (34-24), Izarraitz Muñoz Aloña Mendikoek hiru aste dituzte Burgosen jokatu duten fasea ondo prestatzeko

Iker Oñate OÑATI

Lehen Maila Nazionalerako igoera fasean egoteko txartela erdietsita –asteburuko bi partiduak irabazi eta gero–, Izarraitz Muñoz Aloña Mendikoak aurrera begira jarri dira dagoeneko. Burgos izango dute hurrengo geltoki –aste barruan aditzera eman dutenez–. Bertan jokatu dute igoera fasea, maiatzaren 12 eta 14 bitartean.

Asteburuko atzean utzita, Burgosko norgehiagokei begira jarri da taldea, helburu garbi batekin. "Fasean egon ahal izatea saria da guretzat. Beraz, gozatzera joango gara", esan du Aitor Aranburuk, Izarraitz Muñozeko entrenatzaileak.

Sei multzotan banatuta

Guztira, sei multzotan banatu dituzte igoera faserako sailkatu diren taldeak; lau talde daude horietako bakoitzean. Multzo bakoitzeko lehenengo taldeez gain, bigarren postua erdietsi dutenen artean emaitza onenak

lortzen dituzten hiru taldeak ere mailaz igoko dira.

Hirugarren multzoan dira oñatiarrak; UBU San Pablo Inmobiliaria burgostarrak, BM Maristas iruindarrak eta Iplacea madrildarrak izango dituzte aurkari.

Atzera begira, asteburu borobila Asteburuan Oñatin bizi izandako esperientziari dagokionez, Aranburu pozik dago jokalarien errendimenduari: "Jokatze gogo handia erakutsi zuten; agerian geratu zen fasean esku hartzeko duten ilusioa. Oso ondo kudeatu zituzten nerbioak".

Oñatiarrek norgehiagoka serioak jokatu zituzten: gogor jardun zuten defentsan, eta erasoan,

SEI MULTZOTAN BANATUKO DITUZTE MAILAZ IGOZKEKO AHALEGINEAN DIHARDUTEN TALDEAK

berriz, eroso, talde-lanari esker, batez ere. Horrek, nola ez, eragina izan zuen asteburuko emaitzetan. Zapatuan 29-22 irabazi zioten Urduliz Eskubaloia taldeari; eta domekako finalean, bestalde, 34-24 gailendu zitzaizkien arrasatearrei.

Zaleek, berriz, gogoz jardun zuten; bete egin zuten kiroldegia, eta gozatu ederra hartu zuten taldearen garaipenekin. Hori islatzen zuen, behintzat, harmailetan sorturiko giroak. Haien laguntza eskertu du Aranburuk. "Ikaragarria izan zen Zubikoan sorturiko giroa. Hunkigarria da harmailak horrela ikustea. Ezin daiteke hitzez azaldu", adierazi du.

Bigarren taldea, mailaz igota

Muñoz Izarraitz Aloña Mendik, bigarren taldeak, igoera erdietsi zuen, liga irabazita; Gipuzkoako Lehen Lurreldeko Txapelketan jardungo dute hurrengo denboraldian. Martxoaren 5ean ziurtatu zuten igoera.



IMANOL SORIANO

Herriko Futbol Txapelketa

Herriko Futbol Txapelketako finalak jokatu ziren zapatuan. Batetik, Kopa erdiestera bidean, Shatoken Moira eta Kili-Kolo taldeak lehiatu ziren; 4-0 irabazi zuen Kili-Kolok. Bestetik, Ligako finala ere jokatu zen; Albok eta Kalañatasaray ziren finalistak. 2-2 amaitu zen partidua, eta penaltietan erabaki behar izan zuten txapelketa. Azkenean, Albokek irabazi zuen.

Kirol instalazioen plangintza egiten ari da Oñatiko Udala

Kirol instalazioen diagnostika egiten eta etorkizuneko beharrak planifikatzen dihardu Udalak; betiere, testuinguru ekonomikoa aintzat harturik.

Gaia herritarrekin batera landu guran, talde eragilea sortu dute; herritarrek eta eragileek osatzen dute taldea. Egun dagoen kirol azpiegituraren eta etorkizun laburrean beharko denaren diagnostika egiten dihardute uneotan kideek.

Lan horretan, panel informatiboak eta proposamenak jasotzeko harrera-gunea jarri dute kiroldegian; herritarrek gaur arte helaraz ditzakete proposamenak.

Partidu erabakigarria saskibaloiko lehen taldearentzat

Partidu erabakigarria jokatu du saskibaloiko lehen taldeak zapatuan, 18:00etan. Salleko Renault Autonervion talde bizkaitarra izango du aurkari; sailkapenean berdinduta daude bi taldeak, zazpi garaipenekin.

Galtzen duenarentzat izango da hamabigarren postua –14 talde daude txapelketan–; eta litekeena da denboraldia hamabigarren postuan amaitzen duen taldeak maila galtzea.

Gainera, oñatiarrek etxean jokatu duten azken partidua izango da zapatukoa, hurrengo astean amaituko baitute txapelketa. Barakaldon; Paules Skoda taldearen aurka lehiatuko dira.



Aurreko edizioako erakusketa herriko plazan. ILUNPETAN ARGAZKI TALDEA

Martxan dago ARGI festibala, gaur hasita

ARGI argazki festibalak hirugarren edizioari ekin dio gaur, hilak 28; maiatzaren 28ra arteko egitaraua prestatu dute. Argazkigintza garaikidea herritarren esku jartzea du helburu egitasmoak, eta, hala, era guztietako ekintzak antolatu dituzte

Iker Oñate OÑATI

Ilunpetan argazki taldeak bi urtean behin eskaintzen duen egitasmoa da ARGI festibala. Hilabete osoko egitaraua antolatzen dute, herritarrek argazkigintza garaikideaz gozatzeko aukera izan dezaten.

Horretarako, herriko txoko ezberdinak baliatzen ditu festibalak. Aurten, besteak beste, Arantzazuko Gandiaga Topagunea, kultur etxea, Santcti Espiritu unibertsitatea, Antixena gaztetxea eta herriko zenbait komertzio erabiliko dituzte antolatzaileek. "Kalera atera gura dugu argazkilaritza, herritarrek disziplina ezberdinak ezagutu ditzaten", azaldu du Itziar Bastarririk, Ilunpetan argazki taldeko kide eta ARGI festibalaren antolatzaileak.

Alberdi, Ilunpetan, Elortza...

Hainbat lagunek esku hartu dute egitarauan. Esaterako, herri bizi den Bernat Alberdi bilbotarrak Oñatarrak erakus-

keta eskainiko du Antixeneko parkean eta gaztetxean. Maiatzaren 1etik 14ra egongo dira ikusgai haren argazkiak.

Erakusketaren bidez, herri bizi diren atzerritarrek ikusaraziko ditu Alberdik; hamabost erretratu eskainiko ditu horretarako. Horietako lau parkean egongo dira ikusgai eta gainerakoak, gaztetxean.

Bestetik, aipatzekoa da Ilunpetan argazki taldeko kideek Sancti Espiritu unibertsitatean eskainiko duten erakusketa. Artxiboan eskuraturiko antzinako irudiak eta horiek oinarri harturik azken urteetan ateratako argazkiak erabiliko dituzte. "Oñatik azken urteetan jasan duen bilakaera ikusarazi gura

HERRIAN BIZI DIREN ATZERRITARRAK IKUSARAZIKO DITU BERNAT ALBERDI BILBOTARRAK

dugu; asmo horrekin hautatu ditugu argazkiak", esan du Bastarririk.

Erakusketa horretatik abiatuta, gainera, bisita gidatua eskainiko du Jerardo Elortzak, maiatzaren 6an. 11:00etan hasiko da hori.

Bestetik, erakusketez gainera, bestelako ekintzak ere eskaintzen ditu egitarauak: zinekluba, Photobook Club saioa eta Lightpainting tailerra, besteak beste.

ARGI Arantzazu, lehenengoz

ARGI festibalak eta Arantzazu Gaur fundazioak, elkarlanean, ARGI Arantzazu egitasmoa antolatu zuten otsail eta martxo bitartean; gaur hasiko den festibalak irauten duen bitartean Gandiaga Topagunean ikusgai egongo den argazkia aukeratzea zen asmoa.

Epaileek martxoaren 31n eman zuten euren erabakia aditzera: Patricia Bofill Bartzelonako argazkilaria *Más allá de la forma* lana hobetsi zuten.

Musikal berriarekin dator Ganbara Txiki Abesbatza

'Pinotxo, hariekin lotu gabe' musikala estreinatuko du Ganbara Txiki ekainaren 16 eta 17 bitartean

I.O. OÑATI

Guztira, hiru emanaldi eskainiko dituzte Ganbara Txiki kideek. Kiroldegiko pilotalekuan finkatu dituzte hitzorduak.

Egubakoitzean, ekainaren 16ean, eskainiko dute lehen saioa, 18:30ean. Zapatuan, bestalde, bi emanaldi izango dira: 11:30ean eta 18:30ean.

Musikalean esku hartuko dutenek irailaz geroztik dihardute ikuskizunaren prestakuntzan murgildurik. Ganbara Txiki 30 kidez gain, Ganbara Txiki txoko hamar hurrek eta Ganbara Abesbatzako hiru partaidek jardungo dute agertoki gainean. Aitor Biainek zuzendu du ikuskizuna.

Interesa duenak eskuragarri ditu sarrerak; Txokolateixan eta *Sacatuentrada* webgunean jarri dituzte salgai. Maiatzaren

31ra bitartean, sarrera 12 eurotan eskura daiteke. Hortik aurrera, 15 eurora igoko dute prezioa. Guztira, 1.425 sarrera jarri dituzte salgai; hau da, 475 saio bakoitzerako.

Ganbara Txiki badu aurrekaririk musikalen alorrean: *Altxorraren Uhartea* lana aurkeztu zuten 2014ko urtarrilean. Oraingo ikuskizunarekin, bide beretik jarraitzea da asmoa. Alegia, Oñatin aurkeztu ostean, beste herri batzuetan jardutea.

Disko grabaketa

Ganbara Txiki kideek apirilaren 20an eta 21ean grabatu zituzten musikaleko abestiak; Eltzian izan zituzten grabaketa saioak. Hala, hogeita bat abesti biltzen dituen diskoa prest izango dute musikala aurkezten dutenerako; salgai jarriko dute.

Sotorock egingo dute zapatuan Antixena gaztetxean

Sotorock musika festibala antolatu du Antixena gaztetxeak zapaturoko, apirilaren 29rako; 21:00etan hasiko da emanaldia, eraikineko sotoan.

Utopia, Nos La Suda eta Zuen Azkena talde oñatarrak jardungo dute agertoki gainean. Hain zuzen, Utopiaren lehen kontzertua izango da zapatukoa.

Bestetik, sei urtez geldu egon ostean, oholtzara itzuliko da Nos La Suda. "Hainbat urtez geldu egon ostean, kontzertu berezia eskaini gura genuen", azaldu dute Nos La Sudako taldekideek.

Ohiko formatutik ihesi, herriko jaietan eskaini ohi den *kallejerua* festibalaren antzeko izan gura du Sotorock-ek. Hala, lehen aldiz, eraikineko sotoa erabiliko dute kontzerturako; eta, horretarako, espazioa egokitzen jardun dute orain arte.

Xavier Alvarez de Eulateren obrak, Donostian ikusgai

Arantzazuko Adiskideak elkarrekin eta Arantzazu Gaur Fundazioak, Donostiako Santa Mariako basilikarekin elkarlanean, erakusketa eskainiko dute basilikan bertan. Xavier Alvarez de Eulate frantziskotarraren zenbait lan jarri dituzte ikusgai; apirilaren 25ean ireki zuten erakusketa, eta interesa duenak uztailaren 25era arte izango du

frantziskotarraren obrak ikus- teko aukera.

Donostiako Santa Mariako basilikako erakusketak Alvarez de Eulatek bere ibilbide artistikoan landuriko *Paisaia* seriaren baitako hainbat lan eskaintzen ditu. Irekiera egunean egin zuten aurkezpen prentsaurrekoa, Donostian.

Alvarez de Eulatek lotura estua zuen Oñatirekin, hainbaten artean, berak eginikoa baita Arantzazuko basilikako beirate koloretsua.



Realaren kontra Eibarrek jokatuako partiduko irudia; ikusteko dago zer gertatuko den Atxabalpeko berdeguneekin. GOIENA

Eibarrek ibarrari bota dio begia Kirol Hiria egiteko

FUTBOLA Eibarko taldearen etorkizuna bermatzeko estrategikotzat jotzen dute kirol instalazio berriak egitea. Horretarako, baina, 40.000 metro koadroko lursaila behar dute, eta Eibarren ez dute aukera askorik; Elgeta eta Bergara dituzte aukeren artean

Xabier Urzelai ARRASATE

Eibar Futbol Taldeak etorkizuna bermatzeko dituen asmoak ez dira berriak. Taldea Lehenengo Mailan izanda, egungo zuzendaritzak –Amaia Gorostiza burugarbi du aurrera egin gura badute plan estrategikoan jasota duten Kirol Hiria proiektua gauzatu behar dutela, ezinbestekoa dela. Horretarako, baina, 40.000 metro koadro inguru behar dituzte –Agorrosingo instalazioak zazpi bider– eta lursail horietan, besteak beste, belar naturaleko bi zelai eta belar artifizialeko beste bi zelai egin gura dituzte, gainontzeko kirol ekipazioarekin batera.

Ekainean hauteskundeak izango dituzte, eta badirudi hautagaitzak bat datozela Kirol Hiria proiektuak duen lehentasunean; bai, behintzat, Amaia Gorostizaren eta German Albistegiren hautagaitzak.

Ezberdintasunak, baina, Kirol Hiria kokalekuan datoz. Eibarrek duen orografiatik Go-

rostizak zail ikusten du herrian bertan egin ahal izatea, eta besteak beste, Bergara eta Elgeta jodu dituzte. Eta, Albistegik garbi du kirol instalazio horiek Eibarren egon behar dutela.

Ibarreko alkateekin berbetan

Hori horrela, GOIENA Bergarako eta Elgetako alkateekin jarri da harremanetan. "Aurreko agintaldian egin ziren gestio batzuk Eibarko taldearekin. Ibili ziren plano gainean lanean, baina gero gaia geldu egon da hiru bat urtez edo", adierazi du Elgetako alkate Iraitz Lazkanok. "Orain hila-bete batzuk etorri ziren berriz galdetzen ea zein aukera egon daitekeen proiektua Elgetan egiteko, eta hainbat aukera zituzte-

ELGETAKO UDALAREKIN ASPALDI HASI ZEN EIBAR HARTU-EMANETAN, EZER ZEHAZTU BARIK

la esku artean. Baina hartu-eman bakarra izan dugu guk Eibarko ordezkariarekin. Udal arkitektoarekin egon gara ea ze aukera egon daitekeen ikusteko, baina hortik eta egunotan komunikabideetan agertu diren etan... Irakurri dugunez proiektua eginda daukate. Gu prest gaude alternatiba horiek zeintzuk diren entzuteko. Une honetan nik ez daukat alternatibarik 40.000 metro karratuko lautada bat egiteko Elgetan. Baina ondo ikusiko genuke, arau subsidiarioak aldatuz gero, industrialdean degradatuta dauden zonak erosten baldin badituzte, eta Forjas botata, hor bi futbol zelai egiten badituzte".

Bergararen kasuan, badirudi Eibarrek Larramendi industrialdea duela begiz jota, 300.000 metro koadro daude bertan, baina Bergarako alkateak gogorarazi du hori Spirena dela. Berez lur industrialdea dela, eta, berriro lurrik kalifikatzen, jabeek Udalarai baimena eskatu beharko lioketela.



Arrasateko jokalaria 17 zenbakiarekin, selekzioarekin. OINTXE!

Irene Murua kategoriaz igo dute Espainiako selekzioan

SASKIBALOA MUko jokalaria kadeteekin hasi zuen txapelketa, eta gazte mailara igo zuten segidan

X.U. ARRASATE

Arrasateko Mondragon Unibertsitateko lehenengo mailako kadetea da Irene Murua, eta Aste Santuan Espainiako Selektzioarekin jardun du Zaragozan jokatuako txapelketan –MHL Torneo–. Bitxieta da txapelketa kadete mailakoekin jokatzeko hasi zela –kategoria hori dagokio adinez–, eta segidan mailaz igo zutela, hau da, gazte mailakoekin jokatzeko amaitu zuela txapelketa. Eta, Elena Lahoz hautatzailearen aginduetara, hor ere Arrasatekoa ondo moldatu da.

Finala irabazi, gainera

Espainiako selekzioak irabazi egin zuen torneo, finalean 51-45 gailendu zen eta. Eta Arrasateko jokalaria izan zuen zerena garaipen horretan, 11 puntu saskiratu zituen eta. "Irene oso ondo ibili da eta txapelketan gora egin du", jakinarazi dute Ointxeke ordezkariak.

ACBko taldeetako harrobian diharduten jokalariz osatutako selekzioa izan zen Espainiakoa, eta tartean bi euskaldun baino ez ziren egon hautatuta: Arrasateko Irene Murua eta Gernikako June Zubiaga.

PILOTA Bergara Hiria torneo hasi dute, ekainaren 5era arte

Martitzenean hasi zuten Bergara Hiria txapelketa, promesa eta senior mailako kategorietan, baina lehenengo jardunaldiak ez zituen aparteko norgehiagokak utzi.

Promesa mailan Alberdik eta Aizpuruk 22-4 irabazi zieten Etxeberriari eta Ibarlozari. Norghegiak motza izan zen, irabazleek txukun jokatu zuten, baina kontrarioek erraztasun handiak eman zizkieten. Seniorretako partidua hobe izan zen. Pradok eta Etchegoinek 22-13 hartu zituzten mendean Peru Labaka eta Sarasa. Irabazleek txukun ibili ziren, eta, batez ere, Etchegoinek eskuin eskuan duen indarra erakutsi zuen.

ZIKLISMOA Muriasko babesle izateko kanpaina abian

Euskadi Basque Country Muriasko babesle izateko kanpaina jarri dute abian; izan ere, datorren urtean maila bat gorago egon ahal izateko enpresa pribatu eta erakunde publikoaren babesarekin batera ezinbestekoa izango da babesleen laguntza.

Bada, 18 urtetik beherakoek 25 euroko kuota ordaindu ahal izango dute urtean eta 18 urtetik gorakoek, 50 eurokoa. Eta, trukean, babesleek hainbat abantaila izango dituzte: kamisetak eta ziklisten posterrak opari, bizikletako materialaren zozketak egingo dituzte, ziklistekin entrenatzeko aukera izango dute, lasterketa taldearen auto barrutik bizitzeko aukera...

Aretxabaletak birritan hartuko du Mondra

FUTBOLA Bi talde horien artean bina derbi izango dira asteburuan Ibarren, bai Ohorezko Erregionalean eta baita Erregional Preferentean ere. Benetako finala Aloña Mendik izango du: azken postuan dagoen Martuteneren bisita izango du etxean

Xabier Urzelai ARRASATE

Aretxabaletaren eta Mondraren arteko derbi gosez dagoenak betekada ederra har dezake asteburuan, bi kategoriatan elkarren kontra neurtuko dituzte eta indarrak bi talde horiek. Ohorezko Erregionalean aurrealdean dabilta bi taldeak, baina azken hilabeteotan UDAk gorakada nabarmena egin du, eta, zazpi puntura badaude ere, aretxabaletarrek bigarren postuan dagoen Hernani dute begiz jota bost jardunaldi hauei begira.

Mondra, berriz, kategoriara igo berria dela kontuan izanda, oso urte txukuna egiten dabil, baina azken hilabetean txakalaldi betearen sartu dira, bost partidutatik lau galdu egin dituzte eta. Domekako derbian, baina, zeresan gutxi izango du bi talde horiek non dauden sailkapenean; joaneokan, Mojategin, 1-1 egin zuten.

Aloña sei puntura du salbazioa

Oñatiko taldearendako hil edo bizikoa izan daiteke domekako partidua, azkeneko postuan dagoen Martuteneren bisita izango du eta. Eta orain arte ligako txarrenak izan direnen kontrako hutsegitea barkaezina izango litzateke. Azken emaitzak ikusita, Oñatiko taldeak ez du amo-



Azken derbiak Erregional Preferentean jokatu dituzte UDAk eta Mondrak. GOIENA

ZAZPI PUNTOK BANATZEN DUTE UDA ETA MONDRA; JOANEKOAN 1-1 EGIN ZUTEN MOJATEGIN

re eman duen itxurarik, asteak dira eta partidurik galdu ez dutena. Baina garaipenak behar dituzte. Komeni da sei puntura dauden Hondarribia edo Beti Gazte atzealdekoen borrokan sartzea, eta domekakoa izan

ALOÑAK TARTEA TXIKITU BEHAR DIE DERRIGOR BETI GAZTERI ETA HONDARRIBIARI

daiteke aldea txikitzen hasteko lehen pausoa.

Preferentean ere derbia

Zapatuan, berriz, Erregional Preferenteko derbia izango da jokoan, eta hor Mondra (34) da Aretxabaleta (33) baino puntu bat gehiago izanda postu bat gorago dagoena, nahiz eta biak dabilta jaisiera postuetatik urrundu guran. Bi talde horiek oraindik egiteke dituzte lo lasai egiteko etxerako lanak.

Mondrako neskak lider, kopan

Emakumezkoen Kopari bi jardunaldi geratzen zaizkio, eta orain momentuan Mondra da lider, 13 puntu batuta –talde batzuek jardunaldi bat gutxiago jokatu dute–. Zuri-moreek atsedena dute, eta laugarren dauden Bergarako neskek Eibarren jokatuko dute.

Arizmendiko neskak ere borrokan

Emakumezkoen igoera fasean Arizmendik ere mailaz igotzeko borrokan jarraitzen du. Ligan nagusitasun handia erakutsi ostean, igoera fasean, hainbat lesiorengatik, taldearen mailak beherakada izan zuen, eta hori igarri egin zen emaitzetan. Hala, promozio fasea nahiko ahul hasi zuten, baina azken hiru asteotan erreakzionatzeko gaitasuna erakutsi dute, hiru partiduetan jarraian irabazi dituzte eta; tartean, lider dagoen Anaitasunari.

Garaipen horiek taldea berpiztu dute osteraren ostera ere, eta matematikoki oraindik posible dute mailaz igotzea –laugarren daude 10 punturakin–. Baina horretarako ezinbestekoa da geratzen diren hiru jardunaldietan emaitza positiboak lortzea. Lehenengo finala domeka eguerdian dute (12:00, Ibarra), Oreretaren kontra.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREG.

Aretxabaleta-Mondra

Domeka. 16:30. Ibarra.

Aloña Mendi-Martute.

Domeka. 16:30. Azkoaga.

ERREGIONAL PREF.

Aretxabaleta-Mondra

Zapatua. 17:45. Ibarra.

Bergara-Getariako

Zapatua. 17:00. Agorrosin

LEHEN ERREG. IGOERA

Touring-Antzuola

Zapatua. 20:00. Errenteri.

Usurbil-Bergara

Zapatua. 16:00. Usurbil.

EMAKUMEZKOAK, IGOE.

Arizmendi-Touring

Domeka. 12:00. Ibarra.

EMAKUMEZKOAK, KOPA

Eibar-Bergara

Domeka. 15:30. Unbe

Mondra (Atsedena).

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELK.

Elorrioko-Eskoriatza

Zapatua. 18:00. Elorrio.

UDA Aretxa.-Ferrerres

Zapatua. 18:00. Ibarra.

GIPUZKOAKO TXAPELK.

Zaldibi-Mondrate

Gaur. 21:15. Zaldibia.

SENIOR EMAKUMEZK.

Eskoriatza-Idiazabal

Zapatua. 18:00. Eskoriat.

SASKIBALOA

EBA

Pas Pielagos-MU

Zapatua. 19:00. Castañe.

EUSKADIKO BIG. MAILA

Natra Oñati-Salleko

Zapatua. 18:00. Zubikoa.

GIP. SENIOR MAILA

Don Jabugo-MU

Zapatua. 20:00. Irun.

GIP. BIGARREN MAILA

Take-Soraluce BKE

Zapatua. 14:00. Tolosa.

SENIOR EMAKUMEZKO.

Eskoriatza (atsedena).

ESKUBALOA

EMAKUMEZKOEN KOPA

Iturrirto-Elgoibar

Zapatua. 16:00. Zubikoa.

GIZONEZKOEN KOPA

Urola-Muñoz Izarraitz

Zapatua. 18:00. Zumarra.

GIPUZKOAKO SENIOR.

Soraluce BKE-Ormaizt.

Domeka. 11:30. Labegai.

GIPUZKOAKO KOPA

Arrasate-Ordizia

Zapatua. 16:00. Iturripe.

SLALOMA

EUSKAL HERRIKO TXAP.

Zapatuan, 10:00etan

hasita, Bergarako

frontoian.

ZIKLISMOA

MAILA ESKOLARRAK

Labegarietan maila

eskolarretako

lasterketak.

Maiatzak 1, 11:00.



Arrasateko eta Andoaingo pilotariak, 2015eko edizioan. GOIENA

Arrasatek eta Oñatik hartuko dute esku Herri Artekoan

PILOTA Maiatzaren 7an hasiko dute txapelketa; Bergarak ez du ordezkartzarik izango aurtengo edizioan

X.U. OÑATIKO

Gertu dago aurtengo Herri Arteko Pilota Txapelketa, Gipuzkoako klubuen artean dagoen txapelketa erakargarriena. Bertan parte hartzeko ezinbestekoa da kadete mailan, gazte mailan eta senior mailan ordezkariak izatea, eta Debagoieneko klubuen artean Arrasatek eta Oñatiko Aloña Mendik lortu dute taldeak osatzea. Kontrara, aurtengo nobedadeetako bat da txapelketa

irabaztea zer den badakien Bergarak ez duela txapelketan ordezkartzarik izango.

Donostia eta Zestoa kontrario

Arrasatekoak lehenengo kanporaketa fasean hasiko dira, maiatzaren 7an, eta Donostia izango dute kontrario. Oñatiarrek, berriz, bigarren kanporaketa fasean hasiko dute torneo, eta Zestoko pilotariak izango dituzte aurrean.

"Totik musikarion lana mugaraino eramaten du"

ALBERTO URRETXXO TRONBOI-JOLEA

Ganbera-musikak lagunduta, Toti Martínez de Lezea mitologia kondairak kontatutako ditu 'Soinu magikoak' ikuskizunean; bihar, zapatua, Amaia antzokian 20:00etan

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE Udaberri Musikaldiaren barruan, Alberto Urretxo arrasatearrak bere proiektu berria aurkeztuko du: *Soinu magikoak*. Sarrerak bost eurotan eskura daitezke Amaia antzokiko leihatilan eta *Arrasate.eus* atarian.

Puntako musikariez gainera, Toti Martínez de Lezea duzu oraingoan bidelagun. Zer moduz?

Totirekin lan egitea amets bat zen niretzako; oso gustuko dut eta haren lan asko irakurri ditut. Iaz, udan, haren etxera joan eta elkarrekin ikuskizuna egitea proposatu nion. Hasieratik ondo ulertu genuen elkar; hark dioen moduan, zoratuta gaude biak! Izugarria da! Indar handia du eta oso konprometitua da. Askok ikasi dut harekin.

Musika eta mitologia batzen dituzue ikuskizunean. Nolako da, baina? Bi elementu nagusi ditu oinarrian: iaz argitaratu nuen *Soinuaren bidaia* diskoa, batetik, -haren bilakaera dela esango nuke-; eta orain dela urte batzuk Totik Juan Luis Landarekin argitaratu zuen *Euskal Herriko lelendak* liburua, bestetik. Egiturari dagokionez, eguzki-loeari buruzko ipuinak zabalduko du saioa, eta ondoren, sei gai landuko ditugu: sorginak, dragoiak, erraldoiak, jainkosak, ipotxak eta laminak. Gai bakoitzari *Soinuaren bidaia* diskoko kantu bat jarriko diogu eta haren gainean Totik istorio bat kontatuko du euskaraz.

Zuzeneko musikarekin lagunduta; izan ere, lau musikari izango zarete taularen gainean.

Hala da, bai. Goi mailako musikari profesionalak guztiak: Adriana Grigoras, nire emazteak, biola joko du, Irini Gaitanik pianoa, eta nik, tronboia. Gonbidatu berezi bat izango dugu, baina, oraingoan: Maite Itoitz harpa-jole eta abeslaria. Eskarmentu handiko musikaria da hura ere. Totirekin errezital



Bilboko Orkestrako kide da Alberto Urretxo arrasatearra. A. U.

"EMOZIOEN BIDEZ MUSIKA ENTZUTEKO BESTE MODU BAT ESKAINI NAHI DIOGU PUBLIKO GUZTIARI"

asko egin ditu eta haren bitartez ezagutu dugu. Plazera izan da! **Konbinaketa ezberdinak egiten dituzue, beraz?**

Bai; esaterako, ipuin baten kontaktetan biola bakarrik dago, beste baten hainbat musika tresnaren nahasketa dago... Eta gai bakoitza Maite Itoitzek borobildu edo bukatuko du, duen ahots goxoarekin eta harparekin. Pieza batzuk diskokoak dira, baina ez guztiak; Totirekin elkarlanean, istorio bakoitzarentzako doinu aproposenak aurkitzen saiatu gara. Musika oso presente dago ikuskizunean.

Soinuaren bidaia lanarekin arrakasta izan duzu.

Egia da, bai; 500 disko saldu ditugu eta 20 emanaldi baino gehiago eskaini ere bai. Euskal Herriaz gainera, Estatuan ere toki askotan aurkeztu dugu: Madrilen, Bartzelonan, Zarago-

zan, Valentzian... Eta atzerrian ere izan gara; esaterako, Seulen, nire anaieren bitartez, eta berriz joateko gonbidapena jaso dugu hainbat tokitatik. Arrasaten aurkezteko gogo izugarria nuen, eta, ikuskizunaren estreinaldia bertan egitea kasualitatea izan bada ere, oso pozik nago. Emozioen bidez musika beste modu baten entzuteko aukera eskaintzen dugu; ez da tronboi doinuekin osatutako disko bat soilik. Lelo bat du bildumak, eta zera da: denok daukagu bi bizitza, eta bigarrena bat bakarra dugunean konturatzen garenean hasten dela. Horixe da bildumarekin adierazi gura izan duguna, eta Amaia antzokian eskuratze-ko aukera izango duzue bihar. **Ikuskizunera itzulita, nori gomendatuko zenioke?**

Publiko guztiari. Estilo honetako musikarekin batzuek atzera egiten dute, ulertuko ez duten beldur; baina lasai etorri, ulertzeko erraza da eta. Ordu eta erdi goxoa igarotzeko aukera izango duzue. Guk oso ondo pasatzen dugu eta zuek ere bai, seguru; ez dut ezagutzen inorgure lana Totik besteko mugara eramaten duenik.



Iaz Bergaran egin zuten Debagoieneko Trikitixa Eguna. IMANOL SORIANO

350 trikitilari eta pandero-jole elkartuko dira bihar Oñatin

Tailerrak eta kontzertuak egingo dituzte; bazkaria ere izango da, baina dagoeneko agortu dira 420 txartelak

A. A. OÑATI

Bailarako eta inguruko herrietako trikitizaleak batu eta elkar ezagutzeko helburuarekin sortu zuten orain dela hamahiru urte Debagoieneko Trikitixa Eguna. Bergarakoei lekukoa hartuta, Oñatiko Lizargarate Trikitizale Elkarteak eta Jose de Azpiazu Musika Eskolak antolatu dute biharko egitaraua.

350 lagun inguru batuko dira bihar Oñatin, eta, herriko trikitilari eta panderoez gainera, Arrasatekoek, Aretxabaletakoek, Bergarakoek, Antzuolakoek, Aramaiokoek, Eskoriatzakoek, Elgetakoek eta Soraluekoek hartuko dute parte.

Tailerrak eta kontzertuak

Goizeko hamarretan Unibertsitateko plazan elkartuko dira eta askotariko tailerrak egingo dituzte, 10:30ean hasita: "Trikitiaren lotutako arlo ezberdinak

landuko ditugu Lutxurditzorekin, Luis Astiazaranekin, Harkaitz Allurrekin eta Ines Osinagarekin; baina plaza mugatuak dituzte eta dagoeneko beteta daude eskolako ikasleekin. Horiez gainera, Aitor Furundarenak kultur etxeko zine aretoan *Soinu txikia soinu handiaren beaurrekoetatik* hitzaldia egingo du eta interesa duten guztiei egin gura diegu bertaratzeko gonbidapena; 10:30ean hasiko da eta ez da aurrez izena eman behar", diote antolatzaileek.

Era berean, trikiti eta pandero doinuekin gozatzeko hainbat aukera izango dira. "Ikasleek 13:00etan egingo dute saioa Unibertsitate aurrean eta toki berean 17:00etan hasita, Debagoieneko trikiti taldeen emanaldiak izango dira. Eguna bukatzeko, Los Zopilotes Txirrius eta eMePebo5t taldeen kontzertura etortzeko gonbidapena ere baduzue".

Mikel Urdangarin Spaloia antzokian izango da gaur

2015ean bakarka eta zuzenean aurkeztu zuen lanaren ostean, martxoan kaleratu zuen Mikel Urdangarin musikariak *Margolaria* lana.

Oraingoan, banda osoak lagunduta, hamar kanturekin osatutako bilduma sortu du zornotzarrak. Abeslariaren esanetan, disko hurbila, eskuzabala eta sendoa da. Kantu berriekin

gizakiaren barrura begiratu samur bat botatzeko eta norberaren bakardade gordinen bizi diren ahuleziak eta zalantzak askatasun kantu bilakatzeko baliatu dela dio.

Bilduma berria zuzenean aurkeztu ari da orain, eta Elgetako Spaloia antzokian eskainiko du kontzertua gaur, egubakoitza, 22:00etan. Sarrerak hamabi eurotan eskura daitezke kafe antzokiko leihatilan edo, aurrez erosiz gero, bederatzi eurotan *spaloia.eus* atarian.

Aspaldiko lagunak diren bi abeslari aurrez aurre

Maider Zabalegi eta Mikel Markez musikari eskarmentudunak izango dira protagonista datorren egunean, Goiena telebistan, maiatzaren 4an, 21:30ean eskainiko den 'Kulturriketak' saioaren hurrengo emanaldian

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE Oiartzungoa da Maider Zabalegi eta Errenteriakoa Mikel Markez, eta musikagintzan eskarmentu handia dute biek ala biek. Aspalditik ezagutzen dute elkar, eta noiztik eta nola gogora ekarrita hasi ziren berbetan, garai bateko Zerrajerako lantegiaren eraikineko platoon grabatu zuten *Kulturriketak* saioan. "Ni Alaitzekin eta zu Jose Mari Carrererekin zeundela Errenteriako jai batzuetan ezagutu genuela elkar esango nuke", dio Zabalegik; eta, "izan daiteke bai, baina aurrez ere bagenuen elkarren berri, kantu txapelketetan ibiltzen ginen eta", gaineratu zuen Markezek.



Maider Zabalegi eta Mikel Markez *Kulturriketak* saioa grabatzen. JAGOBA DOMINGO

Gaur egun, giroa hoztu egin da Oroitzapenen kutxan arakatuz segitu zuten bataren zein bestearen musikagintzako hastapenak gogoratuz. "Oso naturalki irten zela oroitzen dut. Alaitzek eta biok plazetan jo nahi genuen eta horrela hasi ginen erromerietan jo eta jo", zioen Zabalegik. Markezek, berriz, 16 urte zituen lehen maketarekin herriz herri bueltaka hasi zela kontatu zuen. "Soziologia ikastaro trinko zoragarria zen. Lehenengo aldiz Zuberora joan, han kantatu, gero hurrengoan Baztanera... Herri gutzia zain izaten zen, gonbidapen asko jasotzen genituen etxera bazkaltzera joateko edo lo egiteko tokia eskainita".

Bat zetozen, orokorrean, antolatzaileekiko harremana gaur egun hotzagoa dela. "Dena aldatu da, akaso, adinak eraginda, gu ere bai", zioen Markezek. "Hamalau urte egin ditut musikatik kanpo eta itzuli naizenean beste mundu baten aurkitu naiz: sare sozialak, webguneak... Niretzat arrotzak dira eta gogorra egiten ari zait. Funtzionatzeko beste modu bat da gaur egun", gaineratu zion Zabalegik.

IRAGANA NOSTALGIAZ GAINBEGIRATUTA, ETA ETORKIZUNARI ETA ORAINARI ILUSIOZ HELTZEKO INDARRA

Sorkuntzaz eta inspirazioaz

Berriz ere musikagintzan murgiltzeko arrazoari buruz galde-tuta aitonen heriotza klabea izan zela erantzun zion Zabalegik: "Orain dela hiru urte galdetuz gero, ez nuela ezer jakin gura esango nizuke; baina, aitona hiltzen ari zela gitarra modu berezian hartzen hasi nintzen. Hil zen egunean, gitarra eskue-tan hartu, eta kantu bat goitik behera sortu nuen. Harrezkero geratu barik nabil, eta oso argi nuen, argialetxeen laguntzarekin edo barik, 40 urte betetakoan, diskoa argitaratuko nuela".

"Ez dakit zer, baina inspirazioa sortzen duen zerbait badago eta barrutik ateratzen diren kantu horiek, gero, bere bidea egiten dute. *Zure begiek* 15 urte nituela idatzi nuen; anaiak erakutsitako akorde gutxi batzuk besterik ez nekien. Maiteminduta nengoen

eta maiteminari aurre egiteko idatzi nuen, une hartan ez nuen pentsatu ere egin jendaurrean abestuko nuenik", zioen Markezek, eta zera gaineratu Zabalegik: "Intuizioari kasu egin behar zaio-la uste dut eta helburua barne-poza sentitzea izan behar dela, larregi begiratu barik arrakasta izango duen edo ez".

Zuzenekoan xarma

Iraganari nostalgiaz begiratuta, kontzertuen xarmaz, sare sozialak eta Youtuberen eraginez eta musika kontsumitzeko moduez ere luze egin zuten berba. "Lan berriarekin Oiartzunen egin nuen lehenengo kontzertuan, sekula sentitu gabeko adrenalina sentitu nuen", zioen Zabalegik. "Tokatu zitzaigun neraberezaroan bizi izatea arrakasta, eta orain ezberdina da; baina ezberdina da arlo askotan", zioen Markezek, eta zera gaineratu: "Gaur egun kontzertura joan ez denak sarean du segituan emanaldi hori, nahiz eta, nire ustez, Youtubek ezin duen harrapatu zuzenekoetan sentitzen den zirrara, eta eskerrak! Ikusteko dago nora eramango gaituen horrek guztiak".

ASTEIA GOIENA TELEBISTAN



XABI URZELAI

KILOMETROETAKO KANTA AURKEZTEKO JAIALDIA

'Ikuskizuna' Maiatzak 3, 21:00



IKUSTENDA

JULEN IRIONDOREN SAIO BERRIA

'Ikustenda #batzuk' Maiatzak 4, 21:00

EGUBAKOITZA, 28

10:00 Hemen Debagoiena
11:00 Ikustenda #batzuk: Anaje Narbaiza
11:30 Hemen Debagoiena
12:30 Kulturriketak
13:00 Kantari 5
13:30 Hemen Debagoiena
14:30 Gaurkoak
14:45 Egun batez: Gaztagile
15:15 Hemen Debagoiena
16:15 Gaurkoak
17:00 Onein: Hirugiharra
17:00 Gaurkoak
17:15 Galdegazte: Alex Txikon
17:45 Gaurkoak
18:00 Hemen Debagoiena
19:00 Ikustenda #batzuk: Anaje Narbaiza
19:30 Kulturriketak
20:00 Hemen Debagoiena
21:00 Kulturriketak
21:30 Amaia DJ
22:00 Hemen Debagoiena
23:00 Osoko bilkura: Bergara

ZAPATUA, 29

09:00 Kantari 5
09:30 Plazako aukitik: Hernalde
10:00 Korapilo
10:30 Kantari 6
11:00 Hemen Debagoiena
12:00 Ikustenda #batzuk: Anaje Narbaiza
12:30 #HRMT: Beñat Arnaiz
13:00 Egun batez: Gaztagile
13:30 Kulturriketak
14:00 Amaia DJ
14:30 Onein: Hirugiharra
15:00 Hemen Debagoiena
16:00 Kantari 5
16:30 Korapilo
17:00 Egun batez: Gaztagile
17:30 Amaia DJ
18:00 Galdegazte
18:30 Kantari 5
19:00 Hemen Debagoiena
20:00 Kantari 5
20:30 Amaia DJ
21:00 #HRMT: Beñat Arnaiz
21:30 Ikustenda #batzuk: Anaje Narbaiza
22:00 Hemen Debagoiena
23:00 Galdegazte: Alex Txikon

DOMEKA, 30

09:00 Kantari 6
09:30 Egun batez: Gaztagile
10:00 Korapilo
10:30 Kantari 5
11:00 Ikustenda #batzuk: Anaje Narbaiza
11:30 Amaia DJ
12:00 Galdegazte: Alex Txikon
12:30 #HRMT: Beñat Arnaiz
13:00 Hemen Debagoiena
14:00 Egun batez: Gaztagile
14:30 Kulturriketak
15:00 Plazako aukitik: Hernalde
15:30 #HRMT: Beñat Arnaiz
16:00 Amaia DJ
16:30 Kantari 6
17:00 Korapilo
17:30 Hemen Debagoiena
18:30 Amaia DJ
19:00 #HRMT: Beñat Arnaiz
19:30 Ikustenda #batzuk: Anaje Narbaiza
20:00 Kantari 5
20:30 Hemen Debagoiena
21:30 Kulturriketak
22:00 Amaia DJ
22:30 Galdegazte

ASTELEHENA, 1

ONĀTIKO APIRILEKO OSOKO BILKURA

'Osoko bilkura'

Astelehena, 21:00

MARTITZENA, 2

BERGARAREN FUTBOL PARTIDUA

'Harmailatik'

Martitzena, 21:30



GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: goiena.eus/telebista Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

EGUAZTENA, 3



GOIENA

EGUNEKO ALBISTEAK

'Gaurkoak'

Eguaztena, 14:30

EGUENA, 4

MIKEL MARKEZ ETA MAIDER ZABALEGI

'Kulturriketak'

Eguena, 21:30

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

UBERA

Olañeta baserria eta 15 hektareako lursaila salgai (pinuak eta zelaiak). 943 76 35 09 677 21 46 82

Bergara. Etxebizitza salgai Artzamendin. Eguzkitsua. Hiru logelakoa. Trasteleku eta garajea. Igogailurik ez dago. Berritua eta bizitzera sartzeko moduan dago. 145.000 euro. Interesatuok deitu zerbaki hauetara: 655 72 79 69 edo 943 76 06 53

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan, maiztetik aurrera, Aldai kalean. 3 lagunentzat aproposa eta erabat hornitua. 700 euro gehi gastuak. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 653 71 78 82

Bergara. Etxebizitza ematen da errentan Barrenkalean. Bi logela. Berokuntzarekin. Guztiz berritua eta jantzia. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 629 38 29 96

La Pineda (Tarragona). Apartamentua ematen dugu errentan, asteka, Punta Prima l urbanizazio itxian. Hondartzatik 50 metrora dago eta igerilekua dauka. 4 lagunentzako egokia. Leku oso lasaia haurrekin joateko. Autoarentzat aparkalekua dauka. 669 23 44 00 (Ainhoa)

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Arrasaten errentan hartzeko etxebizitza bila dabilen bikote langile bat gara. 653 72 43 19 edo 667 80 12 55

Bergara. Etxebizitza behar dut errentan. Bi logelakoarekin nahikoa da. Berdin da jantzia ez badago ere. 632 77 35 38

2. GARAJEAK

204. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Karabana gordetzeko leku bila gabilza. 653 70 84 09

4. LANA

401. ESKAINTZAK

ARRASATE

Okindegian langilea behar da. Esperientzia eta euskara beharrezkoak. 679 13 70 31

GOIZALDE TABERNA

Zerbitzaria behar da ostegun, ostiral eta zapatutarako. 943 05 73 08

402. ESKAERAK

Arrasate edo Bergara. Emakume eskaintzen da pertsona nagusiak zaintzeko. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. 632 51 85 01

Arrasate eta inguruak. Emakume eskaintzen da nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Orduka. Esperientziaduna eta lanerako errekonozimenduekin. 610 99 42 03

Arrasate. Nagusiak zainduko nituzke egunez edo, astelehenerik egubakoitzera bitartean, etxean bertan bizi izaten. Telefonoa: 618 28 91 28

Arrasate. Neska euskalduna, pertsona nagusia zaintzeko pres nago. 618 03 04 69

Arrasate. Neska gertu arratsaldetan nagusiak eta umeak zaintzeko. 699 69 96 69

Arrasate. Zaintza lanetan lan egingo nuke, etxean

bertan bizi izaten edo bestela. 697 20 00 86

Bergara. Etxeak garbitzeko edo pertsonak zaintzeko prest, egunean zehar edo orduka. 632 56 92 32

Debagoiena. Lan bila nabiltza: orduka, sukaldari laguntzaile eta abar. 659 90 85 13

Debagoiena. Lan egiteko gertu: orduka, etxean bertan bizi izanda... Esperientzia daukat. Telefonoa: 617 00 50 47

Debagoiena. 12:00ak eta 14:00ak artean edo arratsaldetan, garbiketak eta nagusiekin zaintza lanak egiteko gertu nago. 622 24 86 64

Debagoiena. Baserrietan, elkarte eta abarren garbiketetan eta zaintza lanetan jarduteko gertu nago. 632 65 26 58 (Oscar)

Debagoiena. Emakume arduratsua, esperientziaduna, nagusiak eta umeak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz, orduka, asteburuetan eta gaueetan ere bai. Berehala hasteko moduan. 632 510 626

Debagoiena. Emakume euskalduna eta esperientziaduna etxeak eta lokal komertzialak garbitzeko prest. 663 04 53 99

Debagoiena. Emakume lan bila. Esperientzia dut umeak zaintzen, etxeak garbitzen eta gaixo eta nagusiak zaindu eta laguntzen eta tailerrean. Lan egiteko beharra daukat, alarguna naiz-eta. 647 10 58 72 edo 943 79 96 25

Debagoiena. Etxeak garbitzeko edo pertsonen zaintza lan egiteko gertu. 631 81 48 37 edo 632 21 82 01

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo egunez nagusiak zaintzen lan egiteko gertu nago. Esperientzia daukat. 605 60 70 16 (Elba)

Debagoiena. Mutila lanerako gertu. Ordu-tegi arazo barik. Bizikleta mekanikari moduan lan egingo

izan dut. Bestelako lanetan ere aritzeko gertu nago. 686 28 87 46

Debagoiena. Nagusiak zaintzen eta garbiketetan lan egingo nuke. Telefonoa: 654 11 15 14

Debagoiena. Neska gertu umeak eta nagusiak zaintzeko, garbiketetan lane-tarako edota sukalde laguntzaile moduan aritzeko. 663 40 92 67

Lan bila. Oñatiko gizon euskalduna lan bila; garbiketeta edo zaintza lanak, tabernan, dendan edo bestelakoak egiteko prest. 615 70 67 17

Oñati. Emakume euskalduna pertsona nagusiak eta haurrak zaintzeko prest. Baita garbiketeta lanak egiteko ere. Esperientzia handiarekin. Autoa daukat. 627 18 04 35, 943 08 23 99

Oñati, Arrasate edo Bergara. Haurrak zaintzen

edota garbitzen lan egingo nuke. Haur Hezkuntzako ikasketak ditut. Autoa daukat. 664 53 28 56

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Informatika. Word, Excel eta Outlook programei buruzko eskolak jaso nahi nituzke etxean. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 665 73 98 32

502. EMAN

Gantxilloa. Gantxillo eskolak ematen dira Arrasaten. Ordu-tegi adostuko genuke. 629 77 05 82

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Txakurkumeak opari. Arratoi txakurkumeak oparitzen ditugu Oñatin. Bi hilabete eskas dituzte. Lau ar eta bi eme dira eta ama ehiztari fina dute. 616 01 40 17 edo 615 00 69 35

8. DENETARIK

802. EROSI

Karabana. Karabana erosiko nuke. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 669 97 62 08

806. GALDU

Betaurrekoak Aretxabaletan. Betaurreko graduatuak galdu nituen martxoaren 20an Zariaia kalea eta Copreci artean. Funda granatea daukate. Norbaitek aurkitu baditu deitu mesedez zerbaki honetara: 656 75 30 57

Bizikleta Aretxabaletan. Aretxabaletan, izotz taberna inguruan, bizikleta galdu nuen. Zuria da eta letra urdinak ditu. Telefonoa: 605 73 75 24

808. BESTELAKOAK

Zaldiendako zelaia. Arrasaten edo inguruan zaldiak edukitzeko zelai bila gabilza. 697 41 66 24



Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA:

- Zubiaurre, 60 m², 2 gela, igogailua eta ganbarra. 75.000€.
- Masterreka, 75 m², 2 logela, berritua, bizitzera sartzeko. 169.000€.
- Iraburu, 80 m², 3 logela, trasteleku, altzariekin, bizitzera sartzeko. 142.000€.
- Ibargarai, 87 m², 3 logela, trasteleku. Garajea aukeran. 165.000€.
- Matxiategi, 90 m², 4 logela, terraza ganbaran. Igogailua. 190.000€.
- Simon Arrieta, 81 m², 2 logela, igogailua, garajea barne. Bizitzera sartzeko. 300.000€.
- Fraiskozuri, 100 m², 4 logela. Igogailua. Berritzeko. 180.000€.
- Masterreka, 100 m², 2 logela. Igogailua. Bizitzera sartzeko. 200.000€.
- Martoko, 80 m², 3 logela, trasteleku, igogailua. Eguzkitsua. 135.000€.
- Zabalategi, 80 m², 3 logela, Berritua. Igogailua. Eguzkitsua 177.000€.
- Martzial Agirre (Espolcia) 84 m², 4 logela, trasteleku eta garajea barne. 235.000€.
- Irizar, 87 m², 3 logela, igogailua eta trasteleku. 170.000€.
- Barrenkale, 116 m², 5 gela. AUKERA ONA. 90.000€.
- Madura, 57 m², 2 log. Berritua. Bizitzera sartzeko. 110.000€. AUKERA OSO ONA.
- Zubietta, 70 m², 3 logela. Bizitzera sartzeko. 127.000€.
- Artzamendi, 75 m², 3 logela, trasteleku eta garajea. 145.000€. Ez du obrarik behar.
- Zubiaurre, 75 m², 3 logela, Igogailua. Berritzeko. 60.000€.
- Ibarra, 62 m², 3 logela. Trasteleku. 86.000€. AUKERA ONA.
- Askarruntz, 83 m², 3 logela, Berritzeko. 62.000€.
- Ola, 52 m², 2 logela. Berritzeko. 48.000€. AUKERA ONA.
- Bidekurutzeta, 130 m², 4 log. 320.000€. Igogailua. NEGOZIAGARRIA.
- Bidekurutzeta, 54 m², 2 logela. Berritzeko. Igogailua du. 92.000€.
- Koldo Eleizalde, 76 m², 3 logela. Terrazarekin. 115.000€. NEGOZIAGARRIA.
- Zubiaurre, 50 m², 2 logela, BERRITZKO. 24.000€. AUKERA ONA.

ANGIOZAR:

- Etxebizitza 60 m², 2 logela, erabat berritua. Trastelekuarekin. 92.000€.
- Baserria 233 m². Lur sailak eta bi etxebizitza egiteko baimenarekin. 250.000€.
- Duplexa, 170 m², 4 logela, garajea, txakoa eta terrenoa 180m².

OSINTXU:

- Osintxu, 92 m², 3 logela, igogailua, garajea. Eraikuntza berria. 165.000€.
- Osintxu 61 m². 3 logela eta trasteroa. BERRITZKO. 43.000€. AUKERA BIKAINA.
- Osintxu 70 m². 2 logela eta igogailua. 62.000€. AUKERA BIKAINA.

UBERA:

- Baserria eta 15 hektareako lursaila (pinuak eta zelaiak). 470.000€.

ANTZUOLA:

- Errekalde, 68 m², 2 logela. Ez du obrarik behar. Altzariak barne. 140.000€.
- Buzin-zuri, 65 m², 2 logela. Ez du obrarik behar. 180.000€. Garajea aukeran.
- Ibarondo, 90 m², 3 logela. Trasteleku, eguzkitsua. 190.000€. Garajea barne.
- Kalebarren, 85 m², 3 logela, igogailua. 180.000€.
- Errekalde, 65 m², 2 logela, igogailua. Aukera ona. 90.000€.
- Buzin zuri, 65 m², 2 logela, igogailua, garajea barne. Bizitzera sartzeko. 180.000€.

ELGETA:

- Torrealden 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adostasua 150 m² + 45 m² garajea + 90 m² lursaila.

OROIGARRIA



Jaione Mendizabal Arriola

2017ko martxoaren 23an hil zen, Liman (Peru), 86 urte zituela.

Beti gogoan izango zaitugu.

Mendizabal sendia.
Arrasaten, 2017ko apirilaren 28an.

OROIGARRIA



Kepa Murua Arriaran

Samindurik dugu bihotza motel bizitzaren garra. Gaur faltan sumatzen dugu zuk emandako indarra.

Hire kuadrilla.
Oñatin, 2017ko apirilaren 28an.

OROIGARRIA



Aritz Mugarza Villar

2017ko apirilaren 15ean hil zen, 40 urte zituela.

Literatura eta musika bizi ziren zurekiko naturazale sutsua zinen ta kuadrillan ironiko utzi diguzun hutsuna ezerk ez duen arren jantziko Aritz guregan zizelkatuta gelditu zara betiko.

Zure kuadrillako lagunak.
Oñatin, 2017ko apirilaren 28an.

OROIGARRIA



Isabel Diego Ortiz

1932-05-28 / 2010-04-19

Jose Ignacio Uribarri Jausoro

1941-06-26 / 2003-03-30

Bizitza emango dut gure hildakoengandik ikasitako keinu bakoitzagatik.

Eta bizirik nagoela ospatuko dut, gure hildakoak irribarrez gogoratze.

Naizena naiz; gure hildakoen legatua. Eskerrik asko AM-ri, bidaigatik.

Eskoriatzan, 2017ko apirilaren 28an.

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

• Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

• Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.

• GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.
- Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.
- Astebeteko prezioa: 17 euro 15 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).
- Astebete baino gehiagor argitaratzeko, prezio bereziak aplikatuko dira.
- Profesionalen moduluak. Modulo bakarra: 22 euro (+BEZ).

ESKER ONA



Antoni Agiriano Kortazar
(Aiskar baserria)
Eugenio Igarza Loidiren alarguna




2017ko apirilaren 7an hil zen, 87 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.


—
Beti egongo zara gure bihotzean.

Bergaran, 2017ko apirilaren 28an.

ESKER ONA



Antonio Emilio Dominguez Vazquez



2017ko apirilaren 10ean hil zen, 89 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi, bere emaztearen eta familiakoen aldetik.

Bergaran, 2017ko apirilaren 28an.

ESKER ONA



Carmen Uribarren Eguidazu
Ignacio Olabarriaren alarguna



2017ko apirilaren 20an hil zen, 91 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2017ko apirilaren 28an.

ESKER ONA

Maria Luisa Lazkanoiturburu Garmendia



2017ko apirilaren 25ean hil zen, 86 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.

—
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Oñatin, 2017ko apirilaren 28an.

ESKER ONA

Rosario Bengoa Lizarralde
Fermin Lasagabasterren alarguna



2017ko apirilaren 13an hil zen, 94 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana familiaren izenean.

—
Ondra-meza zapatuan izango da, apirilaren 29an, 19:30ean Oñatiko agustindarren elizan.
Bertaratuko zaretenoi alde zurretik eskerrik asko.

Oñatin, 2017ko apirilaren 28an.

ESKER ONA

Felisa Murua Aguirre



2017ko apirilaren 20an hil zen, 87 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuei eskerrik asko, sendikoen izenean.

—
Ondra-meza zapatuan izango da, apirilaren 29an, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan.
Elizkizunetara joango zaretenoi, aurrez esker mila.

Oñatin, 2017ko apirilaren 28an.

ESKER ONA

Aritz Mugarza Villar



2017ko apirilaren 15ean hil zen, 40 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuei eskerrik asko, sendikoen izenean.

—
Ondra-meza zapatuan izango da, apirilaren 29an, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan.
Elizkizunetara joango zaretenoi, aurrez esker mila.

Oñatin, 2017ko apirilaren 28an.

ESKER ONA

Merche Alberdi Zubizarreta



2017ko apirilaren 9an hil zen, 91 urte zituela.

Lerro hauen bidez Mercheren sendiak eskerrak eman nahi dizkizuegu, bihotz-bihotzez, horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

—
Beti izango zara gure artean.

Eskoriatzan, 2017ko apirilaren 28an.

URTEURRENA



Bittor Olalde Beloki
'Kamiñero'



2016ko apirilaren 29an hil zen, 88 urte zituela.

Urteurrenako meza zapatuan izango da, apirilaren 29an, 19:00etan, Mikel Goiaingeruaren elizan.

Aurrez esker on bertaratuko zareten guztioi.
Oñatin, 2017ko apirilaren 28an.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo eskelak@goiena.eus

- Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 160 €/ Goiena Klubeko bazkideendako 142 €
- Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 140 €/ Goiena Klubeko bazkideendako 125 €

Goiena: irakurriena Debagoienan.

URTEURRENA



Luis Urrutia Makazaga



2016ko apirilaren 30ean hil zen, 93 urte zituela.

Urteurrenako meza domekan izango da, apirilaren 30ean, 12:00etan, Osintxuko elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran (Osintxu), 2017ko apirilaren 28an.

OROILORE
Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Doluminaren sentimenduak eta emozioak bideratzeko, nire lana egoera kuttun batean zuekin egotea da. Azken agurrean maitasunez agurtu ditzagun hainbeste maite ditugunak

Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu:
NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua
AUKERA DEZAKEZULA BETI.



maribi 617 44 21 55
BERGARA


TXUTXU-MUTXUAK



1



2



3



4

1. Pedro Mari eta Maria Jesus

Pedro M. Uberak eta M. Jesus Letek 50 urte beteko dituzte ezkondata apirilaren 29an. Zorionik beroenak eta muxu handi bana bioi, familiakoen partetik!

2. Nica eta Aintziñe

Nica Valor arrasatearra eta Aintziñe Nazabal zaldibiarra zapatuan, apirilaren 29an, ezkonduko dira Zaldibian! Familiaren partetik, zorionak eta ondo pasatu bidaian Hegoirekin eta Hirunerekin!

3. Valle eta Juan

Valle Rodriguez eta Juan Curado bergarrek urrezko ezteiak ospatuko dituzte zapatuan. "Maitasunean elkarrekin egondako urteak dira garrantzitsuak. Zuek lortu duzue eta oso harro gaude. Zorionak, seme-alaben eta biloben partetik".

4. Ikasle frantsesak Oñatin

Frantziako Argenton Sur Creus-eko 20 ikasle eta bi irakasle etorri dira aste honetan Oñatira, Zuazola institutuak gonbidatuta. Bilbo, Arantzazu eta Gasteiz ere ezagutu dituzte eta bihar, zapatua, bueltatuko dira etxera. Oñatiarrak maiatzean joango dira Frantziara, elkartrukean.

ZORION AGURRAK



OÑATI
Unai Bellido Gonzalez
Maiatzaren 3an, 8 urte. Zorionak, maitia! Beste urte bat gehiago bete duzu. Jarraitu gure bizitzak alaitzen. Muxu handi-handi bat etxeko guztien eta, bereziki, Izaroren partetik.



BERGARA
Intza Goiti Zubia
Maiatzaren 3an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat Egoitzen, amatxoren eta aitaxoren partetik.



BERGARA
Oier Iturbe Garmendia
Maiatzaren 2an, 8 urte. Zorionak, Oier! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzea eta muxu handi bat, etxeko danon partetik!



OÑATI
Ion Arabaolaza
Maiatzaren 1ean, 29 urte. Zorionak, Ion! Muxu handi bat etxeko danon partetik eta ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean.



ARRASATE
Haizea eta Ibai Murgia
Ibaik maiatzaren 1ean, 11 urte beteko ditu eta Haizeak 6an, 8 urte. Zorionak eta besarkada handi bat, familia osoaren partetik.



BERGARA
Irati Urigoitia
Apirilaren 26an, 9 urte. Zorionak Irati! Zure aita Lander, ama Ana, anaia Endika, lehengusina Luzia, aitteite Karlos eta amama. Egun polita pasatu Bergaran!



OTXANDIO
Aimar Arejolaleiba Karrasko
Apirilaren 26an, 3 urte. Segi holako alai eta potxolo izaten, Atxabaltakoen partetik.



ARRASATE
Maddi Urionabarrenetxea Porcel
Apirilaren 25ean, 4 urte. Zorionak, Maddi! Sorgintxo handia egiten ari zara. Musu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARRASATE
Izortz Llodio Ramos
Apirilaren 25ean, 9 urte. Zorionak, Xabi! Izortzito. Ondo pasatu eguna, etxeko partetik! Muxu handi bat!



OÑATI
Xabi Jausoro
Apirilaren 25ean, 7 urte. Zorionak, Xabi! Ondo pasatu egun berezi hau. Patxo handi bat eta belarririk zazpi tirakada.



ELGETA
Intza Aranzabal Sarasua
Apirilaren 24an, 5 urte. Zorionak, maitia! Aitaxoren, amatxoren eta zure ahizpa Maidarren partetik.



BERGARA
Oihan Gainza Urzelai
Apirilaren 22an, 6 urte. Zorionak, Oihan! Txapeldun! Muxu handi-handi bat etxeko partetik. Askok maite zaitugu!



BERGARA
Iban Da Silva
Apirilaren 21ean. Zorionak, aita! Ondo ospatu zure urtebetetze eguna. Askok maite zaitugu. Muxu eta besarkada handi bat, Kenarren eta Alaineren partetik.



ARRASATE
Irati Jimenez Aldama
Apirilaren 20an, 7 urte. Zorionak, laztana. Segi hain alai eta maitekor. Zazpi tirakada eta besarkada erraldoi bat familiako danon eta, bereziki, Ibairen eta Goizaneren partetik.



ANTZUOLA
Unai Eraña Belategi
Apirilaren 20an, 9 urte. Zorionak, Unai! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta opari asko jaso! Patxo handi bat etxeko partetik, maitia!



OÑATI
Olaia Urkia Goenaga
Apirilaren 20an, 2 urte. Zorionak, Olaia! Etxeko sorgintxoak bi urte bete ditu! Egun ederra pasatu! Muxu eta besarkada handi bat, familia osoren partetik.



ARRASATE
Hugo Carmona Iglesias
Apirilaren 19an, 5 urte. Zorionak, pitxor! Zelako handia! 5 urte! Primeran pasatuko dugu laguntxo guztiekin! Muxu pila. Maite zaitugu!



OÑATI
Oier Laka Sansinenea
Apirilaren 14an, 7 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure eguna eta muxu pila bat etxeko eta, batez ere, Aneren eta Eleneren partetik.



OÑATI
Ohian Buquete Maniega
Apirilaren 14an, 7 urte. Zorionak, txiki! Ondo pasatu zure eguna aitaren, Dianaren eta familiaren partetik. Maite zaitugu, enano!



OÑATI
Lander Aranburu Gomendio
Apirilaren 14an, 11 urte. Zorionak, Lander, 11 urte! Segi orain arte bezala, alai eta zoriontsu. Muxu mordo bat etxeko guztien partetik.



ARRASATE
Ekaitz Zulueta Algorta
Apirilaren 14an, 7 urte. Beti alai eta barreka dabilen geure azeriarendako, zorionak eta musu handi bat!



ESKORATZA
Beñat Arana Romero
Apirilaren 13an, 4 urte. Zorionak, txipi! 4 urtetxo betetzen dituzu, txapeldun! Primeran pasatu zure eguna eta asko-asko jolastu eta dantzatu! Maite zaitugu!



BERGARA
Nahia San Vicente
Apirilaren 13an, 6 urte. Zorionak, polit hori! Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu pila bat, etxeko danon partetik.



ARETXABALETA
Haizea Leiba Arenaza
Apirilaren 12an, 4 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta patxo erraldoi bat, etxeko danon partetik!



ARRASATE
Sara Laverdy
Apirilaren 11n, 32 urte. Zorionak, tia Sari! Sebasen, Oihaneren eta Jonen partetik, patxo handi bat eta ondo pasatu zure eguna!



ARETXABALETA
Ihntza, Itoitz eta Ekhi Louvelli Urrutia
Ihntzak apirilaren 11n, lau urte eta Ekhi eta Itoitzek apirilaren 23an, 9 urte. Zorionak, hirukote! Bat eta batzuk, korrika iritsi zaigu zuen eguna ospatzeko unea. Patxo bana!



ONATI
Unax Gende Sanchez
Apirilaren 30ean, 3 urte. Zorionak, maittia! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzean! Muxu handi bat, amatxoren eta aitaxoren partetik! Asko maite zaitugu.



DEBAGOIENA
Xabat Agirre Txintxurreta
Apirilaren 29an, 2 urte. Zorionak familia osoaren partetik!



ARETXABALETA
Izaro Aperribay Elejalde
Apirilaren 28an, 6 urte. Patxo potolo bat etxeko guztien partetik, printzesa!



ARETXABALETA
Zaraitzu Lazkano Gorostiza
Apirilaren 28an, 8 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zeure egunian. Mila miloi muxutxo, danon partetik.



BERGARA
Hur Bilbao Alvarez
Apirilaren 28an, 5 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu eta zorionak beti! Patxo handi bat etxeko danon partetik.



ONATI
Laia Zurutzu Garcia de Albeniz
Apirilaren 27an, 2 urte. Zorionak, politt hori! Patxo handi-handi bat, etxeko danon partetik.



ONATI
Paul Erdozia Barrenetxea-Arando
Apirilaren 26an, urtebete. Etxeko txikixak jada urtetxo bat! Zorionak, potxolo, familia guztixaren partetik. Asko maitte zaitugu.



BERGARA
Ekiñe Gonzalez Jimenez
Apirilaren 26an, 8 urte. Anai, guraso eta aiton-amonen partetik, zorionak eta ondo pasatu!



BERGARA
Amalur Egidazu Arrillaga
Apirilaren 26an, 7 urte. Zorionak, sorgintxo! Ondo pasatu zure egunian, politt hori. Patxo pila bat, etxeko danon partetik.



ARETXABALETA
Peru Ansa Okarantza
Apirilaren 24an, 4 urte. Zorionak, Peru! Ondo-ondo pasatu zure laugarren urtebetetze egune!



ONATI
Eneritz Gereñu Arregi
Apirilaren 18an, 8 urte. Zorionak, Eneritz! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta patxo potolo bat, etxeko guztien partetik.



ONATI
Maddi Aurrekoetxea Elorza
Apirilaren 24an, 4 urte. Maddi, apirileko lore, zure begi eta jolasek bihotza betetzen digute. Zorionak, maitte!



ARRASATE
Unai Torres Valdes
Apirilaren 24an, 4 urte. Zorionak laugarren urtebetetzean! Egun polita pasa dezazula, asko maite zaituen lehengusu Hugoren partetik!



BERGARA
Mikel Igartza Amasorain
Apirilaren 24an, 11 urte. Zorionak! Jarraitu orain arte bezalako mutil jatorra izaten. Musu handi bat familiaren partetik.



BERGARA
Aiora Unamuno Lete
Apirilaren 23an, 4 urte. Zorionak, neska handi! Ondo-ondo ospatu zure eguna, printzesa. Muxu potolo-potolo bat, danon partetik!



ONATI
Ane Laskurain Arregi
Apirilaren 23an, 6 urte. Zorionak, Ane! Patxo handi eta potolo pila bat, etxekuen partetik! Ondo-ondo pasatu zure egunian! Maitte zaitugu, txiki!



ONATI
Ekain Leibar Zumalde
Apirilaren 23an, 4 urte. Zorionak, Ekain! Lau urte gure mutikuak! Jarraitu zarien bezelakua izaten. Asko maitte zaitugu. Ondo pasatu zure egunian, etxeko danon partetik!



ARRASATE
Unax Andres Lopez
Apirilaren 23an, 2 urte. Zorionak, txikixu! Gure etxeko txapeldunak bi urte betetzen ditu. Oso ondo pasatu zure egunean. Patxo handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Oier Otxoa Diaz de Gereñu
Apirilaren 19an, 5 urte. Zorionak, txapeldun! Patxo potolo bat, etxekoen partetik! Ederto pasatu eguna.



ONATI
Nahia Guridi Olalde Gereñu
Apirilaren 18an, 4 urte. Zorionak, neska handi! Ondo pasatu zure eguna eta opari asko jaso. Muxu pila bat, etxekoen partetik.



ONATI
June Romero Ugarte
Apirilaren 18an, 4 urte. Zorionak, potxola, familia osoaren partetik! Muxutxoak!



ARETXABALETA
Maren Axpe
Apirilaren 17an, 4 urte. Zorionak, Maren! Etxeko danon partetik, patxo handi bat!



ONATI
Maren Oleaga Mugarza
Apirilaren 17an, 4 urte. Zorionak, Maren! Ondo-ondo ospatu zure eguna eta fuerte in putz kandelairi! Patxo handi bat, etxeko danon partetik.



BERGARA
Oihan Leston Ezenarro
Apirilaren 16an, 8 urte. Zorionak, Oihan! Ondo pasatu zure egunean. 8 muxu potolo etxekoen eta, bereziki, Marenen partetik.



ARETXABALETA
Maren Oroiz Antoñana
Apirilaren 15ean, 8 urte. Zorionak, Maren! Oso ondo pasatu zure egunean eta musu potolo bat etxekoen eta, bereziki, zure lehengusinen partetik.



ARRASATE
Unax Goñi
Apirilaren 13an, 6 urte. Zorionak eta patxo handi-handi bat familia osoaren partetik!



ARRASATE
Maialen Velez de Mendizabal Otero
Apirilaren 13an, 9 urte. Zorionak, Maialen! 9 urte, *guapisima!* Patxo potolo piloa, familia osoaren partetik!



ARETXABALETA
Libe Zubillaga Olabe
Apirilaren 13an, 2 urte. Zorionak, Libe! Ondo pasatu zure eguna eta besarkada handi bat etxekoen eta, bereziki, Danelen eta Oxelen partetik!



ARRASATE
Garazi Garitaonandia Uribe
Apirilaren 12an, 20 urte. Etxekoen partetik, zorionak!



ARRASATE
Laia Ezkurra Iturbe
Apirilaren 12an, 5 urte. Zorionak, maitia! Oinguan bai, bostekua zuretzat! Ondo pasatu eguna. Koloretako mila muxu!



ARRASATE
Xuban Aginagalde Mondragon
Apirilaren 12an, Zorionak, Xuban! Urteko bat jada gure artien. Jarraitxu poztazun horreaz, gure egunak alaitzen! Etxeko danon partetik!



ARRASATE
Izadi Bragado Alvarez
Apirilaren 12an, 6 urte. Zorionak, printzesa! Oso ondo pasatu zure egunean. Patxo erraldoi bat, etxekoen partetik!



ONATI
Katrin Lazkano Kortabarria
Apirilaren 11n, urtebete. Zorionak, Katrin! Patxo handi bat, etxeko danen eta, bereziki, Lideren partetik!



ANTZUOLA ETA ARETXABALETA
Danel Gonzalez
Apirilaren 10ean, 5 urte. Zorionak, txapeldun! Etxeko danon partetik, patxo handi bat!



ARRASATE
Ion Ferreira Barrutiabengoa
Apirilaren 10ean, 3 urte. Zorionak, maitia! Zu gaurkoan ere beti bezain alai. Asko maite zaitugu denok; bereziki aitaxok, amatxok eta Maddik. Patxo handia!



ONATI
Goretzi Zumalde Irazabal
Apirilaren 7an, 5 urte. Zorionak, Goretzi, etxeko danon partetik. Muxu pila bat.



BERGARA
Maider eta Izaro Otero
Apirilaren 6an, 12 urte. Zorionak, printzesak! Oso ondo pasatu zuren egunean eta urte askotarako! Ama, aita, Leire eta Oxel. Muxu pila!



ONATI
Ganix Mendibe Garai
Apirilaren 5ean, 3 urte. Zorionak eta besarkada bat etxeko bihurrienari etxeko guztien eta, batez ere, Ainhizeren partetik!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zorientzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkartzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENENKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 28

ESKORIATZA 'Mugi Santa Marinara'

Herri kirolak eta kale jolasak umeendako.

*Santa Marina plazan, 16:45ean.***OÑATI Ipuin kontaketa**

Eneko Etxegaraireren saioa, 3-10 urte arteko umeendako.

*Ludotekan, 18:00etan.***OÑATI 'Mirar más allá de la forma' erakusketa**

ARGI festibalaren baitan, Patricia Bofillen erakusketa zabalduko dute. Ikusgai, maiatzaren 28ra arte.

*Gandiaga topagunean, 18:00etan.***ESKORIATZA Liburuaren Nazioarteko Eguna***Ipuin musikatu* musika eskolako ikasleekin, *Ezagutuz ulertu eta ulertuz* maitatu lehiaketako sari banaketa eta *Ipuin kontaketa txikia* Dorleta Kortazarrekin.*Zaldibarren, 18:00etan.***BERGARA Ipuin kontaketa**

Maite Frankoren saioa umeendako.

*Liburutegian, 18:00etan.***ARRASATE San Andres jaiak**

Etxafuego jaurtiketarekin hasiko dituzte. 18:30ean buruhandiak, 19:00etan jolasak eta txokolate-jana eta 23:00etan dantzaldia.

*San Andresen, aipatutako orduetan.***ARRASATE 'Ina, nire ama afrikarra'**

Gilles Riviere idazleak eta Paxkal Bourgoin margolariak gidatutako saioa, 7 urtetik gorakoendako.

*Kulturaten, 18:30ean.***ARRASATE Anido gitarra laukotea**

XIII. Musikaldiko lehen kontzertua.

*Parrokian, 20:00etan.***ARETXABALETA Maribel Salas eta Javier Merino***Monolokos* bakarriketa saioa eskainiko dute bi aktoreek.

Sarrerak, lau euro.

*Arkupen, 20:00etan.***OÑATI Olabarrietako jaiak**

20:00etan etxafuego jaurtiketa eta 22:00etan The Kagas, Marianitoz Blai eta Trikimailu taldeak.

*Aipatutako lekuan eta orduetan.***OÑATI 'Lekaixoka!'-ren kantua eta bideoklipa**

Musika ardatz, jaialdi berezia izango da eta Txantxiku ikastolako aurpegi ezagunek parte hartuko dute.

Zubikoan, 21:30ean.

ZAPATUA 29

BERGARA 'Bizi baratzea' liburuaren aurkezpena

Jakoba Errekondok zuzeneko irratsaioa egingo du liburua aurkezteko. Ostean, solasaldia.

*Elosuko elkartearen, 09:00etan.***ARRASATE 'Emakumeak aniztasunean ereiten'**

Bailarako nekazariarekin elkarlanean auzolana egingo dute Garagartzako ortuetan.

*Aipatutako lekuan, 10:15ean.***OÑATI Debagoieneko Trikiti Eguna**

10:00etan, ongiatorria; 10:30ean, tailerrak; 12:00etan, kalejira; 13:00etan, eszenatokiko saioa; 14:30ean, bazkaria; 17:00etan, kontzertua; 19:30ean, elektro-txarangarekin poteoa; eta, 22:30ean, eMePeBos5t eta Los Zopilotes Txirrius taldeak.

*Aipatutako orduetan.***ESKORIATZA Fit-bike saioa, kalean**

Bizikletak Santa Marina plazara aterako dituzte, ordu eta erdiko saioa egiteko, Xabier Azkaraterekin eta Iker Beitiarekin.

*Aipatutako lekuan, 10:30ean.***ARRASATE San Andres jaiak**

11:30ean puzgarriak; 13:00etan poteoa, 15:00etan bazkari herrikoia; 17:15ean bigantxak; eta 23:00etan kontzertua.

*San Andresen.***ARETXABALETA Ipuin kontaketa***Izenak izan* delako saioa egingo du Eneko Aritzak.*Liburutegian, 11:30ean.***OÑATI Bisita gidatuak**

12:00etan Txokolateixan; eta 13:00etan eta 17:00etan unibertsitatean eta parrokian.

*Aipatutako lekuetan eta orduetan.***OÑATI 'Herrixa kantuan'**

Txantxiku Ikastolaren eta Jose de Azpiazu musika eskolaren eskutik.

*Foruen plazan, 12:30ean.***ARRASATE Saxofoi eta gaita ikasleen kontzertua**

Arrasate Musikaleko ikasleak.

*Musika eskolan, 12:30ean.***OÑATI 'Sotorock' jaialdia**

15:00etan bazkaria; eta, 21:00etan, Zuen Azkena, Utopia eta Nos La Suda taldeen kontzertua.

*Aipatutako orduetan, gaztetxean.***ARETXABALETA Muralgintza**

Gaztelekuko agertokia margotzen bukatuko dute gazteek.

*Gaztelekuan, 17:00etan.***ARRASATE Mahai-jolasak**

Gaztetxoendako ekintza.

*Erdiguneko gaztegunean, 17:30ean.***ESKORIATZA 'Hi Selfie' lehiaketa**

Gaztetxoendako ekintza.

*Gaztelekuan, 17:30ean.***ARETXABALETA Bullets Of Misery eta Krisis taldeak**

Lehena 18:30ean eta bigarrena 20:30ean, zuzenean, Haizea tabernan.

*Aipatutako lekuan eta orduetan.***ARETXABALETA BTres41 eta Drop! taldeak**

Lehena 19:30ean eta bigarrena 21:30ean, zuzenean, Kixkor tabernan.

*Aipatutako lekuan eta orduetan.***OÑATI 'Bookjockey' saioa***Errepidean* delako saioa Miren Pastor argazkilariarekin.*Foruen plazan, 22:30ean.*

DOMEKA 30

ELGETA Mendi irteera loarrera

Kantsatzeke mendi taldearekin.

Mendizaleen plazan, 08:00etan.

IMANOL SORIANO

ELGETA Mikel Urdangarin disko berria aurkezten*Margolaria* da zornotzarraren azken lana eta hori bera aurkezteko kontzertua egingo du. Sarrerak salgai daude *Spaloia.eus* atarian: aurrez, bederatzi euro, eta, egunean, hamabi.*Gaur, egubakoitza, Spaloian, 22:00etan.***OÑATI Olabarrietako jaiak**

10:00etan meza; 11:30ean herri kirolak; 14:30ean auzo bazkaria bertsolariekin; 17:30ean haur jolasak; 19:00etan erromeria; eta, 22:00etan Oñatiko taldeen kontzertua.

*Aipatutako lekuan eta orduetan.***OÑATI Bisita gidatuak**

12:00etan Txokolateixan; eta 13:00etan eta 17:00etan unibertsitatean eta parrokian.

*Aipatutako lekuetan eta orduetan.***ARRASATE San Andres jaiak**12:30ean poteoa; 17:00etan umeendako *Patrulla canina* ikuskizuna; 19:00etan buruhandiak; eta 23:00etan Aggressive Combat eta Arkada Social taldeak.*Aipatutako orduetan.***OÑATI Txantxiku ikastolako ikasle ohien bazkaria**

50. urteurrena ospatuko dute elkarrekin.

*Zubikoan, 14:30ean.***ARRASATE Zinema**

Gaztetxoendako ekintza.

*Erdiguneko gaztegunean, 17:30ean.***ESKORIATZA Zinema**

Gaztetxoendako ekintza.

*Gaztelekuan, 17:30ean.***ARETXABALETA Zinema**

Gaztetxoendako ekintza.

*Gaztelekuan, 17:30ean.***ANTZUOLA Zinema***Koaderno handia* filma emango dute, euskarazko azpitoluekin.*Torresoroan, 18:30ean.***ESKORIATZA 'Barro rojo' ikuskizuna**

Ikuskizunaren protagonistak bidaia bat kontatuko du. Berea eta osaba homosexual batena. Hitlerren Europa eta Francoren Espainia bateratuko dituzte errealitate berean. Javier Liñenak zuzendutako lana. Sarrerak, lau euro.

*Zaldibarren, 19:00etan.***OÑATI Erakusketa zabaldu**

Eli Garmendia tolosarraren eta Ekaitz Filarmendi aretxabaletarraren argazkiak ikusgai, ARGi festibalaren barruan. Ikusgai, maiatzaren 14ra arte.

*Kultura etxean, 18:00etan.***ELGETA Herrixa Dantzan**

Patxi Monterok gidatutako saioa.

*Spaloian, 19:00etan.***ARRASATE Alos Quartet eta Oreka Tx taldea**

XIII. musikaldiaren kontzertua egingo dute bi taldeek.

Kulturaten, 20:00etan.

ASTELEHENA 1

BERGARA Txistulari bandaren kalejira

Askotariko piezak joko dituzte Labegaraietako jaietan.

Labegaraietan, 10:00etan.

OÑATI Olabarrietako jaiak

11:00etan meza; 12:00etan luntxa; 13:00etan Oñatz taldearen erakustaldia; 16:30ean mus txapelketa; eta 19:30ean jaien bukaera.

Aipatutako lekuetan eta orduetan.

ARRASATE San Andres jaiak

11:30ean puzgarriak, 12:00etan meza, 13:30ean nagusien bazkaria eta 18:00etan jaien amaiera.

Aipatutako lekuetan eta orduetan.

OÑATI Bisita gidatuak

12:00etan Txokolateixan; eta 13:00etan eta 17:00etan unibertsitatean eta parrokiari.

Aipatutako lekuetan eta orduetan.

BERGARA Eskolarteko**txirindularitza txapelketa**

Infantil eta alebin mailetak probak.

Labegaraletan, 16:00etan.

MARTITZENA 2**ARRASATE Umeen****danborradarako izen-ematea**

Gaurtik eman daiteke izena SUDCen egoitzan, 16:30etik 18:00etara arte, lekuak bukatu arte. Pertsona bakoitzak, gehienez, hiru ume apuntatu ditzake.

Aipatutako lekuan eta orduan.

ARETXABALETA 'Okilak eta biodibertsitatea' erakusketa

Natur eskolak bilduma. Gainera, bisita gidatuak egingo dituzte bi egunetan: maiatzaren 2an eta 17an, 19:00etan.

Arkupen, aipatutako orduan.

OÑATI 'Nosotras. Mujeres de Euskalduna' dokumentala

Larraitz Zuazoren dokumentala. Euskaldunako ontziolen itxieraren aurka borroka egiteko asanbladan parte hartu zuten lekukotzaren balio sinboliko eta politikoa erakusten du lanak.

Kultura etxean, 19:00etan.

BERGARA Grabatuak ikusgai

Josean San Torcuatok hamalau lan ipini ditu ikusgai. Euskal kantuetan oinarritutako lanak dira: *Loretxo*, *Udazken koloretan*, *Bizkaia maite...* *Reizabal gozotegian.*

EGUAZTENA 3**ANTZUOLA Txisteak kontatzen**

Erretiratuek kontatuko dituzte txisteak.

Landatxopen, 18:00etan.

ARRASATE Artzaintzaren ibilbidearen 10. etapa

Maiatzaren 28an egingo dute Iruñea Oka-Okina ibilbidea. Izena emateko eguna: martitzenak eta eguaztenak, 19:30etik 20:30era.

Landatxopen, 18:00etan.

BERGARA 'Euskararen biziberritzea: ziklo berrirako osagai batzuk' hitzaldia

Ibon Manterolaren hitzaldia, Jardunek gonbidatuta.

Irizarren, 19:00etan.

DEBAGOIENA 'Desfibriladorea nola erabili?'

Debagoieneko Gurutze Gorriak ikastaroa egingo du maiatzaren 5ean eta 6an Oñatin. Zortzi ordukoa izango da eta titulu ofiziala jasoko da. Izena emateko: 943-76 55 76 edo 678 40 15 86.

Izen-ematea, aipatutako telefonoetan.

EGUENA 4**ESKORIATZA Literatura solasaldia**

Bemharden *El origen* liburuari buruzko solasaldia egingo dute, Ruben Arias koordinatzailearekin, gazteleraz. Izenak aurrez eman behar dira, 943-71 31 35 telefonoan edo *biblioteka@eskoriatza.eus* helbidean.

Liburutegian, 18:00etan.

ARETXABALETA 'I. Uribesaldo' liburuaren aurkezpena

Aitor Antxia egileak berak egingo du liburuaren aurkezpena. Entzuleen galderak erantzungo ditu.

Arkupen, 19:00etan.

ARRASATE Zea Mays, Koolturen

Ikasturteko azken emanaldian Aiora Renteriarren taldea izango da protagonista. Sarrerak, bost euro. *Gaztetxean, 22:00etan*

ZINEMA**ARRASATE****AMAIA ANTZOKIA****El bar**

Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

El bebe jefazo

Domeka: 17:00.

OÑATI**KULTURA ETXEA****Life**

Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

ARETXABALETA**ARKUPE****La bella y la bestia**

Zapatua: 19:30.
Domeka eta astelehena: 17:00, 19:30.

EIBAR**COLISEO****Lady Macbeth**

Zapatua eta domeka: 17:00.
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

Negacion

Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

El bebe jefazo

Zapatua eta domeka: 17:00.

ANTZOKIA**Guardianes de la galaxia**

Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

GASTEIZ**BOULEVARD****Guardianes de la galaxia**

Egubakoitzetik domekara: 23:00, 00:00.
Egubakoitzetik eguenera: 15:45, 17:30, 18:30, 19:30, 20:15, 21:15.

Guardianes de la galaxia 3D

Egubakoitzetik eguenera: 16:45.

Plan de fuga

Egubakoitzetik eguenera: 15:45,

17:50, 20:10, 22:30.

Bebe jefazo

Egubakoitzetik eguenera: 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 21:00.

Fast & furious 8

Egubakoitzetik eguaztengera: 16:45, 19:30, 22:15.
Eguenera: 16:45.
Egubakoitzetik domekara: 23:45.

La bella y la bestia

Egubakoitzetik eguenera: 16:00, 18:45, 21:30.

Los pitufos

Egubakoitzetik eguenera: 16:20, 18:20.

John Wick

Egubakoitzetik eguenera: 20:00, 22:30.

A fondo

Egubakoitzetik domekara: 23:15.
Egubakoitzetik eguenera: 16:00.

Life

Egubakoitzetik

eguenera: 16:15, 22:45.

Un golpe con estilo

Egubakoitzetik eguenera: 18:25.

Mañana empieza todo

Egubakoitzetik eguenera: 20:25.

El bar

Egubakoitzetik eguenera: 22:10.

FLORIDA**El bebe jefazo**

Egubakoitzetik astelehenera: 12:00, 16:30.

Plan de fuga

Egubakoitzetik astelehenera: 16:30, 18:20, 20:30, 22:30.
Martitzenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

Ballerina

Egubakoitzetik astelehenera: 12:00.

Fast & furious 8

Egubakoitzetik eguenera: 17:25.

Alta sociedad

Egubakoitzetik eguenera: 20:00, 22:30.

El reino de las ranas (euskaraz)

Egubakoitzetik astelehenera: 12:00.

Stefan Zweig

Egubakoitzetik astelehenera: 16:30, 18:30.
Martitzenetik eguenera: 20:00.

Locas de alegria

Egubakoitzetik eguenera: 22:30.

Guardianes de la galaxia 2

Egubakoitzetik astelehenera: 12:00.
Egubakoitzetik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

Power Rangers

Egubakoitzetik astelehenera: 12:00.

Maravilloso boccaccio (jatorrizko bertsoan)

Egubakoitzetik eguenera: 20:00, 22:30.

La bella y la bestia

Egubakoitzetik astelehenera: 12:00.

Un italiano en Noruega

Egubakoitzetik astelehenera: 16:30, 20:30, 22:30.
Martitzenetik eguenera: 17:30, 22:30.

Contra la impunidad

Egubakoitzetik astelehenera: 16:30.

El otro lado de la esperanza

Egubakoitzetik astelehenera: 18:30.
Martitzenetik eguenera: 17:30.

Dancing Beethoven

Egubakoitzetik astelehenera: 20:30.
Martitzenetik eguenera: 22:30.

KRITIKA**El otro lado de la esperanza ★★★★★**

Zuz.: Aki Kaurismäki. **Herr.:** Finlandia (2016). **Aktoreak:** Sherwan Haji, Sakari Kuosmanen, Ilkka Koivula.

Bitxia eta argia**ANTONIO ZABALA**

Aki Kaurismäkiren pertsonaiak munduan dauden pertsona arruntak dira. Zuzendari finlandiarrak munduari buruz duen ikuspegia ez da batere baikorra. Gizarteak gaizki funtzionatzen du eta askotan jendea itota sentitzen da jasaten ari den egoerarengatik. Ematen du zuzendariak ez duela agintariak eta erakundeek egiten duten lanean sinisten; bai, ordea, jende apalaren borondate onean. Eta hori da *El otro lado de la esperanza*-n gertatzen dena. Istorioko bi pertsonaia nagusi dauzkagu: bata Siriatic ihes egindako etorkin bat da. Ez dauka ezer baina irtenbide bat topatu nahian Europara ihes egiten du, Finlandiara heldu arte. Bestea Finlandian bizi den gizona da. Duen bizitza grisetik ihes egin nahi du: emaztea eta



ARGAZKILARIA/XXX

lana uzten ditu, jatetxe bat zabaltzeko. Siriako gizona bezala, munduan bere tokia aurkitu nahi du. Bien istorioak batuko dira elkartasunaren garrantzia aldarrikatzeko. Hori da geratzen zaigun bide bakarra. Baina ez kezkatu. Kaurismäki ez da panfletoak eta hitz handiak erabiltzen dituen pertsona.

Gaurko egungo gizarteari begirada bat ematen dio, baina ipuinen eta absurdoaren ukaturakin. Bere pertsonaiak zakarrak baina bihozberak dira. Keinu eta hitz gutxikoak, baina eskuzabalak eta elkarri laguntzeko prest. Zuzendariak bere estilorekin azaltzen du bere unibertsio argia eta bitxia.



AZKEN BERBA

AINZANE OIARBIDE

Gernika, malkoak ezin lehortu

Duela 80 urte gertatu zen, apirilaren 26an. Baserritar eta kaletarrak merkatu egunean salerosketan, umeak jolasean eta gurasoak lanean ziren. Bat-batean sirena hotsa, bonbak, sua, bizirik zeuden gorputzak gorpu bihurturik, nahigabea, pozaren hurren negarra. Herri bat justifikaziorik gabe suntsitu zuen Francok Alemaniako nazien eta Italiako legionarioen laguntzaz.

Euskal erakunde eta ordezkariak sarraski eta dolu hori gogora ekartzea zilegi eta beharrezkoa da. Biktima gertatu ziren guztiak gogoratzea ezinbestekoa eta kanpotik etorritako nazien ondorengok dolu horretan parte hartzea, Nagasakiko herriaren ordezkariak ere gurekin bat egitea eskertzekoa eta txalotzekoa. Bihotz mina eta harridura sortu dit, ordea, Idoia Mendia sozialistaren hitz jarioak: hau guztiau "abertzaleok Espainiaren aurkako tesi biktimistak elikatzen" omen da. Mendia andreak erakusten duen hoztasun itxuragabea eta biktimekin enpatiarik eza eta Euskal Herriaren aurkako eraso ikaragarri honetan sortu duen desenfoke galanta ezin ditut onartu. Espainiako gobernuak ez du sekula dolu horretan bat egin eta horretan PPreu gobernu eta PSOEren parean zaudete, Mendia andrea.

BUKATZEKO



Booktuber bat liburua irakurtzen. GOIENA

'Booktuber' izateko lehen urratsak egiteko deia

EAEko liburutegiek eta Galtzagorri Elkarteak lehenengoz deitu dute liburuei buruzko iruzkinak eta kritikak Youtubera igotzeko aukera ematen duen 'Booktuberboom' lehiaketa. Interesatuek urriaren 24a baino lehen aurkeztu behar dituzte lanak

Mireia Bikuña ARRASATE

Youtuberrak gizartearen barneratuta dauden garai honetan, beste kontzeptu bat dator ate joka: *booktuber* izatearena. Bideoak igo ordez, liburuen iruzkinak edo kritikak sarera igotzen dituzten pertsonak dira. Ikus-entzunezkoak erabiltzen dituzte irakurritako liburuei buruzko iritzia emateko.

Bada, irakurzaletasuna, ikus-entzunezkoak eta Youtube baliatuz, *Booktuberboom* lehiaketa deitu dute, lehen aldiz, EAEko liburutegiek eta Galtzagorri elkarteak.

Besteekin konpartitzeko

Youtube plataforman zintzilikatzen den liburu bati buruzko kritika edo iruzkina da *booktu-*

be-a; eta liburu hori gomendatzeko bere buruari bideo-grabazioa egiten dion pertsona da *booktuber-a*.

Hori guztiori azpikultura digital baten batzen hasi da. Alegia, euren esperientzia literarioak besteekin konpartitzeko sare eta plataforma berriak sortzen diharduten neska-mutikoak dira.

14 eta 18 urte artekoendako

Booktuberboom lehiaketa 14 eta 18 urte arteko gazteendako da. Parte hartu gura dutenek euskarazko liburu bat irakurri eta horri buruzko *booktube* bat sortu beharko dute. Bideoaren iraupena, gehienez, minutu eta erdikoa izango da, eta *booktuberboom.wordpress.com* helbidean dagoen izen-emate orria beteta bidali beharko da. Urriaren 24an bukatuko da epea.

Jasotako bideo guztiak Creative Commons lizentziarekin argitaratuko dira, ikusleen botonen bidez, sarietako bat banatu ahal izateko. Bestea epaimahaia osatuko duten hiru adituk aukeratu dute.

Deialdia Arrasaten

Deialdia egin ostean, eta lehiaketa sustatze aldera, hiru herritan elkartuko dira. Horiertako lehena maiatzaren 5ean Arrasaten izango da, 18:30etik 20:30era arte.

Booktuber gazte batek gidatuko ditu saioak eta iruzkinak egiteko argibide guztiak emango ditu: bideoa nola grabatu, nola berba egin komentarioa ulergarria izan dadin, testua nola idatzi gutxienez eta gehiegizko denborara mugatzeko...

Beste bi deialdiak maiatzaren 12an Tolosan eta 19an Deustun egingo dira.

Ikastetxeetan ere bai

Irakurzaletasuna bultzatzeko duen garrantziaz oharturik, ikastetxeetan ere hasi dira fenomeno horrekin lanean. Adibidez, Madrilgo Lycee Français ikastetxean *Libres como Libros* plataforma sortu dute irakasleen eta ikasleen artean.

LANA • FISKALITATEA • KONTABILITATEA • JURIDIKOA-ABOKATUAK

zenbaki
aholkulariak-abokatuak

Errenta aitortpena eta aberastasuna aitortzeko kanpaina martxan
Beharra duzuen guztion zerbitzura gaude

Basabe Industrialdea Pab. FO - 10. bulegoa • 25 Postakutxa • 20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa) Tel.: 943 71 21 12
www.zenbaki.eus

30 urteko eskarmentua fiskal, kontabilitate, lan eta merkataritza arloetan, enpresen, autonomoen, partikularren eta enpresa bat sortu nahi dutenen zerbitzura